

KARMEL 2021-2

Apirila - Ekaina

314. Zenbakia

NON ZER

Kultura

- San Joan Gurutzekoren irudi eta sinboloak,
Luis Baraiazarra3
- Mikel Zarate irakasle eta idazle. Lezama, 1933-1979,
Lontzo Zugazaga9
- Jean Elissalderen “Erromarat” bidaia-kronika,
Jabier Kaltzakorta17
- BOSTAK BAT Kultur Elkartea 40 urte euskara ikertzen,
egokitzen, zabaltzen, *Patxi Uribarren*69

Gizartea

- San Joan Gurutzekoren “Idazlan guztiak” liburuaren eta
Gontzal Mendibil-en “San Joan Gurutzekoren Poema
musikatuak” CDaren aurkezpena, *Julen Urkiza*83

Eliza

- Joseph Ratzinger / Benedikto XVI, *Andoni Olea*114

Iritziak

- “Garen hori” liburuaren aurkezpena, *Ana Urkiza*120
- Grabitatea materiaren particularidade esistentziala da,
Roman Garmendia127

Literatura

Kontu-Kontari

- Leon Üthürbürü eta Floreana uhartea,
Joseba Aurkenerena135

Olerkiak

- Xerar Urrutia Jorajuriaren olerkiak, *Xerar Urrutia*144

Bertsoak

- Luis Baraiazarra150

KARMEL

Hiruhilabeteroko aldizkaria

Zuzendaria: Julen Urkiza (Markina)

Idazle kontseilua: Luis Baraiazarra, Ana Urkiza,
Patxi Uribarren, Andoni Olea, Luis Arostegi

Helbidea: Karmeldarrak – Markina-Xemein
48270 Markina – Bizkaia (Tel. 94-616 6019)
karmelaldiz@telefonica.net

Harpidetza: Urteko harpidetza: 18€
(Amerika: 35 dolar)

Aldizkariaren azala: Juan Mari Arrizabalaga

Aldizkari honetan agertzen diren mota guztietako lanak Creative Commonsen baimenarekin babestuek daude.



Eratxikipena - Ez komertziala - Deribatu gabe.

Erabiltzaileak Karmel aldizkariako elementu guztiak bistaratu, inprimatu, kopiatu eta gorde ditzake, betiere bere erabilera pertsonal eta pribaturako badira soilik; betiere obraren *egiletza, jabetza modu egokian aitortuz gero*. Karmel aldizkariako edukiak baimenik gabe merkataritza-helburuetarako erabiltzea edota haiek birsaltzea edo banatzea debekatuta dago. *Lan bat nahastu, eraldatu, edo bertatik beste egintza bat sortzea ere debekatuta dago* betiere **Karmelen** alde aurretiko baimen idatzia izan ezean, eta hala badagokio, dagokion eskubideen jabearena.

Diruz lagundutako aldizkaria:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Jabe: Euskal Herriko Karmeldarrak
Karmengo kalea, 5. Markina.

ISSN: 1132-2357

Legezko gordailua: BI. 459/68

Inprimaketa: Itxaropena S.A. Zarautz

**SAN JOAN GURUTZEKOREN
IRUDI ETA SINBOLOAK**

Fontiverosko santu eta poetak ahozko irakaspena maite zuen batez ere. Hori zuen bere arloa. Hona zer diogun hone-taz hitz egiterakoan:

“Adituak eta lekukoak bat datoz haren ahozko irakaspena azpimarratzean. Behin eta berriro agertu izan da, Joan Guru-tzekoren joera eta benetako bokazioa espirituzko gauzak ahoz eta zuzenean irakastea zela; hari berez zeriona ahozko irakaspena zen. Idaztea, hala ez badirudi ere, ez zuen oso berea; eta hartara jarri bazen, erlijiosoen eta pertsona espiri-tualen eskaeraz izan zen. Espirituak ezagutzeko dohain apar-ta zuen, berezko sena-edo. Orain dela gutxi gogoeta hau agertu genuen hartaz: “Santa Teresak gidatu zuen karmelda-rren erreforman bizkarrezur eta zutabe izatea egokitu zi-tzaion; erreformaren aita izatea. Gobernuan eta kanpoko gi-daritzan baino gehiago barruko gidaritzan, espirituen maisu-tzan, zuzendaritzan”.

Haren ahozko irakaspenaz gozatzeko zoriona izan zutene-tako askok estimu handitan zuten eta, Santua bizi zela, idatziz jartzen zuten eta gordetzen hark ahoz esanikoa. Beasen, Kata-lina San albertorenak, ardura handia hartzen zuen hark esaten zuena idazteko; eta harekin bi hazbete gora zituen liburu bat egin zuen, otoitzerako eta bere arimaren espirituzko traturako maisutzat erabiltzen zuena (Ana Jainkoaren Amarenak esana,

BMC 14, 118. or.). Magdalena Espiritu Santuarenak, Beasen, adierazten du: “Haren hitzak zeruko argitan buztiak ziren. Ni saiatzzen nintzen haietako batzuk kopiatzen, kanpoan zegoe-
nean eta berarekin tratatzerik ez zenean, irakurri eta gozatu
ahal izateko” (BMC 10, 326. or.).

Segovian zegoenean, “hitzaldi zoragarriak egiten zizkien
bere fraideei, perfekzio-bidean aurrera egiteko gogo berotuz;
eta testigu honek ikusten zuen buruz jantzienak zirenak eta
hain jantziak ez zirenak ere konturatzen zirela” (Lukas San Jo-
serena, BMC 14, 284. or.).

Eta, garai berari dagokiola, frai Bernabek dio: “Kapitulue-
tan eta jantokian egiten zituen hitzaldiak hain espiritualak
eta gartsuak ziren, miresgarri eta probetxu handiko gertatzen
baitziren erlijiosoentzat, eta haietako askok idatziz jartzen zi-
tuzten gero beren arimaren onerako, gogoeta espiritualerako
eta otoitzerako gaia eduki eta santuki bizi izateko” (BMC 14,
293. or.).

Gero, hainbeste eskari izanik bere irakaspenak idatziz jarri
beharrean izan zenean, ohartzen zen barru-barruko doktrina
zela eta zaila hitzez adierazten; are zailago ulertzen, batez ere
espirituko gauzei begiratzen ohitu gabe zeudenentzat. Horre-
gatik, adibideak, konparazioak, irudiak, sinboloak... erabil-
tzen zituen.

Bere obretan sarri-sarri agertzen dira horrelakoak. Asko eta
asko fisikakoak dira: bere zentrorik sakonenera jotzen duen
harriarena; beiran jotzen duen eguzki-errainuarena; sua eta
enborrarena; ardo zaharra eta ardo berriarena, bizitza espiri-
tualean maitale zaharraren eta berriaren izaera azaltzeko...

Luze hitz egin daiteke hauetako bakoitzaz. Baina orain-
goan zati txikitxo bat eskaini nahi diot irakurleari. Dastaketa
fin, gozo eta laburra; hain zuzen ere, *ardo zahar eta berriaz*

dioena, benetako enologo baten jakintza agertzen baitu hor.
BK-ren 25. kantan dator. Honela dator kanta hau:

25. KANTA (A 16)

*Zure oinatzen atzean
neska gazteak bidez bide doaz,
txinpartak ukitzean,
ardo onaren beroaz,
jariatze lurrintsu jainkozkooz.*

Ardo onaren beroaz, / jariatze lurrintsu jainkozkooz.

7. zenbakitik 11.era dator guk markatu dugun zatitxoa:

“7. Ardo on hau ematea da Jainkoak arima aurreratuei batzuetan egiten dien beste mesede gorenetakoa bat, Espiritu Santuaren maitasun ezti, gozo eta indartsuaren ardoaz mozkortzen baititu; horregatik deitzen dio ardo ona; ardo ona era askotako espezia lurrintsuz eta bizigarritz egosia den moduan, Jainkoak perfektuei ematen dien maitasun hau ere, haien ari-metan egosia, jalkia eta ondua dago arimak honezkero irabaziak dituen bertuteekin; maitasun honek, espezia baliotsu hauekin ondua denak, mozkortasun gozozko halako sendotasun eta oparotasuna ezartzen du ariman Jainkoak egiten dizkion bisitetan, non eraginkortasun eta indar handiz bidalarazten baitizkio Jainkoari, hemen esaten ari garen gorestekoa, maitatzeko, gurtzeko... jariatze haiek; eta hau, beragatik gauzak egiteko eta sufritzeko desira miragarriekin.

8. Eta jakin behar da, mozkortasun gozo honen mesedea ez dela igarotzen txinparta bezain laster, hau baino iraukorragoa baita; txinpartak ukitu egiten du eta gero pasatu egiten da, hala ere haren eraginak irauten du pixka bat eta batzuetan, asko; ardo onak berak eta haren eraginak denbora luzez

irauten du (hori, diodanez, maitasun gozoa da ariman) eta batzuetan, egun bat edo bi; beste batzuetan, egun asko; intentsitate-gradua beti bera ez bada ere, handiagotzen eta txikiagotzen baita, baina hori ez dago arimaren esku; batzuetan, bere aldetik ezer egin gabe, arimak bere espiritua barne-muinean jainkozko ardo honekin eztiki mozkortuz eta sutuz doala sumatzen du, harako Davidek dioenaren (Sal 38, 4) arabera: *Erretzen neukan bihotza bularrean, gogoan nerabilela, sua piztu zitzaidan.*

Maitasun-mozkortasun honen jariatzeek, batzuetan, hark adina irauten dute; beste batzuetan, berriz, maitasun-mozkortasun hau ariman izan arren, aipaturiko jariatze horiek gabe izaten da, eta izaten direnean, intentsitate handiagokoak edo txikiagokoak, mozkortasun-intentsitatearen arabera. Baina jariatzeek edo txinpartaren ondorioek, gehienetan, txinpartak baino gehiago irauten dute; txinpartak uzten dituenak, berriz, mozkortasunak uzten dituenak baino gartsuagoak dira, jainkozko txinparta honek garretan eta maitasunez erretzen uzten baitu arima.

9. *Eta irakindako ardoaz mintzatu garenez gero, egoki izango da, laburki bada ere, hemen irakindako ardoaren, ardo zaharra deitzen diotenaren, eta ardo berriaren arteko alde zein den adieraztea, maitale zaharraren eta berriaren artean dagoen alde bera izango baita, eta pertsona espiritua-lei doktrina pixka bat emateko ongi etorriko da. Ardo berriak ez du liga bereganaturik ez jalkirik, eta horregatik kanpotik irakiten du, eta ezin daiteke jakin ona ala txarra izango den, liga ongi bereganatu eta haren garra baretu arte, ordura arte beti baitago galtzeko arriskuan; zapore gordin eta garratza izaten du, eta hartatik asko edateak kalte egiten du; indarra oso bildurik du ligan. Ardo zaharrak dagoeneko liga bereganaturik eta jalkirik du; horregatik, ez du berriaren garrik kanpo aldetik; ezagun da honezkero ardo ona izango dela, eta ez du galtzeko arriskurik, kalte egin diezaioketen gar eta oldar*

baiek honezkero joan baitzaizkio, eta, beraz, ardo ongi irakina, nekez gaiztotzen eta galtzen da; zapore leuna du eta indarra ardoaren substantzian, ez honezkero baren gustuan; eta horregatik, hartatik edateak on egiten du eta indarra ematen.

10. Maitale berriak ardo berriaren antzekoak dira (bauek Jainkoa zerbitzatzen hasten direnak dira), maitasun-ardoaren bizitasuna oso azalean, zentzumenean, dutelako, zentzumen argal eta akastunaren liga ez baitute oraindik berengatu, eta maitasun-indarra baren zaporean dute; hauei, gebienetan, jarduteko indarra zapore sentsitiboak ematen die, eta horrek eraginik mugitzen dira; beraz, zentzumenaren gar eta zapore sendo baiek bukatu arte ez dago maitasun bonetaz ziur egoterik. Izan ere, zentzumenaren gar eta bero hauek onera eta maitasun osora joateko eta hartarako bide on izan daitezkeenez, bere inperfekziozko liga ongi bideratuz, era berean, oso erraz da hasiera hauetan eta gustuen berritasunean maitasun-ardoa falta izatea eta berriaren gar eta zaporea galtzea. Eta maitale berri hauek beti dituzte maitasun sentsitiboaren antsiak eta minak, eta hauei edaria neurritz hartzea komeni zaie, ardoaren indarrez gauza asko eginez gero, beraien izaera hondatuko litzatekeelako. Maitasun antsia eta min hauek ardo berriaren zaporea dira, gordin eta garratza dela esaten genuena, oraindik gozatu gabea irakin luzean, maitasun-antsia horiek bukatzen direnean, gero esango dugunez.

11. Konparazio hau bera jartzen du Jakintsuak Siraken liburuan (9, 15), esanez: Adiskide berria ardo berria bezalakoa da; utzi zahartzen eta atseginez edango duzu. Beraz, maitale zaharrak, Maitearen zerbitzuan saiatuak eta probatuak direnak, ardo zaharra bezalakoa dira, honezkero liga irakinik dutenak; ez dituzte gar sentsitibo haiek, ezta kanpoko oldar eta su gartsu haiek ere; baina atsegin dute maitasun-ardoaren gozotasuna, substantzian ongi irakinik dagoena; bera, berriz, ez

dago honezkero zentzumenaren zaporean, maitale berrien maitasuna dagoen bezala, han barruan ariman, espirituaren substantzian eta zaporean eta obraren egian finkaturik baizik. Eta hauek ez dute nahi zapore eta gar sentsitibo horiei atxikiak egoterik, ezta ez dituzte nahi probatu ere, minik ez nahigaberik ez izatearren; izan ere, zentzuetako gozamenen bati men egiten dionak, nahitaez izango ditu minak eta nahigabeak zentzumenean eta espirituan.

Beraz, maitale zahar hauek zentzumenean sustraia duen gozotasun espiritualik ez dutenez gero, dagoeneko ez dute maitasun antsiarik ez minik zentzuan eta espirituan; horregatik, adiskide zahar hauek oso nekez huts egiten diote Jainkoari, huts eginaraziko liekeena, sentsualitatea, mende harturik dutelako, eta maitasun-ardoa ez bakarrik dute irakina eta liga purgatua, baita ondua ere, bertso-lerroan esaten denez, perfekzio-bertuteen espeziekin, hauek ez baitiote uzten gaizto-tzen, ardo berriari bezala. Hortaz, adiskide zaharra oso estimatua da Jainkoaren aurrean, eta halaxe dio Siraken liburuak (9, 14): *Ez baztertu aspaldiko adiskiderik, adiskide egin berria ez baita baren pareko.*

Maitasun-ardo honetan, bada, ariman probatua eta irakina den honetan, egiten du jainkozko Maiteak aipatu dugun goimozkortzea, haren indarrez bidaltzen baititu arimak Jainkoagana jariatze ezti eta gozoak. Eta, beraz, hiru bertso-lerroen esanahia ondorengo hau da: Nire arima txinparta-ukituz itzartzean eta ardo-irakinez maiteki mozkortzean, arima honek, haren baitan eragiten dituzun mugimenduen jariatzeak eta maitasun-egintzak, bidaltzen dizkizu”.

Dastaketa fin horrekin uzten zaitugu, ene irakurlea, birus honek eraginiko bakarraldietan Fontiverosko poeta mistikoaren eta espirituko maisu handiaren laguntza izan dezazun.

Luis Baraiazarra Txertudi

MIKEL ZARATE IRAKASLE ETA IDAZLE LEZAMA, 1933-1979

Bizi osoa emon eban Mikelek irakaskuntzan. Abade egin zanetik aurrera, heriotzara arte, irakasle izan zan. Arlo askotan irakasle, baina euskeraren eta euskal literaturaren irakasle, berariaz.

Non jardun eban irakasle modura?

- Markinan: Lanbide Eskolan eta Merzedeko Monjen Ikastetxean, Geriako parroko izan zan bitartean, abadetxako lehenengo urteetan.
- Derioko Seminarioan: Txikian eta Nagusian. Derioko Udako Euskal Ikastaroetan (DUEL. Labayru), eta Begoñako Andra Mari, Irakasleen Unibertsitate Eskolan.
- Gasteizen: Diputación Foral de Álava: Servicio del Vasculence (1976).
- Deustun: Hizkuntza Eskolan: Euskera.

Unibertsitatean: Euskal Literatura.

Nik neuk esperientzia laburra izan dot haren ikasle lez. Noizbehinka bakarrik izan dot irakasle, zuzen-zuzenean, Karmelo Etxenagusaren faltan, Derioko Seminarioan filosofiako ikasle nintzala. Baina gerora, hartu-emon luzea, sakona eta ugaria izan genduan, biok Derioko Seminarioan irakasle izan ginanean. Mikel, sasoi haretan, ez zan irakasle sistematikoa. Gehienbat, idatzi eragiten euskun, gero gure okerrak zuzendu eta idazteko zaletasuna gudan bizkortzeko. Geroago, berak Deustun ikasi ebanetik eta bere irakaskuntza urteetan ikusita-

kotik eta..., ordenatuago eta sistematikoago izatera jo eban, Deklinabideari buruz liburua prestatzen hasi zanetik gora, batez be. Dana dala, nire ustez, Mikelen maisutza onena ez egoan irakaskuntza arautu hutsean, txitean-piteango intuizino eta aportazinoetan eta, aparteko eran, beraren irakasteko modu berezian baino.

Haren pedagogiaren ezaugarri batzuk aitaturko dodaz:

- Irakasle atsegina
- Hartu-emon hurkoa izanik, ikaslea gustura egotea lortzen eban
- Irakasten ebana ondo ezagutzen eban eta maite eta gogoko eban.
- Irakasteko moduan, bazituan Mikelek ezaugarri eta berezitasun batzuk:
- Gaia garandu eta erraztu egiten eban, ulergarri bihurtzeko
- Ikaslea harrapatu eta motibatzeko gaitasuna eukan
- Ikaslea erakarri eta gaiean sartzen eban, inplikatu egiten eban
- Ikasleari idazteko bildurra kentzen eutsan, idaztera eta sormenera bultzatuz
- Literatura zaletasuna bizkortzen eban, irakurtzeko eta idazteko gogoia berotuz
- Irakasten ebana eginarazo egiten eban: narrazino, deskripzino, erretratu..., dana dalakoa geuk egin gengiala eskatuz
- Ikasleari eukanaz eta ekianaz jaubetzen ahalegintzen zan. Hari honetatik etorriko ziran harako eredu eta lema nagusiak: “Dakigunetik ez dakigunera” (Ander Manterola), “Euskera bizitik euskera idatzira” (Mikel

Zarate), “Bizkaieratik batura” (Mikel Zarate). Pedagogia bide nagusiok Derioko Udako Ikastaroan jaio eta garatu ziran, irakasbide bihurtuz.

Mikelek ez eban irakasten irakastearren, beste barik. Irauli egiten eban irakaskuntzan bere euskal sena eta euskaltzaletasuna. Ikasleengan zaletasuna eragitea eban helburu nagusi; horretara, irakatsia luzarorako izango zan, ez azterketa unera-ko bakarrik eta kitu.

Berak ikusitakoak, entzundakoak eta berari gertatutakoak ikaragarritzko eragina izan ohi eban Mikelen idazlanetan eta eskoletan. Maisua zan Mikel edozein jazoera edo pasadizu bereganatzen, eta bere errotan eiho eta besteei garan-garan erakusten eta azaltzen. Sekulako narratzaile eta kontalaria zan. Eta eskoletan irakasten ziharduanagaz zerikusi handirik izan ez arren be, han aitatuko eban berak ikusia, berak entzuna, berari gertatua, eta ikasleentzat hurko eta esanguratsua izango zan Mikelen irakasteko modua, eta era berean haren bizipe-
nak ezagutuz, ikaslearentzat irakaslea bera be hurko eta etxe-ko bihurtuko zan.

Irakaskuntzako lehenengo urteetan, Mikel ez zan sistema zalea eta bere eskolak zehatz araututa emoten zituana. Bizia zan eta etorri handikoa, hurkoa eta bideak zabaltzekoa, ikaslea partaide egitekoa eta ikaslea irakurtzera eta idaztera, protagonista izatera bultzatzen ebana.

Gerora, ostera, zehatzagoa, arautuagoa, sistematikoagoa bihurtuko zan bere irakasbidea. Asko ikasi eban Deustuko Unibertsitatean. Hango irakasleei entzundakotik eta liburuetan irakurri eta ikasitakotik mundu barri bat agertu jakon. Erakarri eta liluratu egin eban jakintza eta literatura munduak. Eta itsaso zabal eta sakon horretara bostuger salto eta aberastasun guztiak bereganatu gura ebazan.

Beti be irakurtzea gogoko eban Mikel, aldi eta alde askotako idazleekin egin zan adiskide, etxeko. Bide barriak eta tek-

nika aurrerakoi ezezagunak ikasi zituan. Eta holan, begi zorrotzez ikusia, belarri zuhurrez entzuna, inguruan gertatzen zana, herriaren bizitza aberatsa, “basarteko eskolan” ondo bereganatua eukana, Unibertsitatean edandako mundu barriagaz buztartu gurako eban. Edonoiz, edozetan eta edozeinegaz bere indarrak neurtuzale beroa dan Mikelengan erronka barria sortzen da. Erronka handia, zabala, ikaragarria eta deigarria. Euskera herrikoia beronen ahalmen guztiak atara gura deutoz, kanpotiko apaindura barri eta dotoreak jantzi. Berak oso gogoko dauan “Lauaxeta”ren antzera, “Bide Barriak” urratu gura ditu. Eta “Lizardi”gaz batera, euskera laztana eder eta dotore erakutsi eta zabaldu:

“Baiña nik, izkuntza larrekoa,

nai aunat ere noranaikoa” (Ik. Karmelo Etxenagusiak, “Haurgintza Minetan”, GEU 1984, Hitzaurrea).

Ikaragarria da erronka, berak ondo ezagutzen eta erabiltzen dauan euskera herrikoa gorenengo mailara jasotzea. Baina postura/apustu hutsa dan gure Mikel hor ikusiko dogu bere saltsan, eta erronka ikaragarriak erakarri egingo dau eta sekulako bultzada emongo deuto.

Eta hemen agertuko dira Mikelen gogoan azterketa barriak, eta frutu emoile bihurtuko dira, deklinabidea, morfología eta literatur azterketak bideratuz. Ikasleei begira idatziko ditu, irakaskuntza sakonagoa eskeiniz eta irakasle barriak ondo presatzeko bideak urratuz. Hotzean, zorrotz eta zehatz ekingo deuto zeregin horri.

Baina Mikelek bere-berea, bereagoa dau idaztea, bere barru irakinean bizi dauana irauli eta kontatzea, eta honetan bere gorenengo gailurrera jo gura dau gogotsu eta adoretzu, ausart eta kementsu.

Orduan hasiko dira ernetzen eta egosten lan aurrerakoien amesak eta asmoak: ipuinak, nobelak, olerkiak, antzerkia..., dana probatu gura dau.

Beste ezer baino lehenago berea dauan haritik hasiko da. Bera aparteko kontalaria da, eta narratibarako jaioa. Hortxe bideratuko dira “Ipuin antzeko” (1975) eta “Ipuin antzeko alegi mingotsak” (1975). Gerora be eutsiko deutso bere izaera eta biziera iraultzeko berebizikoa dan genero horri, “Utopia-ren fantasian” (1979), eta “Bilbo irribarrez” (1980); azken hau heriotz osteko urtean argitaratua, berrogeta hamabost ipuin laburrez osotua.

Artean, erlijino gaietako itzulpenetan ibilia zan. Oraindino abadegai zala, liturgi arloan jakitun ospetsu zan Pío Parsch-en “Santa Misa” (1955) euskeratu eban: “Gure Meza Deuna” (1959); bere aitari dirua eskatuz argitaratu eban hori. Urte batzuk geroago, parrokiako arduretan eta irakaskuntza lanetan ziharduala, “Gure salbazino egintza. I. Alkartasun Zarra” eskeini euskun (1967), “Geriako ama euskera eder eta kutunaren altzotik, biotz-biotzez, nire anai euskaldun guztioi” oparitut, liburuaren sarreran adierazo euskunez. Hurrengo urteetan, Seminarioan irakasle zala, jarraituko eban itzulpen lanetan, berak maiteago eban terminologiaz “euskeratze” eta “euskalduntze” lanetan, euskal gurpilez aurkezten, gotzainen pastoralak euskeraz eskeintzeko alkar-lanean Karmelo Etxenagusari eta niri esan ohi euskunez.

Gerora, irakiten dago Mikelen burua eta aurrerabide ausartak egiteko adoretzu agertzen da haren gogo eta borondatea. Bere buruagaz eta lagunakaz apustu eginez eta erronka leporatuz, “Haurgintza minetan” idatziko dau “Txomin Agirre” saria irabaziz, 1973. Urtean. Ez da, beharbada, zehatz-mehatz benetako nobela, baina hainbeste iturritatik edanez, euskal herriaren jakintzatik, era askotako idazlanak gogoan, euske-

razko mundu bat sortzen dau, kontatzeko modu atsegin, aberats eta erakargarritz.

Urte berean, 1973an, beste nobela labur bat idatzi eban Mikelek Beasaingo “Usurbe” literatur sariketara aurkezteko. Bul-tzatzaile izan genduan orduan, beste batzuek be (Jesus Antonio Etxezarraga eta neu) sariketa horretara nobela labur bat bialdu gengian. Ondo jaso eban hori Jesus Antonio Etxezarragak 2008an Labayru Ikastegiak argitaraturiko “Hizunigu” Mike-len nobela laburraren aurkezpenean: “Hain luzaroan lozorroan egon dan “Hizunigu” honen berri duela hogeita bost urte izan nuen nik. Hiru hamarkada eta erdi iragan diren arren, ez dut ahaztekotzat egun hura, inimizio kutsukoa izan baitzen niretzat. 1973. urtean Mikelek berrogei urte zituen, Lontzo Zugazagak hogeita hamar eginak, eta hogeit beteak nik”.

Saiakera arloan baeukan aurretiaz egina liburu eder eta pedagogikoa, apain eta bikain argitaratua “Bizkaiko euskal idazleak. 1580-1968”. Derioko Seminarioan zituan ikasle gaztetxoentzat argitaratu zan (1970).

Baina geroago, Unibertsitateko ikasketak sakon egin ostean eratu eta argitaratu ebazan “Euskal Literatura” I eta II: azterbi-deak, aztergaiak, azterketak (1977-1978). Bide sendoa urratuz aurrera joian Derioko Udako Euskal Ikastarorako eta Deustuko Unibertsitateko eskoletarako prestatu zituan baliabide aberats horreek.

Gramatika munduko lanak be irakastoki bi horreek kon-tuan hartuz eratu zituan: “Euskal Deklinabidea” (1975), eta “Euskal Ortografia” (1978). Liburu honeetan Mikel barri bat azaltzen jaku, zehatzagoa, ordenatuagoa eta sistematikoagoa. Ez dauka zerikusi handirik lehenagoko urteetan eskolak emoten ebazan Mikelegaz. Dana dala, aurrean aitatu dodanez, Mike-len maisutza onena ez egoan irakaskuntza arautu hutsean, beraren irakasteko era berezian baino: hurkoa, atsegina, irakasten ebana maite ebala erakusten ebana..., ikaslea harrapa-

tuz eta motibatuz, irakurtzeko eta idazteko bizkortuz, ikasleari dakianaz jaubetzen lagunduz, idazteko bildurra kenduz eta sormenera bultzatuz...

Tamalez, berrogeta sei urte bete barriak zituala joan jakun. Luzaroago bizi izan balitz, ia ziur nago “eskola” moduko baten sortzaile eta eragile izango zala, irakasle barrien irakasteko modu eta pedagogian, eta beste horrenbeste idazle barrientzat, literatur ikuspegi zabal eta liluragarria erakutsiz, bide barriak zabaltzeko, teknika aurrerakoiak ausardiaz erabiltzeko, gure euskeratxo eder, apain, dotore erakusteko erdera guztien artean. Tamalez ez euskun “eskolarik” itzi, ez eban izan astirik, hain gaztetan gugandik joanik.

Poesia munduak be erakarri eban gure Mikel. Eta ausardi handiaz sartu zan oihan barri eta aberats honetan. Saritua be izan genduan. Hemen be euskera beste hizkuntzen mailan ikusi gura eban. Berak irakurriaz eta ikasiaz ondare ugaria beragandu eban, eta euskeraz irauli gura izan eban edertasunez, irudimenez, jantzi bikainez. Ausart eta kementsu onartuko eta erabiliko ditu metodo abanguardistak be letrak modu desbardinetan kokatuz eta lerrokatuz, letrekin irudiak eginez... Holan argitaratu zituan “Higidura berdez” (1977) eta “Bizipenen bultzadaz” (1978). Bera hil eta urteak geroago argitaratuko eban Jon Kortazarrek, Mikelek berak hil aurretxoan emondako olerkiez osoturiko “Etorriaren zorabioz” (2004).

Handia, ausarta eta goraipagarria da Mikelek arlo honetan be urratu dauan bidea. Haln be, nire ustez, Mikelen berebiziko arloa narratiba eta kontalaritzan nabarmentzen da; hor dago bere saltsan, hor agertzen da bere izaera eta bere bizipenen gatza eta bizitasuna, hortxe bere euskeraren ugaritasun aparta.

Narratiban, saiakeran, gramatikan eta poesian egindako ibilbideaz ez ziran asetzen Mikelen amesak eta asmoak. *Antzerkia* be landu gura eban, hor be bere gaitasuna erakutsi eta

plazaratzeko. Azkenengoz beragaz Lezaman izan nintzanean makalaldi ilunean, gogo barik eta ahul egoan. Baina hainbat lehenago autortzen eustan: “Asti apur bat hartu eta antzerkia lantzea gurako neukek, eta hurrengo antzerki sariketara aurkeztu”. Bai berak eta bai euskerak edozertarako eta edonorako gaitasuna ebela probatu eta adierazo nahi eban. Aseezina zan bere barrua. Era guztietako erronkak bizi zituan, eta bulztatua eta xaxatua sentitzen eban bere burua, batez be berak hainbeste maite eban euskeraren munduan.

Bere bihotz lehiatsu eta aseezinak atsedean hartu daiala Nazareteko Jesus maitasunez beteko sekulako Maisuaren ondoan, eta Jainko Aitaren maitasun mugagabearen itsaso zabalaren, zabalaren zabalean!

Lontzo Zugazaga

JEAN ELISSALDEREN “ERROMARAT” BIDAIA-KRONIKA

Sarrera

Gure lantto honetan Jean Elissalderen “Erromarat” erromesaldi-kronika oso-osorik eman nahi dugu. 1956 urtean Jean Elissalde euskaltzain idazlea 225 erromes euskaldunekin batera –batez ere Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoako euskaldunak tartean zirela– Erromara joan zen ia aste biko erromesaldian, apirilaren 17tik 29ra, Erroman izan zen. Erromara 1956 urtean joateko arrazoi indartsuak bat baino gehiago ziren garai hartako fededunentzat: san Ignazio Loiolako santu (1491-1556) handiaren heriotzearen laugarren mendea ospatzen zen urtea zen. San Ignazio Erroman, Gesù elizan, lurperaturik zegoen (gure testuan “Ghesu eliza” bezala agertzen da, *italieraz chiessa del Sacro Nome di Gesù*) eta Erroman aita sailduaren bedeinkazioaren zain beren erromesaldian hainbat kristau egon ohi ziren.

Garai hartarako Jean Elissalde (1883-1961) 73 urteko apez zaharra zen eta bere lumaren distira eta indarra hainbat liburu eta lanetan erakutsia zuen. Jorratu zituen sorkuntza lan guztien artean (itzulpen, olerki, eta hitz lauzko lanetan) gure us-tez batez ere hitz lauzko kontakizun luze xamarretan moldatzen zen ongien.

Berrogei urte lehenago, 1914ko Gerra Handian, gaixozain, edo, berak esan ohi zuenez, “eri-artatzaile” lanetan ez ezik, gerrako “berriketaria” ere izana zen. Ia astero hiru urtean

zehar, Jean Etxepare (1877-1935) eta Jean Saint-Pierre “Anxuberro” (1884-1951) adiskideak bezalaxe, *Eskualduna* astekarira bidali zituen gerrako hainbat kronikatan idazle argi eta ohartzailearen izpiritua erakutsia zuen. Hain luma zorrotz eta jostaria zuen idazri erromesaldiaren kronika egiteko eskatu zioten, eta berak baita eskatutakoa egin ere. Kronika horiek *Herria* astekarian, atalka agertu ziren 1956eko maiatz eta ekainean. Ez ote zen izan Pierre Lafitte, *Herria* astekariko zuzendaria, bidaia-kronika idazteko eskabidea egin ziona? Ez daukagu galdera honen erantzun ziurrik, baina litekeena da eskutitz batean eskerrak ematen baitizkio egin duen kronika ederragatik¹.

“Erromarat” bidaia-kronika egin zuten garaia, 1956 urteko udaberria, nahasi xamarra zen. Hamaika urte lehenago Bigarren Mundu Gerra (1939-1945) bukatua zen, baina hainbat euskaldun soldadu Algeriako Gerra (1954-1962) odoltsuan burruka ari ziren.

Jean Elissalde Erromara hirugarren aldiz zihoan eta *Urbs aeterna* edo “Betiereko hirira” bisitatzeko azken aldia izango zuela uste bazuen ere, kronika alai, jostarin eta zirrarragarri bat egin zuen. Hogeita hamar urte lehenago ere antzeko izenburua zuen “Metsikorat” bidaia-kronika atalka argitaratua zuen Gure Herria aldizkarian. Kronika hau egin zenetik ia 65 urte igaro badira ere, testu onek beti gordetzen dute, hauspean txingarrak bezala, sua. Kroniko honek garai bateko euskaldun multzo baten izpiritua ezezik, Jean Elissalde idazle maitagarriaren lumaren erakusgarri ederra ere bada.

Jean Ellissalderen “Erromarat” testua eman baino lehan saio labur bat egingo dut euskarazko bidaia-liburuez zein errome-

¹ ABA-ZER 01

(1956) Errearoan 18an

Adichkide maitea: [...] Eskerrak dauzkitzut Erromako itzuliaz igorri dauz-kutzun lerro ederrez...

saldi-kronikez. Esan gabe doa saio honetako edozein puntu zehaztasun eta zertzelada askoz gehiagoz horni litekeela. Lan honetako ene asmoa, ezinbestean, xumea da: sarrera labur bat egitea Jean Elissalderen "Erromarat" testuari.

Euskaldun ibiltariak eta beste

Bi eratako euskaldunak gaude: geure inguru estutik ia inoiz aldendu gabekoak, eta, era bateko eta besteko arrazoiengatik, batetik bestera mundua kurritzen ibilitakoak. Gogoan dut Aita Donostiari irakurri niola berak ezagutu zituen euskaldun gehienak beren herritik ikusten ziren mendietatik harago inoiz urrundu gabekoak zirela. Hamar kilometroren barruan bizi izandako euskaldun asko eta asko, Aita Donostiaren garaian ez ezik, urrutira gabe gure garaian ere ezagutu ditugu holakoak. Diogunaren berri gure literaturan ere aurkitzen dugu testigantza bat baino gehiago. Enrike Zubiri "Manezaundi" (1867-1943) idazleak idatzitako ixtorioetan inoiz hirira joan gabeko baserritarren kontakizun zoragarriak badaude. Bi ixtorio aipatzekotan "Iruñeko itzulia" eta "Parisen" egingo nituzke (Manezuandi:1990).

Badira bidaiak-kontakizun asmatuak. Idazle batek bere baitarik asmatutako fikziozko bidaiak. Tankera horretakoak dira Jules Vernes idazle frantziar ospetsuak *Voyages extraordinaires* izenburupean argitara zituen hainbat bidaiak-liburu. Bidaiak-liburu gehienek, ordea, egiazko bidaietan dute beren jatorria. Bidaiari idazleak egunean egunean hartu ohi ditu eguneko ibilaldiko gertaeren berri. Egunean egunean hartutako datu, gertaera, gogoeta eta abarrez osatutako zirriborroa izan ohi da, gehienetan argitaratuko den bidaiaren kronikaren ardatza. Wilhelm Humboldt (1767-1835) bidaiari prusiarrak, esaterako, Euskal Herrira bi aldiz etorri zen. Lehen aldian, 1789an, eta bigarren aldian, 1801eko udaberrian. Bigarren aldi honetako bi testu behintzat badira. Lehena, jatorrizkoa, egunerokoa da,

egunean eguneango berriez idatzia: *Tagebuch der baskischen Reise 1801*. Eguneroko honetatik eratutako testu osatua *Die Vasken* liburukoa da. Zirriborroan oinarritutako testua, gehienetan, literarioagoa izan ohi da, apainduagoa: lehen zirriborroko ohar eta datuak ederturik agertzen dira, eta gehienetan informazioa osaturik eman ohi da. Zenbaitetan, ordea, lehen zirriborroko hainbat datuk ez ohi dute bigarren testuan lekurik izaten.

Euskaldun askoren patua batetik bestera ibiltzearena izan da, edo bizitzan behin behintzat beren sortetxetik urrutira joatearena, dela soldadutzara, dela artzain Ameriketara, dela gerratokira, edo beste edozein tokitara. Euskal Herriko muga estuetatik harago, munduko bost kontinenteetan barrena alde-rrai ibili dira hainbat euskaldun. Adibiderik harrigarrienetako bat Jose Maria Iparragirre (1820-1881) kantariarena dugu. Hona labur-labur haren ibilera zenbaiten berri. Hamairu urte zituela, Karlistadetako Lehen Gerra piztu ondoren Madriletik Euskal Herrira etorri zen. Gerra bukatu ondoren 1839an Europan barrena ibili zen, Italia, Frantzia, Ingalaterran.... Europan hainbat urte alderrai ibili ondoren 1853an Madrilen “Gernikako arbola” Montera kalean kantatu zuen lehenengoz. Kantu hori kantatu zuen hainbat alditan istilu gorriak sortzen zitue-nez gero, Euskal Herritik kanpora joan beharra izan zuen. Ameriketan hainbat urte igaro ondoren Euskal Herrira itzuli eta 1881an hil zen.

Mendeetan zehar euskaldun alderraiak zenbatnahi izan ba- dira ere, lehen pertsonan emandako bidaia-testigantza gutxi ditugu. Bestela esan, euskarazko bidaia-testu gutxi ditugu, eta, gainera, geroago ikusi dugunez, iragan diren bost mendeeta-ko euskal literaturari begiratuz gero, guztiak berandu bate-koak dira. Beste hainbeste esan liteke Ameriketara joan diren euskaldun artzainez. Hona hemen Manezaundik “Battittaren soldadogoa” kontakizunean zer dioen (Manezandi: 1990, 36):

Aita-semek gerthakari latzgarrienetarik daukate beren semearen etxetik urruntzea, ez bakharririk haren besoak beharrenezkoak direlaketz etxeko funtsen lantzeko eta arthatzeko, bainan izigarri zaiotelaketz soldado yuaitea, ustez eta gudaratz doala. Hain dute higuingarri eginbide horren bethetzea, nun Kaliforniarat gogotiago nahi dute yuan, han bederen gudu hirriskurik ez delaketz eta gero eskualdunen artean direlaketz, zeren eta denek dakigun bezala oste haundika bilduak baitira eremu heietan, artzaingorat yuanak. Eta elgartzen dire beren mintzaira eta Eskual-herriko ohidura guziak yarraikiz, hainbes-tetaraino nun han sorthu anitz badira eskuara bezik ez dakitenak.

Oste handika Ameriketara, Kaliforniara, joaten zirela euskaldunak dio Manezandik 1933 urteko abenduaren 20an argitaratutako ipuin-artikulu batean. Ehunka euskaladun artzainen testigantza idatzia ez dira nahi hainbat, zoritxarrez. Ezagutzen ditudan gehienak bertsotan emanak daude. Ameriketako artzainen euskarazko prosazko testigantza oso gutxi batzuek badira aldizkarietan barreiatuak. Liburu batean jasota dagoen hitz lauazko testigantza luze xamarra Nafarroa Behereko Esterezubi herriko Mattin Etxamendiren *Urruneko mendebaldean artzain* liburukoa da (Etxamendi: 2013)

Bidaia-literatura eta erreportaia-literatura jenero bezala

Literatura unibertsaleko idazle handi gehienek beren elaberri, ipuin-liburu eta abarren artean bidaia-liburu bat edo beste izaten dituzte. Herman Hesse, Gustave Flaubert, Robert-Luis Stevenson eta abarrek, beren eleberri zein ipuin-liburuengatik ezagunak badira ere, bidaia-liburuak ere idatzi zituzten. Bidaia-liburuak literatura guztietan landu den jeneroa bada ere, ingeles literaturan izan dezake beharbada tradizioz handiena. Liburu klasikoetan klasikoetan, ordea, Marco Polo (1254-1324) beneziarraren bidaia-liburua da jenero honen adibide

ederrenetako bat. Idazleen artean badira, ordea, ia bidaia-liburuak idatzi dituztenak ere. Horietako bat da oraintsu hil berri den Javier Reverte (1944-2020) eta ingeles literaturan Paul Theroux (1941)-.

Ez dugu, ene ustez, bidaia-liburuen eta erreportaia-liburuak nahastu behar. Bidaia-liburuetan bidaia baten berri ematen da, hasieratik bukaerara. Non hasten den bidaia, nortzuk diren bidaiariak, nola egiten den bidaia, ezagutzen diren lekuen berri, bidaiarien gertaera eta pasadizuak, eta abar. Erreportaia-liburuetan leku bat bere edertasun eta ezaugarriekin deskribatzen da. Gotzon Garateren *New York, New York* (1988) eta *India harrigarria* (2001) erreportaia-liburuak dira eta ez bidaia-liburuak. Bidaia-liburuak, ordea, izan dezake, era berean, erreportaiatik, eta lekuen eta gertaeren historiatik ere.

Bidaia-liburuak, gehienetan, egitura finko xamarra izan ohi dute: bidaiaren hasierarekin hasten dira eta bidaiaren bukararik bukatu. Bidaia aurrera joan ahala narrazioa ere aurrera joaten da. Zenbait bidaia liburu bisitatzen joaten diren lekuek markatzen dute bidaia. Beste zenbaitetan denborak markatzen du, egunka, edo asteka edo hartu nahi den denbora-neurria kontuan izanik. Bidaia-kroniketan bisitatzen diren lekuen deskripzioa eginaz batera, bidaiako gora-beherak –barregarri, txundigarri, interesgarri, edo hitz batean, kondagarri den oro– emanez batera, idazleak bere gogoetak ere tartekatzen ditu.

Lan honetara ekarriko dugun "Erromarat" erromesaldi-kronikak Italiako hiriek, bidaia-egunek zein gertaera nagusiek, nahas-mahas polit batean, osatuko dute bidaiaren hari nagusia. Gertaerek eta bidaiarien izaera izango dira batez ere kontagai. Jean Elissalde kontalariak ez digu berari zuzenean gertatzen zaionik kontatuko. Ez du, era berean, bere gogoetarik kontatuko. Bere lumak, Standhalen ispiluak bezalaxe, gertaera guztien artean interesgarrienak aukeratuko eta ahalik eta modurik zorrotz eta jostarienean

Euskarazko lehen bidaia-kronikak: zenbait xehetasun

Ez dut uste euskaldunok, are euskaldun landu eta irakurza-leok, ondo ezagutzen dugunik euskarazko bidaia-liburu zein kronikak. Agustín Anabitartek 1961ean *Aprika-ko basamortuan* liburua argitaratu zuenean (Anabitarte: 1961) honelaxe zioen (Mitxelena: 1962): *Nere ustez, auxe da lenbiziko bidaia-liburua euskeraz idatzia*. Eta esaldi horretan usteak albo ustela erakutsi zuen, liburu hori baino lehen lauzpabost euskarazko bidaia-liburu behintzat argitaraturik baitzeuden.

Euskarazko bidaia-libururik zaharrenetakoak Martin Ducq hazpandarrak, Elorrioko Jon Izurrategi erretoreak, Jean Etxepare aldudarrak eta Martin Duhour hazpandarrak idatziak dira. Hiru hauen artean zaharrena Martin Ducq hazpandarrak 1891. urtean argitaratua da. Izenburu osoa hauxe da: *Erroma eta Jerusalem Martin Ducq aphezak egina*.

Hona zenbait xehetasun liburu horien gainean. Ezer gutxi dakigu Martin Ducq eta haren liburuaz. Martin Ducq liburu bakarreko egilea da. Liburuak Jean-Pierre Arbelbide (1841-1905) apez idazlearen sarrera labur bat darama eta ezer gutxi esaten du². Bestetan hitzaurre luzeak eginzalea bazen ere, gure hazpandarraren gainean ia ez du argibide handirik ematen. Ematen duen argibide ia bakarra da hazpandarrez idatzitako lehen liburua dela.

Martin Ducqen liburuak batikbat kronika-liburutik badu ere, badu, era berean bidaia-liburutik. Liburuaren idaztankeari ohartzeko biderik argigarriena lehen kapituluaren hasiera ematea dela deritzagu. Hona hemen:

Juan ginen Martzeilatik Erromarat. Uste nuen ez nuela khausituko ene bidean lorerik baizik; bainan laster ohartu nintzen elhorriak edo basateak ere bazirela. Ene penarik handie-

² Orrialde eta erdi ez du hitzaurreak. Bukaeran izenpea "Arbelbide apheza" da. Sarreraren buruan zehaztasun hau dator: "Aita Arbelbide Hazparneko misionesten buruzagiaren baimena".

nak untzian hasi dira eta untzian akhabatu. Untziko ikhustekoa! Gutiz gehienak han, barnea eritua, lehertuak ari ziren jan edan guzien aurthikitzen; eta ezbalitz ichtant hartako desarranjamendua baizik! Bainan han zen oraino ondoko egunetan ere aisia eskas bat: jateko gogorik ez; gure ohetarar juaitein baginen, han hain hertchiki gutarik bakhotchua, non plegatuak bezala baikinena, aire beharretan, eta ezin aski aire izan! Ai! Ameriketarat juaitein direnek balakite zer behar den pairatu untzian, ez laitezke hola jua Ameriketarat fortuna egiteko, ustez eta, aski dela han agertzea. Ai! Gaicho Eskualdunak! Gero balute hunateko pasaiaren saria, bainan ezin izanez itzulitzeko despendioentzat, han daude hanitzak! Erran gabe uzten ditut untziko lanjerak: su lotzen balako untziari eta auzoetarar ezin oihi egin! Han behar erre!

Edo bi untzik elgar joiten badute, artetan, gerthatua dela, irakurtzen dugun bezala, eta tcharrenak amor! Urus bertze untzirar phasatzen ahal bada! Menturaz bi untziak chehatuak! Ai! Ongi pagatzen baitute gure Amerikanok Ameriketarat juaitea! Hitzemaiten daizkote holako edo halako abantailak, bainan hanitzetan, elheak dira horiek eta ez obrak.

Martin Ducq-ek pluraleko lehen pertsonan kontatzen duen bidaia era sarkor eta barnakor batean egin dago. Hona adibide bezala aurreko pasartearen segida:

Erromarat heltzea.

Bi egunen buruan, Erroman ginen. Ai Erroma! Hiri maitea! Aita Sainduaren egon lekhoa! Erroma, gu guzien Hiria! Erroman, etchean gira. Erroman sarthu eta, eguerdi gainea, eman nuen meza Erromako katedralean, Jondoni Joani Laterangoko elizan. Zer urustasuna, ordu arte barur egona, Meza saindua eman ahal izaiea Sakramendu Sainduaren aldare eder, aberats eta buruzagian!

Martin Ducq delako apezaren liburu honek argitalpen bakarra izan du, guk dakigula, 1891an, eta gure euskal literatura

aztertzen duten liburu kanonikoetan inork gutxiak aipatzen du. Luis Villasantek *Historia de la literatura vasca* liburuaren bigarren agerraldian honelaxe dio (Villasante: 1979, 220): "Martin Ducq, sacerdote, es autor de *Erroma eta Jerusalem*". Martin Ducq-ek idatzitako liburua ez da lan ttipi eta hutsal bat, 442 orrialde ederretan Erroma eta Jerusalemara egindako beila edo erromesaldia kontatzen duen lan eder bat baino.

Jon Izurrategi (1863-1938), 1923an, *Jerusalen osterean semeak amari* argitara eman zuen (Izurrategi: 1923)³. Ez dut us-te liburu hau, gure artean, guztiz ezaguna denik. Luis Villasantek, esaterako, ez du aipatzen bere *Historia de la literatura vasca* liburu famatuan. Liburu honen berezitasun interesgarri-
netako bat estilo epistolarrean idatzia egotea da. Lau urte lehenago, 1919, Azkuek *Ardi galdua* elaberria ere estilo epistolarrean idatzia zuen. Liburuegileak amari, lehen pertsonan, bidaia kontatuz, egunean egunean idazten dizkio eskutitzak. Lehena Bartzelonatik, hirugarrena Nazaretik, ata abar. Liburuan guztira bidaia kontatzen duten 46 eskutitzez osatzen da. Jon Izurrategik kontatzen duenez, Jerusalemara egindako erromesaldia benetakoa da. Hona hemen zehaztasuna:

Idazki onek benetakuak dira, 1905-gaŕen urtian Luiki Deu-
nera egindako ibilkundian, "Idazki Ereduek" idazten dauzanak
bere amari egindakuak.

Harrigarriena, ordea, beste zerbait da. Jerusalemara eginda-
ko bidaia bukatzen denean "Idazki-ereduek" izeneko eranskin
bat da, zeinetan bidaiarekin inolako zerikusirik ez duten 44
eskutitz agertzen diren.

³ Harrigarria bada ere hiru izenburu desberdin datoz liburu honetan ber-
tan. 1. Portada edo aurrekaldean: *Izu-ategi Abadia Jerusalem'go osteran
Amari idazkijak*. 2. Bigarren orrian: *Jerusalen-osterako idazkiak*. 3. Orrian:
Jerusalen osterean Semeak Amari. Hiru modu hauetatik Jon Bilbaok aukera-
turakoa bere Bibliografia nagusian hirugarrena da. Ibon Sarasolaren edi-
zioan, ordea, liburuaren aurrekaldekoa dator: *Jerusalen-go Osteran amari
idazkijak*.

Hirugarren bidaia-liburua Jean Etxepare Bidegorri (1877-1935) mediku idazleak *Gure Herria* aldizkarian, atalka, 1929-1930-1931 urteetan argitaratu zituen bidaia-kronikek 1931 urtean ikusi zuten argia *Beribilez* liburuan. Urte berean, beraz, bi bidaia-liburu argitaratuko ditu Baionako Imprimerie La Presse argitaldaria Jean Etxepareren *Beribilez* eta Pierre Duhour hazpandarraren *Erromako itzulia*. Itxurari dagokionez, ia berdinak dira: letra molde bera, apaingarri berak... Liburu bietako kronikak, bestalde, atalka emanak ziren aldizkarietan.

Puntu honetara ekarri ditugun lehen bi liburuak beila baten kronika dira, hirugarrena, beribilean, egun bakar batean, egindako bidaia batena, apur bat beilatik ere izan dezakeena, bi kotxetan zazpi lagun Kanbotik Gipuzkoako Loiolara joan baitziren. Honelaxe hasten da liburua:

Agorrilaren lehen asteazken-goiz batez abiatu ginen beraz Cambotik zazpi lagun, –hiru gizon eta lau andre, bi beribil atherbedunetan,– aratsean berean gibelerat sartzeko chedearekin, Loyolako ikusgarri omen-handikoez begiak betherik.

Gerla-aintzinean lauzpabortz aldiz mendiez-haraindiko eskualdetan ibilia nintzelakotz, zoin urthez ez nakike orai chuchen, lehen beribilean jarrarazi ninduten bidearen erakusle, jabe gidariaren eskuinetarik. Aro ederra ginuen. Gu abiatu orduko, iguzkiak suntsitua zuen lurraren sapak gauaz airatu langarra; zerua gora zagon, urdin zuhail; bazterrak ederki argitzen zuen, beroa sartzen zitzaizolarik eztiki gain-behera; lanhoetarik chumeena uda minaren indarrak harrotzen zuen, eta bero erroen gainean lerdentzen.

Bidaia egun bakarrekoa izan zen, autoreak dioenez 357 kilometrokoa, Kanbotik abiatu ziren eta Kanbora itzuli ziren, egun berean, zazpi lagun, bi beribiletan 1928ko abuztuko lehen asteazkenean. Bidaieran jomuga Azpeitiko Loiola izan zen. Hurrengo urtean, 1929an, Jose Maria Agirre “Lizardi”

idazleak ere egun bateko bidaiaren berri eman zuen lan zoragarri batean. "Donapaleu'ra joan-etorria" izeneko bidaia-artikuluak. Bidaia hau ere, Jean Etxeparerena bezalaxe, egun bakarrekoa eta kotxean eginga izan zen (itxurak direnez bi kotxe-tan). Lizardirekin batera kotxean doan "Uitzi" ezizenez aipatzen duena ez da besterik Nikolas Ormaetxea "Orixe" eus-kal idazlea baino. Bidaia honetan, ordea, goizean abiatu Gi-puzkoatik Nafarroa Behereko Donapeleurantz eta iluntzean itzultzen dira. Kotxean joan zirenak

Jean Etxepareren literaturak azken hamarkadetan gora handia hartu du. Guztiz aipagarria da Pierre Xarritonek egindako bilduma-lanak. Bi tesitan behintzat aztertua dago Jean Etxepa-reren obra. Tesietako bat, Jean Casenave *Buruchkak* liburua aztertuz egindakoa da (Casenave: 1997). Aitor Ortiz de Pine-dok *Beribilez* liburuarekin. Lan monografiko sendo eta sako-nak hainbat ikertzailek egin dituzte Aldudeko medikuaren gai-nean, besteak beste direla, aipagarriak dira Kepa Altonaga eta Sebastian Garzia Trujillo.

Jean Etxepareren *Beribilez* bidaia liburu atsegina, bizkorra egiazko idazle baten lan umotua da. Gure Jean Elissaldek li-buru hau miresten zuen, hona beronen hitzak (Elissalde: 1955):

Bainan horiek guzien gatik Jean Etxeparek bere denbora guzian egin duen lanik handiena, lanik aberatsena "Beribilez" derizan liburua da, ene arabera bederen. Duela zenbait ilabe-te, P. Arradoy idazleak "Kattalinen Gogoetak" argitaratu dauz-ku luma ederrenaz, urhezko luma batez. Liburutto bat orok atsegin handienarekin irakurtzen dutena, liburutto bat behin irakurtzen hasi eta bururaino irakurtu gabe utz ez ditakena. Bada atsegin berarekin irakurtzen dut urthean bizpahiruetan "Beribilez". Bertzerik egin ez balu ere Jean Etxepare miri-kuak, ez zuen ebatsiko egungo gorespena.

Gure Elissaldek Jean Etxepare idazle handitzat zuen eta batez ere *Beribilez* lana, goiko pasarteetan ikusten dugunez.

Bidaia-kronikak beila-kronika direnean

Bidaia-kroniken artean badago azpigenero bat, erromesaldi-kronikak edo beila-kronikak. Gehienetan kristaue erromesaldi-kronikak jomuga desderdinak izan ohi dituzte Frantzian, esaterako, Betharram, Lurdes edo Lisieux, eta Frantziatik kanpora ezagunenak Erroma edo Jerusalemara egindako erromesaldiak izan ohi dira. Erromes multzoko bat, beilari bat, izan ohi da kronika egiten duena. Ezagutzen dudak euskarazko zaharrena Gratian Adema Zaldubi (1828-1907) senpertarraren *1875an Jubilau urthe sainduan Bazco biharamun eta hirugarrenean Lourdesen eta Betharramen Escual herritik pelegin cirenen orhoitzapena* liburukoa da. Hona laugarren atalean datozen beilako zehaztasun zenbait:

Cer orhoitceco egunak guretzat. Bazco astelehen-astearte hec!

Lourdesen guinen hamar bat mila pelegin, Baionaco diocesaren bazter guzietaric harat bilduac... denac guizonac... erdiac edo guehiago Escualdunac [...].

Halaric ere, bazter urrunenetaric, Aldudetic, Urepeletic, Ez-tenguibeletic, Larrainetic, Santangracitic, hamarca, hogoica, ehunca guizonac atheratcen dire... eta cer guizonac!

Icustecoac ciren bidean zohatcila, nor nahiren bichtan Fe-deac hein bat gora copeta altcharazten ciotela, beren kurutce gorriac papoan, arrosarioac escuan, eta hainitzac, hamar, hogoi lekuen eguiteco oinez. [...]

Lehenic lau lerrotan abiatu guinen garatic. Hola lucegui heldu celacotz, eman guinen sei lerrotan, eta halere ez askiz, azkenecotz metan eta sorkhan⁴ bezala, hantche guinohacin

⁴ Liburuan *sorkham* dator.

othoitcean eta canta errepicaz. Mariaren loriac bakhotchac gure linguaia berecian ceruetan gora altchatuz.

Pasarte honetan argiro ikusten denez, Zaldubi idazleak erromesaldi baten kronika egin zuen. Grazian Adema "Zaldubi" bera hamar mila erromesen arteko bat izan zen eta testigantza zuzenetik datorren erromesaldiaren kronika zuzena idatzi ez balu, ez genuke euskaraz garai hartako erromesaldiaren testigantzarik izango. Erromesaldi-kronikak, beraz, testigu zuzena izan zen erromes batek kontatuak izan ohi dira.

Normala den bezala, ezagutzen ditudan erromesaldi-kronika guztiak eliza-gizonek egindako bidaia-kronikak izan ohi dira. Txomin Agirre (1864-1920) idazleak *Joan etorri bat Erromara* erromesaldi-narrazioa idatzi zuen. Erromesaldi-kronika horietako gehienak atalka emanak izan dira. Eta horietako gutxi batzuk gerora liburu bihurtu dira. Txomin Agirrek atalka *Euskal Erria* aldizkarian 1892 eta 1893 urteetan zein *Euskalzaile* aldizkarian 1899 urtean "Joan etorri bat Erromara" beila-kronika argitaratu zuen. Pena da narrazioa Larramendiren hiztegi-ko neologismoz hornituegia egotea (Agirre: 1892).

Goraxeago esan dugun bezala, Pierre Duhour (1890-) apezak atalka argitaratu zuen *Gure Herria* zein *Eskualduna* aldizkarietan 1930an Erromara egindako beila edo peregrinazioa. Atal hauek guztiek, hurrengo urtean 1931an, ikusi zuten argia: *Erromako itzulua* (Duhour: 1931). Liburu honetako bi pasarte erabiliko ditu gure Elissaldek bere "Erromarat" kronika osatzeko.

Beste bidaia-kronika bat, beila-kronikatik ere zerbait baduena, Julia Gabilondo "Maite" (1902-1994) idazleak 1933ko udaberrian, apirilaren 29tik maiatzaren 2ra, egina da. Bidaia-kronika hau *Euzkadi* egunkarian, urte berean, sei ataletan eman zen argitara. Bidaia honen zehaztasunak eta bidaiaren kronika osoa Iñaki Sarriugartek eman zituen (Sarriugarte: 2017):

[...] 1933ko udaberrian, apirilaren 29an, Bilboko Euzko Gazteriak antolatutako txangoan, 303 euskaltzale abiatu ziren Bidebarrieta kaletik, hamar autobusetan *–tarrantak* orduko eukara garbizalean–, lau eguneko itzuli bat egiteko Euskal Herriko zazpi herrialdeetan barrena. Lourdes herriraino ere heldu ziren, eta bertan igaro zuten hiru gauetariko bat.

Euskaltzale multzo horretan, Julia Gabilondo izeneko neska mungiar bat doa, orduko euskal prentsan bere artikulua sinatzeko *Maite* ezizena erabiltzen zuena. Bidaia 1933ko apirilaren 29tik maiatzaren 2ra luzatu zen, eta Maitek maiatzaren 6an sinatzen du bere lehenengo kronika, baina hilaren 11n argitaratu zen. Seigarrena eta azkena, aldiz, maiatzaren 31n argitaratu zuen.

Beste erromesaldi-kronika gutxi ezagutu bat Luis Villasantek zortzi ataletan *Aranzazu* aldizkarian eman zuen argitara: “Kristoren lurraldera erromes”. Erromesaldi-kronika hau 1966an martxoaren 30etik apirilaren 11-12ra artekoa izan zen. Erromesaldi honen kronika bi modutara ematen da. Lehen zatiko atalak, kronologikoki, bidaiaaren egunei dagokie; bigarren zatiko atalak Jerusalemgo eliza, leku eta abarrei.

Luis Baraizarrak *Karmel* aldizkarian bi bidaia-kronika badi-tu. Bata Lisieux-era egina eta beste, erromesaldi-kronikatik gehiago duena Lur santuetara egina. Bigarrenaren izenburuak Luis Villasanteren izenburuaren antzekoa da: “Lur santuetara erromes”.

Jean Elissalderen “erromarat” beila-kronikaren zehaztasunak

Jean Elissalderen “Erromarat” erromesaldi-kronikaren lehen atala 1956 urtean, maiatzaren 17an, *Herria* astekarian, 301 zenbakian, argitaratu zen. Aurreko zenbakian, maiatzaren 10koan, “Beilari” izengoitiko idazle batek *–beilan izan zen beilarietarik bat izan zela dakigu bakarrik–* hurrengo zenbakian etorriko zen bidaia-kronikaren aurrerapena eman zuen

artikulu batean (Beilari: 1956). Hona hemen artikuluko lehen hitzak:

Loyolako Iñaki gure herritar saildu handiaren heriotzearen 400garren urteburukari, bazen beila Erromarat abiatua, eskualdunentzat, Narbaitz bikari jeneral eskualdunak sustaturik.

Zenbait bidaiaren sariak izitu dituela, ez dira bada lotsatu han ziren 7 Armendariztarrak, 8 Irisartarrak, Mauletar edo Ezpeletar dotzena. Orotarat 200ez goiti baginen. Batzuek lehen aldia ginuen, bertzek bigarren edo hirugarren aldia. Nehork naski ez dugu dolurik itzulia eginik.

Berriak cheheki emanen dituzke ondoko aldietan⁵, gurekin ginuen idazle bikainak, nik bakarrik bi solas, larri larria, emaiten dauzkitzuet egun.

Lehenik, aroa alde ginuela erranen dautzuet, nahiz azken egunetan euria ukan dugun. Gero otelak, treinak eta otobuzak (eta zer otobuzak!) oro ontsa joan zaizkigu. Berrehun lagun elgarrekin ezartzen dituzularik 15 egunez, badukezu beti, mirakuluz kanpo, nor edo nor laguna jasangaitz daukanik, bera delarik jasangaitzena; holakoetan du bakoitxak bere barneko berri emaiten, baina aldi huntan, baitzen beti norbait arangura ttipien haizatzaile, eta baitzen bertzalde beti, begien aintzinean begiak eta gogoak har ahala, ez gira ohartu ere izan ditakenetz gutartean deus itzalik.

"Beilari" idazleak aurreratzen duen berri honetan "idazle bikain" baten misterioa artikulua azpian, lauki baten barruan, datorren berriak salatzen du: "heldu den astearen Zerbitzari-ren artikulua: "Erromarat". Erromesaldi-kronika *Herria* astekariko bost zenbakitan eman zen, eta zenbaki bakoitzean bi orrialde desberdinetan. Guztira, beraz, bost aldizkari-zenbakitan eta hamar ataletan. Erromesaldia 1956ko apirilaren 17tik

⁵ H. *Berriak cheheki emanen dituzke. Ondoko aldietan*. Lerrokada honen hasierako puntuazioa aldatu dugu bakar-bakarrik.

29ra izan zen eta kronikaren argitarapena maiatzaren 17tik ekainaren 21era. Bidaia bukatu eta bost hilabete eta zazpi egunera, urte bereko urriaren 7an, bidaian agintzen den “Donaixtiko gaztain-festa” ospatu zen. Jean Elissalde “gaztain-festa horren berri eman zuen irailaren 13an (Elissalde, 1956b). Guk berri hori ere bidaia-kronikaren ondoren jarriko dugu Elissalderen artikulua izenburu berarekin: “Erromako beilari-eri”.

Jean Elissalderen testua hurrengo puntuan emango dugu ahalik eta modurik fidelenean. Hitzen bat aldatu badugu inprenta-hutsen bategatik, oin-oharrean jarriko dugu *Herria* al-dizkarian nola datorren. Eman dezagun kasu bakar bat. Elissalderen testuan beti agertzen da *gaztea*, *gazteak*, eta abar. Hala ere *Charritton jaun aphez gaztiak* irakurtzen da behin. Guk orduan *gazteak* testuan jarri dugu baina hitz honen oin-oharrean *H. gaztiak*.

Ortografiari gagozkiola, ia aldaketa bakarra egin dugu *etche*, *chuchen* bezalakoak etxe eta xuxen transkribatu ditugu. Pertsona-izen eta deituretan, ordea, jatorrizko ortografia mantendu dugu, *Chemartin*, *Charritton*, eta abar Puntu honetara ekarri dugun “Beilari” berriemailearen testuari ez diogu inolako ukiturik egin garai bateko ortografia nola zen hobeto ikusteko. Pertsona-izen eta deituretan, ordea, jatorrizko ortografia mantendu dugu, *Chemartin*, *Charritton*, *Etxegaray* eta abar.

“Erromarat” erromesaldi-kronika

ABIATZEA

Egia aithortuko othe dugu? Apirilaren 17tik 29rat Pise, Erroma, Asise⁶ eta Firenzan izan diren 225 beilarietan 224 badire guk baino hobeki beilako berriak eman letzazketenak. Gu

⁶ H. Assise.

zertako has, beraz? Obeditzeko. Horra zertako orok barkatu nahiko dauzkuten hemengo hutsak...

Baionan ginuen gutiz gehienek batetaratzea, bortzak eta erdietako. Uztariztarrak, beraz, han ziren tenoreko. Oro, beraz? Ez: seiak laurden gutitan zazpi neskaxa eskas ziren: oraino... pastizeria batean trikaturik! Heldu zauzku halere aski goiz, eta sei orenetan ez zen gehiago beilari bat baizik falta: Chemartin gereziatarra. Xifritua zagon... nonbeit⁷. Urhats bat, urhats bi, ethorri da halere Chemartin, treina abiatzerat zoalarik. Orena omen zuen gogoan gaizki hartua. Oi, zenbeiten sanfreta!

Eta horra nun Baionako geltokiari teiltua ereman nahi diola kantuetan hunkigarriena⁸ ehun eta berrogoita hamar bulhar eta bihotzetarik jausten den orduan: *Ce n'est qu'un au revoir*. Harasko da gero, harasko Erroma eta hainitz gerta ditake hama-bortz egun handiz! Hori hain egia da nun Firenzan ez baikaitu guti harritu Jean Ybarnegaray jaunaren heriotze ustegabekoak⁹! Guk bederen hain maite ginuen eta hala atxikitzen ginion! Itzal batzu bazituela? Bakhotxak gureak baditugu! Norbeit zen Ybar!

LURDERAT BURUZ

Jada Puyoo. Tropa bat sekulakoa geltokian! Zer othe da mundu hori? Espos batzu. Beha, beha gizon horien guzien mathela gorrieri! Zer bazkaria egin ahal duten! Mahainetik heldu ziren, heldu lasterka, ez gure ikusterat. Hauk, Erromarat jaun-andere berrien treinan sartzen ikusterat. Hauk, Erromarat heldu ziren gurekin! Bi alzumarkar maitagarri. Ez ginezaken bideko pare xarmantagorik ukhan Etchegorry jaun-andere berriak baino! Urruñako¹⁰ jaun bikarioak esku onetan

⁷ H. *norbeit*. Uste izatekoa da *norbeit* izan beharrean *nonbeit* izan behar duela.

⁸ Lehen kroniketan *unkitu*, *unkigarri* irakurtzen da h- sarrerakorik gabe. Azken kroniketan h- hasierakoarekin. Ortografia bateratzeko h- guztietan jartzea erabaki dugu.

⁹ H. *uste gabekoak*.

¹⁰ H. *Urruñako*.

eman du sorretxea. Bai, zorionak, Gipuzkoan erraiten duten bezala!

Oren erdi bat treina burrunban badoala Paueri buruz. “Ez othe litake ordu, zapetak khendurik, oinetako¹¹ goxo eta haxitago batzu eman detzagun?” dio bere xokhoan Donaixtiko jaun erretor ixil bezen onak, eta orok obeditzen diote berehala. Berak ere zapetak khentzen ditu, ezpartin bat emaiten. Ezpartin bat berri-berria, Maulen egina eta sosaren puntan eresia, dena puntaraino ilestatua barnean! “Orai eman dezagun bigarrena!” Bigarrena bilhatzen du, zakhu guzia itzulipurdikatuturik. Etxean ahantzia zuen. Gaixo apheza!

Paue, Paue, Kaskoiniako hiri nausia¹². Nihor guti geltokian. Ez zaiote kaskoineri balio eskualdun beilarieri agur erraitea. Beharrik han badire hamar-hamabi soldado eskualdun, ehun lagunen oihu eta agurrekin! Milesker, adixkideak! Ordainez hitzeman diotegu othoitz bat eginen dugula heientzat Erroman, ahal bada ez ditzen joan Afrikarat, eta, joan behar badute, ez dakioten hel makhurrik...

Eta Bettarram, eskual saindu handienetarik baten etxearen ondoan barna, treinak jo du Lurderat. Oi, zer obra berriak harpe sainduaren aldean! Orok, obrentzat baino begi gehiago dugu haatik harpeko Ama maitatuarentzat! Ama, lagun gaitzatzu Erromako itzuli on baten egiten! Eta gain-gainetik lagundu gaitu!

EZAGUTZAK

Gaua. Gau beltza orai gure treina guzian, eskuin eta ezkerretako mila eta miliun argien gatik! Gaua. Batzu lokhartu dire berehala, bertzeak geroxago. Bakhar zenbeit –zaintsuenak naski– batere... gu bezala! Hortxe lo dagokit, parrez par Germaine ene iloba, amak zaintzeko hola errana! Lo aldean Gelos

¹¹ H. *onetako*.

¹² H. *biri-nausia*.

Aiherrakoa, bere buruaren zaintzeko on dena! Lo, eta nola lo, andere Sallaberry haratxago! Lo, edo erdi lo Chemartin, Baionan eman daukun izialdura gogoan segur! Bainan iratzarria Josep Pochelu, Gerezieta phestaberrietako makhilari fama-tua! Iratzarria orobat Makeako auzaphez xehe bezen maitagarria! Eta bethi lo, lo zurrungan, urruntxago andere Carrau, andere Charritton, andere Nageloua hazpandarrak! Lo hantxet zortzi ezpeletar neskaxa gazte, ahoak xabalduak, elgarren kontra-kontra, xoritto batzu ohantzean iduri! Lo bere xokhoan Narbaits jaun kalonjea, beilarien buruzagia! Eta urrun, urrun, lo Donaixtiko jaun erretora, bere ezpartin bakharra eskuineko zangotik ezkerrekorat emana, bi zangoak bardin pausatzeko! Hori deitzen da Zuhurtziaren Zuhurtzia... berak geroxago erran daukunaz. Eta horra hor, Donaixtiko jaun erretorari aski hurbil, lo orobat, Jean Larre Hiriburuko jaun bikario arraia, bere arreba Regine parrez par. Arrebetan maitagarriena, erran gabe doa. Eta ezkongeia gainerat! *Avis aux donados*... ez baitzauku batere iduritzen serora joaiteko xederik baduela. Jostakina da, plaxenta, lana maite du (anaiari egun guziz zapetak ziratu diozkanaz geroz!) funtsean, norbeit! Eta zerbeit!

Asteazken goizean egin ditugu ezagutza gehienak, lehenik jaun bikario jeneralari gure agurrak eginik. Ez ginuen famaz baizik ezagutzen Sauveur Belleau jaun apheza. Deus ez dire fama hoberenak: hainitz gehiago balio du jaun horrek. Goxoa da. Elheketa badaki. Eta buru ona du. Ezpartin baten etxean ahanztea deus ez da guzien buruan. Bai, buru ona du. Beilari guzietan bat ez da hamabortz egunez Italiako mintzaira harek bezen ongi ikasi duenik. Segur azken Erromako beilan Suhubiette Ibarlako jaun erretorak bezen ongi, hobeki ez bada! Oro bazakien azkenekotz, Chianti, Frascati, zimino eta nik dakita zer? Oro! Oi, zer gizon lakheta! Errana baitauku heldu den urriaren lehenean, urtheroz bezala, aurthen ere Donaixtin egin gogo duela "Gaztainen Phesta" segurki ez diogu huts eginen! Ez eta ere gurekin Erroman izan direnetarik batek!

Mahain berezi bat izanen omen da guretzat, elgarrekin Erromako orhoitzapenen berritzeko. Jada egina du orduko afaria –*pour nous mettre dans le bain*–. Huna italiano ederrez:

Spaghetti
 Ministrone
 Minestra en brodo
 Plateo di carne
 con due contorni
 Fruto
 Tasse compresse

Eta berak erran ez badauku ere, badakigu spaghetti luze horien lasterrago jautsarazteko, Chianti edo Frasuatiren orde, emanen daukula irulegi-zorta bat¹³, Etcheverry Antchurten hoberenetik...

XOKOZ XOKO

Bethi baitire nunnahi oro gaizki jujatu nahi dituztenak, oro ikas detzaten diren bezala, nahuzue mugarat heldu gabe elgarrekin egin dezagun gure treinako itzulia? Treina guzikoa, iragaitean, goizeko lauak alderat, Nimes hiriko inguruetan ezkondua dugun iloba maitatu bati bi musu gozo emanik? Ba, goazen. Huna hazpandarren xokhoa. Bat, biga, hirur, lau, bainan begiak ez dituzte oraino ongi idekiak. So haintz behar dute Hazparnen. Sarri arte, andereak. Eta, jo dezagun urrunago. Iratzarriak dire. Ezpeletako neskatzak eta jada irri karkaraz ari. Gazteak oro. Gazte hutsak zenbeit. Lucie eta Agnes Ben-goetchea, Berthe Harcaut, Monique Luc, Maite Etchegaray, aphezpikutegiko jaun kalonje berriaren arreba, Irma eta Claire Halty, Christiane Ithurralde, Laurence Violine, eta horiekin jada erotik adixkidetuak –ez baita harritzeko– Suzie Treullier, Uztaritzeko gure adixkide batzuen alaba maitagarria, eta Al-

¹³ H. *Irulegi-zorta bat*.

bertine Fagoaga azkaindarretan gisakoena. Hameka kantari hauta, Erroman eta orotan Inakiren¹⁴ kantua hain ederki xaramelatu baitaukute geroxago, aiphu berezi hau zor zitzaieten! Erran gabe doa, oro ezkongei direla oraino...

Ez duzue ezagutzen Mari Jose? Getariarra da eta hortxe ja-da xutik. Goazen ikusterat. Hogoi bat urtheko ogi metaren gaineko xori bat. Irria ezpainetan. Begi beltzak. Gain-gainetik eskolatua. Trufa egiten eta hartzen dakiena: ez dakite orok. Hau ere ezkongei oraino, bainan beldurtzeko da ez dela luzez hala izanen! Soldado italiano batek ez othe dio bi aldiz bederen pastizeria edo edari goxo zerbeit eskaini Erromako karriketan, ezagutzen egiteko? Donaixtirat joan gogo baitu "Gaztainen Phestan" zenbeit mila liberakoen berduratzerat, aise eza-gutuko duzue Marie Jose bere begi beltz eta begitarte arraietik¹⁵.

To, beha Armendaritzeko tropa gazte pollit horri? Biga segurik ez othe dire Deigue Oraareko jaun erretor onaren ilobak? Ba, naski! Hura bezen gozoak iduritzen zauzku, bainan ez dire oraino hain... baphoak¹⁶! Ondikotz, ez dugu gehiago astirik ororekin, Ezpeletarrekin bezala egoiteko, eta goazen urrunago. Bethi urrunago, bidean bi elhe eginik Mayie Domestoy doneztiriarrarekin eta Gracie Bonnet Senperekoarekin! Hantxet, bertze bi elhe labur Ortzaitzez eta Ortzaitzeko jaun erretor-bikarioez Thérèse Larrabure, Marguerite Etchebehere, Noélie Irigoïn. Anita Goyenette eta Balbina Choutchourrou batzuekin. Eta aski hola behingo. Zer da? Marseillako geltokia ehun metretan eta askaltzeko tenorea ethorria. Oro -oro gero!- jausten dire eta mahain luze ba-

¹⁴ H. *Inakiren*.

¹⁵ H. (*Réclame non payée*). Testuko parentesi arteko esaldi hau oin-oharrera ekartzea erabaki dugu

¹⁶ H. Hitz hau bi modutara ageri da lerrokada berean. Lehenean *bapo* eta bigarrenean *bapho*. Bi hauen artean bigarrenaren alde egin dugu, eta biak batera idatzi ditugu.

tzueri buruz joaiten, nor esne, nor kafe xorta baten bilha. Gizona ez ditake bizi jan gabe, dio lerroaren erdian Hazparneko jaun misionestetan baphoenak...

NICETIK AINTZINA

Nice pollita, orai. Bainan Nice bat osoki bere lorez gabetua aurrhenango hotzek! Jende arras guti karriketan. Ez da harritzeko. Aldeko hiria Monako deitzen da eta egun da Monacon Rainier printzearen Gracie amerikanosa aberatsarekin herriko etxean uztartzea¹⁷! Oi, hango loreeria! Oi, hango bandereria! Oi, hango begitarte guzietako atsegin! Hainitz urthez, jaun-andereak: gu ez gitazke egon geldi¹⁸! Eta buhaka treina badoa mugari buruz, gure Marie Jose, Regine, Berthe eta Suzie guziak jada ametsetan ari direla... ametsetan ez dakigu edo ongi badakigu zeri! *Eternelle histoire de la petite bergère que le roi épousa*, dio hantxet Mauleko andere batek. Ez dakite gehiago eskuararik Maulen!

MUGA

Ventimiglia. Muga eta mugazainak. “*Permesso, signorina, no illicito?*” Eta Marie Jose, ez baitu gutik lotsatzen, ororen ize-nean mintzatuko zaio mugazainetan beltz eta sekoenari, jada italiano zerebe: “*No, signor!*” Bainan hortan gelditu behar du haatik, zintzurrean ahurtara spaghetti gelditu balitzaio bezala! Guk ere baginakien hoinbertze! Artean erraiteko da mugazain guziek, haratekoan eta hunatekoan, nola begia eman dioten gure neskaxa beilarien zakhu, mantalin, soineko eta zapateri! Begitarte tresko hoieri ere ba! Egundainoko egia baita naski Sarako kantariak erraiten duena¹⁹: “Arrakasta guti du zahartua denak” Idartegaray, Mailluquet eta Belleau jaun aphezari ez diote behatu ere! Are gutiago guri eta Chemartini!!!

¹⁷ Rainiero III printzea eta Grace Kelly 1956 urteko apirilaren 19an ezkondu ziren.

¹⁸ H. *egun galdi*.

¹⁹ H. *dena*.

Vallecrosia, Bordiahera, San Remo, zer gure begien xora-menduak! Eta mugatik aintzinat bide guzia zer gogoaren ase! Eskuinean itsasoa bere urdin arin bereziarekin! Ezkerretik, mendi paretetan landatuak mila eta mila etxe xuri, batzu bertzeak baino pollitagoak, bakhotxa bere etxe-aintzin eta baratzetxe liliztatuekin! Xoratuak zauden Ezpeletako neskatzak berak, bereziki San Remo ikusi eta. Hura da, hura, egiazki "*un village coquet*"! bere hogoita bortz mila arimekin! Zer aberastasunak hedatu dituen Jainko Onak lurrean!

Eguerdiari²⁰ buruz goazi eta Pise urrun da oraino. Han berean eman daukute, beraz, gure beilako lehen aphairua. Eta batere ez aphairu gaixtoa, paperezko xakhu pollit batzuetan. Aski? Gutiz gehienentzat, ba. Gutti aire, bakhar batzuentzat. Apetitua hola xorrosten du bideak! Hazpandarrek berek ez dute deusik erran: Altzumarkako espos berriek ere ez. Damurik! Salbu zuek eta desertuko kameluek bezala balsa gizonak "chimpana" deitzen duten zakhu maite hura aintzinerat bethea zuten... eta erdi barurik joanak ziren frango! Oro har, haste ona. Hola segi baleza bururaino, macarroni eta holakorik gabe!

BIGARREN GAUARI BURUZ

Eta denbora hortan treina badoa. Badoa buhaka, badoa burranban, badoa Itsaso hegiz-hegi²¹, badoa tunelez tunel, herri batetik bertzerat, zaldarea sendi duen zaldi zaharra bezen arin! Huna Savona 66 mila arimekin. Huna Gênes 650 mila arimekin. Huna Spezia 110 mila arimekin. Ez ditugu haatik doi-doi²² baizik ikusten iragaitean. Gaua heldu da mila marmola urdin gorri, beltz, xuri xoragarrienen harrubien erditik gero eta xoratuago bagoazilarik. Gaua ethorrixte da. Bainan huna Pise bere dorre alimale makhurrarekin. Ez dugu bietan

²⁰ H. *Eguerdiri*.

²¹ H. *hegiz-hegi* eta gero *tunelez tunel* dator.

²² H. *doidoia*.

erraitte beharrik, Belleau jaunak bere ezpartin bakharra khen-
durik zapeten emaitako, guk gure pusken biltzeko... eta orok
gure ostatuaren bidea hartzeko. Afaria lehenik... macaroni jan
ahala baino gehiagorekin. Eta bertze zerbeitekin, beharrik. Eta
orai goazen lo egiterat. Gau on, jaunak! Gau on, andreak! Eta
bihar arte!

Irakurtzaileek²³ igurika dezatela haatik, othoi, heldu den
ortzirale arte... “Herriak²⁴” oraino xokho bat balin badu bede-
ren gure berrientzat. Anhartean goraintzi Belleau jauna eta
barka zure zorigaitza hola salaturik. Goraintzi, Regine. Gorain-
tzi Marie Jose. Goraintzi Idartegaray eta Mantenu jaun misio-
nestak. Goraintzi, oro!

PISE

Bere lauetan hogoi mila arima eta hainbertze ikusgarri xo-
ragarrirekin hiri eder bat da segurki eta segurki Pise. Gehixa-
go ikusteko, argia gabe karriketan ginabiltzen zenbeit bede-
ren. Debaldetan haatik. Berant jeikitzen dire Italian: leihoak
eta atheak ez dire zortziak baino lehen zabaltzen, gure Marie
Jose, Regine, Marthe eta Ezpeletako andana maite haren be-
giak bezela. Berantxago xoratu gaitu, beraz, eliza nausiak, xo-
ratu dorre famatuak, xoratu guziz hilherriak. Saltegiek ere las-
ter xoratuko zituzten segur... emazteak, baina jada, Erroma-
tik gure bilha ethorriak, sei beribil handi turrutaka ari ziren
karrika bethean. Bakhotxa sartu da, ez hautatu duenean, bai-
nan erran diotenean, Siennarat lehen bailehen heltzeko. Herri-
tik herrirat oliaitza²⁵ lerroen artetik han ginen hirur orenen bu-
ruan. Giovanni ginuela beribil gaitzaren gidari. Arratsaldeko,
oren bata zen, eta hirur ehun kilometra oraino Erromaraino....!

²³ H. *Irakurtzailek*.

²⁴ H. *Herriak*. Zerbitzarik *Herriak* dioenean, “Herria” astekariak esan nahi du.

²⁵ H. *oliaitza (oliviers)*. Guk frantseseko hitza oin-oharrera ekarri dugu.

SIENNA²⁶

Hiri ederra, arras ederra Sienna ere bere berrogoita hamar mila arimekin. Bertzeak bertze, santa Katalina baten sorlekhuu. Hamalagarren mendean bizi zen eta iduripena dugu haurrean ikasirik harek zuela Grégoire XI Aita Saindua Avignonetik Erromarat itzularazi. Dena dela gosetuxeak baiginen Idiarregaray jaunerraino, orok²⁷ orduan begitarte ona egin diogute macaronieren ondotik ekharri dauzkuten erraki zafla batzueri! Eta kafetto bat hautari! Gero, mila eta mila jenden artean dabilzan uso polliteri aphur bat beha egonik, tropaka hiri guzia kurritu dugu, ikusgarritik ikusgarritat. Etxe gaitzak badire, eliza nausi bat ederrenetarik, eta eskale frango ere ba karriketan. Ohoinik? Ez dakigu. Dakiguna da gurekin ginuen mauletat gazte batek sakelatik galdu dituela... zigaretak. Guk ebatsiak zituen, ez zezan hainbertze erre! Lauak alderat hartu dugu Erromako bidea, jada zoriona bihotzean...

ELHE BALIOSAK

"Micro" delakoa baiginuen gure beribilean, kantuz eta irriz, kasik ohartu gabe joan zauku bide luzea, han-hemenka Eskual Herrikoak²⁸ iduri duten mendi batzuen aldetik. Zer bideko lagun hauta den Maintenu jaun misionesta! Ez du segur nihor lokartzerat utzi, ixtorio eta kantu, kantu eta ixtorio, bethi bazarion hain ederki! Sekulan "Herria"ren irakurtzailetan zenbeitek deliberatzen badute Erromarat joatea, Maintenu jaun misionesta har dezatela, berek piraia pagatu behar badiote ere, laguntzat: ez zaiote urrikituko! Maintenu jaunaren ondotik "micro" hartu du Charritton jaun aphez gazteak²⁹. Gu baino trebeago da segurki liburuetan³⁰: zer eta zer ez dauku atheratu oren batez? Hantxet lerro-lerro ederki eman dauzku

²⁶ H. *Sienna*. Gerora, ordea, *Sienna*.

²⁷ H. *oro*.

²⁸ H. *eskual herrikoak*.

²⁹ H. *gaztiak*.

³⁰ H. *libruetan*.

jada iraganak eta gero iragan behar gintuen herri eta herrialde guzietako xehetasunak elizan “pattera” emaiten duen bezen aise! Horra nola ohartarazi gaituen Balsenako ur handiari. Azken gerla gudu handiak izan ziren han gaindi eta eskualdun zenbeit han hil: bertzeak bertze Jacques Legasse. Erran gabe doa berehala hamarreko bat erran dugula bihotz guziz han hil herritarren xedetarat.

ERROMAN SARTZEA

Gaua jauzika heldu da. Jada, hara urrunean argiak, argiak eta argiak milaka: menturaz³¹ miliunka. Erroma othe da? Ba, hala da. Gure beribila sartzen da karrika handienetan, alde guzietan zirurikan dabilzan Lambretta, Vespa eta Fiat-en erditik. Loa eta gosea ahanzi ditugu betbetan. Halere atseginekin ikusi ditugu beren athean “Casa Nostra” gure ostatuko nau-siak. Hamarrak hurbil zitazken mahainetan eman girelarik, kargak ganbaretan pausatutik eta doi bat garbitutik! Gogotik jan dugula arratsean ere macaroniaren ondotik ekharri daukuten! Oxandabartz jaun aphez gazteak salbu! Lo egin zuen bidean, omen, eta ametsetan Romulus eta Remus famatuen, otso oraino famatuagoaren esnetik zorta bat edana, uste etxe-ko ahuntzaren esnea zuen! Oi, gaztetasunaren ederra!

LEHEN EGUNA

Zortziak, Aita Sainduaren elizan! Aphez guziek jada beren mezak emanak dituzte, lehen egunaren ahal bezenbat baliatze-ko. Gehiago beila guzian elgar utziko ez duten guziak askaltzeko biltzen dire. “Cas Nostra”-ko barne ederrean: Maintenu eta Idiarregaray, Mailluguet, Larre, Belleau, Chabalgoity, Camino, Elissalde eta Oxandabartz jaun aphezak, Urruñako³² de Coral jaun-andereak, hirur gerezieta, Makeako jaun auzapheza, Saliesetako erretoraren arreba on, Mauleko hiruzpalau andere, Marie Jose, Regine, Monique, Marthe, Germaine, etc...

³¹ H. *mentuzaz*.

³² H. *Urruñako*.

Orotarat berrogoi bat lagun naski, beti ongi baino hobeki elgar aditu dugunak. Ez baitu guti balio holako itzuli batean!

IÑAKI

Hamar orenetan ginuen beilako lehen meza, meza kantatua. Ghesu jesuisten elizan. Eta eiki san Inazioren aldarean haren hobiaren gainean. Meza-emaile, munduko jesuista guzien lehen-lehen buruzagietarik bat, Erroman bizi dena segurki, bainan Larresoroko ikastegian altxatua eta ethorkiz ezpeletarra: aita de Gorostorzu. Diakre eta sudiakre Gereziatiko eta Donaixtiko erretorak. Beretter, Erroman bere eskola handien egiten ari den Mendiburu donamartiriari aphez gaztea. Oro kantari, Maintenu jaun misionesta buru, erran gabe doa. Oi, zer meza hunkigarria! Eta zer predikua, Narbais jaun kalonjeak frantsesez eta euskaraz! Pur, pur, pur, nigarrez ari zen xokho batean jesuistetako sakristaua! Eskualduna da, zuek eta gu bezen eskualduna: ez da beraz harritzeko! Egia erran, nor ez zuen hunki³³ eta inharrosiko treinan ikasirik³⁴ han eman den San Inazioren kantu airosak?

Inaki

Jainkoak igorria

Lurrean izaitera

Jesusen

Gudarien

Burua... etc.

Ghesu elizako murru eta pilar ederrak luzaz orhoituko dire 1956-eko beilari eskualdunez eta heien kantuz!...

Urrunago joan gabe erran dezagun hemen Erromako eliza gehienak dena marmola direla; eta halere bat ez da bertzea-

³³ H. Lerrokada honetako *hunkigarria* eta *hunki* Herria aldizkarian hasierako h- gabe datoz.

³⁴ H. *ekasirik*.

ren iduririk. Egia erran, hainbertze marmola mota eta kolore bada. Hemen gaindi ez dugu ezagutzen Liginagako marmola xuria baizik. Italian ba omen dituzte hogoita bortz mila kolore iraganik. Piseko inguruetan frango ikusi dugu: xuri, gorri, urdin, beltz, eta oro...

ITHURRIA

Ghesu elizatik ostaturat ginoazilarik lehen aldikotz begiak ase ditugu karriketako edergailuez. Ithurri batek harritu du haatik gehien-gehienik Chemartin. Castor eta Pollux mainhutzen ari diren ithurri xoragarriak. Dena marmola ithurri hau ere. Castor eta Pollux³⁵ ez zitazken segur nornahi –sekulan izan balinbadire³⁶ bederen!– Jupiter eta Ledaren semeak omen ziren, gure gidariak erran daukunaz, Clytemnestre eta Elenaren anaiak. Mainhatzaileek³⁷ soineko gutisko baitute ardura, Castor eta Polux horiek ere gutisko dute, edo hobeki, batere ez dute, eta harritua Chamartinek badakizue zer galdegin daukun beharri xilorat? “Zer dire gizon horiek? Cerdan bezalako boxlari zenbeit? “Chemartinek orai badaki zer ziren Jupiter. Leda, Pollux eta debrukeria guziak! Ez da bidea baino errient hoberik: ikusiz ikasten da. Eta Chemartinek ondoko egunetan ukhanen du haurren haurrerri zer konda...

AITA SAINDUA LEIHOAN

Ortzirale goiza, parterik handiena bederen, othoitzean iraganik, piazza san Pietron, Aita Sainduaren egoitzaren aintzinean bururatu behar ginuen Aita Saindua, leihoan noiz agertuko zitzaukun. Eginen zela errana zaukuten Vaticanoko soldado batzuek, tenoretsu hartan harat biltzen diren beilari eta ororen benedikatzeko. Bere egoitzako hirurgarren leihoan agertu zauku, beraz, eguerditan, xuri-xuria. Oi, zoin ttipiak iduritu zauzkun orduan gure buruak eta umilki belhaunikatu

³⁵ H. *Polluz*.

³⁶ H. *balinbadadire*.

³⁷ H. *Mainbatzailek*.

gira oro, eskua luzatu duelarik eta boza azkar batekin kantatu: "Benedikatzen zaituztet Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean. Hala biz³⁸!" Gutarik nihork sekulan ahantziko ez duen eguerdi handi eta saindua!

PANTHEON

Bazkariko macaroni eta bertzeak harrapaka iretsirik eta kafe ontto bat edanik, berritz gure beribiletan ginen bigak ondoxean. Ez da denborarik galdu behar Erroma doi bat bederen ikustekotz! Jada han ginuen "Casa Nostra" ostatuko troparen gidaria: neskata pausatu bat, jakintsun handia, eta arras fededuna. Berritz Erroman ibili behar bagina sekulan, ez ginuke bertze gidaririk nahi: ez da hoberik. Pantheon³⁹ delakoa erakutsi dauku lehenik: Jainko faltsoen tenplo lehenik, Agrippa tropetako aintzindariak altxatua, girixtinoek⁴⁰ beretu zuten zazpigarren mendean. Ikustekoa da segurki eta arras hurbildik behatzekoa...

PARABISUA

Huna orai Janicule Erromako zazpi mendixketarik bat. Eskual Herriko beilarien sei beribil handiek mendixka hortako patarra, patar luzea, bat bertzearen ondotik iragan dutelarik, bazuten behari. Ez baitzaukun itsusi. Puntarat heldu girelarik, norbeit hurbildu zaio gure Marie Joseri eta beribileko papearean ikusirik "Pélerinage du Pays Basque" galdegin: "Dove Pays Basque? Nun da Eskual Herria?" eta irririk gabe Marie Josek ihardetsi dio: "En paradiso terrestre! Lurreko parabisuan da Janicule hura ere. Erroma guzia begietan duzu handik! Erroma, urtheak egun duen bezenbat eliza ederrekin: Erroman lehen mendetako orhoitzapen saindu eta hunkigarriekin⁴¹: Erroman Aita Sainduaren egoitzarekin, Aita Sainduaren

³⁸ H. *Halabiz!*

³⁹ H. *Panthon*.

⁴⁰ H. *girichtenoek*.

⁴¹ H. *unkigarriekin*.

lurrekin: Erroma, Zeruko usain eta gustuarekin! Paradiso te-
rrestre!

HAU ELIZA

Mendixkaren puntan, begiak ezin aseztu oren bat egonik, gu-
re beribil ederretan jo dugu lauak alderat jondoni Petriren eliza-
rat. Ondoko egunetan ariko zaukun bezala, gure bihotzeri jada
oihuka ari zen Aita Sainduaren lurra! San Pietro, jondoni Petri,
Aita Sainduaren eliza, munduko handiena. Egia edo gezurra,
nunbeit irakurtu dugunaz, hirur ehun edo berrogoi hamar mi-
liun baino gehiago gostaia omen da. Haatik, hainbertze eta
hainbertze ikusgarri duelarik, hutsa iduri du! Hain da luzea, za-
bala eta gora! Constantin enperadoreak laugarren mendean al-
txatu, mila lau ehun eta berrogoita hamarrean erreberritu zuten
erotik Rosselino, Bramante, Rafael, Michel-Ange, Carlo Moder-
no eta Le Bernin batzuen argi eta laguntzarekin. Dorrea bera
ehun eta hogoi hemezortzi metra gora badoa berrogoita bi
metra zabalekin. Bixtak ikus ahala kasik luze da eliza barnea
eta bertze hainbertze zabal kasik. Aurthengo beilarietarik batek
urhats onean hamabi minuta aman ditu San Pietroko barnean
itzuliaren egiten, San Pietro ez da bakharririk begiekin ikusi
behar: bihotzak ikusi behar du. Han sartzean⁴² orhoitu behar
da han direla Aita Saindu hainitzen gorputzak: orhoitu han egi-
ten direla Elizako saindute eta dohatsutze guziak, orhoitu
mende guzietako Aita Sainduen eliza dela, orhoitu mundu gi-
rixtino guziaren zentro eta bihotza dela: orhoitu jondoni Petri-
ren gorputza han dela erdi erdian eta “portae aeternales non
prevalebunt” deusik ez dela munduan jondoni Petriren elizaren
kontra zerbeit egin dezakenik!

ARATSEAN

Holako egun bethearen ondotik, afal aintzinean gutiz
gehienak luzatu dire den gutieneko bat beren oheen⁴³ gai-

⁴² H. *sartzean*.

⁴³ H. *oben*.

nean. Chemartinek nahiago izan du "bizarra egin, eta arrosa bezen fresko ethorri zauku mahainerat zortziak eta erdietan... Salbu, ilhunbean bizpalau bizar ondo bazituen kokotsean gel-dituak! Laster ohartu zaio Makeako jaun mera.

—Chemartin, nork egin dautzu bizarra?

Chemartinek, eskua kopetatik kokotserat iraganik eta bizar ondoeri oharturik, hain polliki ihardetsi dio:

—Nihaurek, egina dena! Nihork, egitekoa dena!

Eta irri zafla batean oro jarri dire macaroni mendi batzuen aintzinean!

EDERGAILU ETA LIBURU IKUSKA

Larunbata. Aphezek hango edo hemengo elizetan beren mezak emanak dituzte, beilari gutiz gehienek komunione saildua errezibitua, eta jada orok askaldua. Place de Venise hiriaren erditsutan baita, harat eremaiten gaituzte orduan gure sei beribil ederrek. Hango palazio zaharrari begi kolpe bat emanik, guziz leiho xoragarri batzueri, firrindan goazen Vaticaneko biltegi (musées) aberatsen ikusterat, bainan erran dezagun, behin Suhubiette Bunuzeko jaun erretorak urrats bizi-skoan ikusi bazituen hango aberastasunak, guk aurthen lasterka ikusi ditugula! Bai, lasterka! Ondikotz...

Porta Angelica iraganik, Vaticaneko murru zaharren ondoan barna, Viale Vaticano delako sartzean ginen hamar ore-netako. Michel-Ange eta Rafael⁴⁴ harrizko batzu gure beha zauden athe handienaren gainean. Nahiz lehen aldikotz ikusten dituen, Chamartinek berak bere agur pollitena egin diote aspaldiko bi adixkide xaharrerri bezala, bere aphezak errana baitio nor diren! Guhaurek ez ginakike barne hartan zer ikusi dugun bi orenez! Sobera bada, eta beilari gehienak buru-begiak osoki nahasiak atheratu dire kanporat eguerdi zenbeit

⁴⁴ H. *Rafaël*.

gutitan. Gutu edo aski bederen margolari behar da izan, guti edo aski eskolatua ere, Vaticaneko ederrerien prezatzeko. Aita Saindu berri baten hautatzeko kardinaleak biltzen diren barneak berak egun bat osoa behar luke gutienetik ikusteko! Doi bat pausatzeko, beharrik ukhan ginuen zoriona berritz ere Aita Saindua eguerditan leihoan agertzeko, eta haren benedizio-nearen ukhaiteko!

Zenbeitek jada baitzakiten horko berri, badakizue norat jo duten? Vaticaneko liburutegirat. Munduko handiena eta ederrera omen da. Eta hala ditake bere bortz ehun mila liburu eta berrogoita hamar mila liburu-ekheiekin! Han ibili direnek ba othe zakiten Vaticaneko liburutegian eskuarazko liburu bat bederen badela? Ikusi balu, zer atsegina izanzen zuen dakigun beilari eskualzale batek! Han ez da Michel-Ange eta Rafaelen obretan gu bezala pulunpatu... eta itho! *Felix qui potuit*, erraiten zuen aspaldi Horace delakoak...

BASA-ABEREAK

Arratsaldea beren eskuko zuten beilariak begien eta buruaren pausatzeko. Batzu ohean luzatu dire bizpahiru orenentzat: gizonak bereziki; emazteak saltegieri buruz airatu zauzka “libra” zenbeiten berduratzeko. Badakizue dotzena erdi bat adixkidek zer egin dugun? Erromako “jardín zoologique” fatatuaren bidea hartu. Ez zauku dolutu. Munduko hirugarrena omen da. Ba othe da nihun han ikusi ez dugun basa-ihizi, abere eta lumadun motarik? Harritzeko da zenbat eta zenbat den! Lehoin, tigre, hartz, leopar, kanguru⁴⁵, basurde, elefant, basa-idi, jaguar, panthera, zimino, zorilla, eta mila! Orotarik harrigarriena izenik gabeko abere bat, behi buru-adarrekin, zaldi arin baten gorphutz eta zangoekin, zikero-merino baten buztan⁴⁶ luzearekin! Deusek ez gaitu haatik “girafa” batek bezala beha egonarazi. Abere pollita, arras pollita da hau bere

⁴⁵ H. *Kangourou*.

⁴⁶ H. *buztar*.

lau zango mehe heien puntan. Eta, oi, ei, ai zer lepho luzea! Girafak aintzineko zangoak haintz luzeago ditu giblekoak baino, ez dezake, beraz, lurlean deusik bil, aintzineko zangoak zabalduz baizik. Hala-hala edozoin zuhaitzen hostoak lorietan bilduko dauzkigu sei metretan!... Chemartin gurekin baiginuen, irriz beha zagokion aski hurbildik girafari. Huni gaitzitu othe zaio? Lephoa luzatu du zerraduraren gainetik eta Chemartinen ponetari lothu, ustez oñoñak han baziren! Jauzian urrundu da Chemartin... eta oihuka eskuara ederrez girafari hasi: "Errak, to, lepho-luze ausarta, zer nahi duk nitarik? "urruntxago karkaraz zaudela Donaixtiko jaun erretora, Ma-keako auzapheza, eta bertzeak! Beharrik handik laster irris-kuak ahantzarazi baititu Chianti ttotta batek, bele zahar guri batzuen kaiolaren ondoan!...

NAPOLI

Napoliko itzulia aiphatu behar othe da? Hiri handi bat da Napoli, bere miliun bat arimekin. Hiri ederra ere, hainbertze eliza, palazio eta ikusgarrirekin. Pompei aldean du bertzalde, aspaldi Vesuvako lur-suak ehortzirik, orai emeki-emeki xutitzen ari dena. Ondikotz. Erromatik urrunegi dire bat eta bertzea, hango itzuliaren egun batean⁴⁷ egiteko! Hainitzi ez zaiote batere urrikitu izanik: zenbeiti ba⁴⁸. Hogoita hamar bat baiginen Erroman gelditurik... bide luzearen lotsaz, Erromak nola xoratu gaituen oraino! Berritz ere Aita Sainduaren benedizio-nea ukhan dugu eguerdi alderat, berritz ere San Petro hiruz-palauetan kurritu, kardinale, aphezpiku eta kalonje batzuen othoitzak segitu... eta zernahi ederreria erosi, ... eta eguerditan "macaronirik" gabe ederki bazkaldu, arrats aldean Castor eta Pollux Chemartinen boxlari heieri behako labur bat ema-

⁴⁷ H. *egun betean*. Zer ote da *egun betean* edo *egun batean*? Dudarik gabe *egun batean* izan behar du, bestela Zerbitzarik *egun bethean* idatziko bailuke. Zerbitzarik, geroxeago ere argi ikusten denez, beti *bethe* idazten du.

⁴⁸ Hemen bukatzen da hirugarren plamako testua. Ondoko testua laugarren plamakoa dugu.

nik mila xokho zangoak arin ikhertu! Hola goxatzen da Erromaz! Eta gero lagunak Napoliko bide luzean heldu zirelarik, ez othe zuen oraino balio “circolare” delako treina karrakoila hartan hiriko argi eta mila argien ikusterat joaitea Germaine bezalako gidari batekin? Elhea galdua zagon Donaixtiko jaun erretora bera argien ederraren ederrari! Eguna bethea ginuen, eta ederki bethea, Napolitanoak itzuli zauzkularik arratseko hamekak alderat, tette bezala hamikatuak...

MEZA BAT XORAGARRIA

Astelehenean, berant aire ohean egonik, oro ez bada gehienak bederen hamar orenetan Ghesuko elizan ginen bigarren aldikotz, San Frantses-Xabier eskualdunari zor ginion agurraren egiteko! Sainduaren aldarean Narbaitz jaun kalonjea meza emaille, oro kantari, zer elizkizun eder eta hunkigarria⁴⁹! Eta berritz ere Eskualdunen bulharrek, Maintenu jauna gidari, nola inharrosi duten jesuixten eliza! Nola inharrosi orobat sakristau eibartar gaizoareen bihotza? Eta ez othe guhaurenak? Etxetik urrun dugu egiazki sentitzen zoin maite dugun etxea, herritik urrun zoin maite⁵⁰ dugun herria!

Bainan, erradazue othoi, hemen zertako heldu othe zauku berritz Marie Joserren izena lumarat? Dudarik gabe Ghesuko inguruetan duelakotz, bigarren aldikotz delako soldado italiar no beltza ikusi! Jada ahantzia duke. Bai, hain beltza zen eta⁵¹ hain frantses guti zekien! Ez zuten elgar adituko.

ELIZEN AMA

Handik norat jo dugu? Jondoni Joani Latranekoaren elizarat. Eliza miresgarria hau ere, eta orhoitzapen hunkigarrienez bethea. Munduko eliza guzien ama dela erraiten dute liburuetan. Melchiade Aita Sainduak altxatu laugarren mendeko

⁴⁹ H. *Hunkigarria*. Hitz honetatik aurrera *bunki(tu)/ hunkigarri* hitzak hasierako h- batez agertzen dira.

⁵⁰ H. *baite*.

⁵¹ H. *eta eta*.

lehen-lehen urthetan. Salbatzailea bera ukhan zuen lehen patroin, geroago jondoni Joani Batixta, eta azkenik oraikoa, jondoni Joani Ebangelixta. Mendetik menderat frangotan erreberritua izana da: azkenekotz 1650garren urthean, Barromini lannen gidari. Innocent X zen Aita Saindu orduan. Sekulan eliza bat ez baita aski eder, gure denboran Leon XIII Aita Sainduak lan berri eta eder frango eginarazi du jondoni Joani Latraneakoan. Ez da eliza hortarik atheratu behar Henri IV Frantziako errege famatuaren itxurari behatu gabe atheari hurbil: eliza horren ongiegile handienetarik bat omen zen. Uste gabeko zorion bat ukhan ginuen jondoni Joani Letraneakoan: "Krixto Erregeri" hango gure kantua aditurik, nunbeitik gainerat ethorri zitzauzkan bortz jaun aphez. Napartarrak ziren eta gu beza-la, beren alde, Erroman ibilki. Bortzetarik bat, hain xuxen, "Herriaren" ardurako berriketari bat. Goraintzi, adixkidea. Mendiek bakharrik ez dute elgar atxemaiten...

SANTA ELENA

Astelehen arratsaldeko itzuliez nor eta nola orhoit? Bertzeak bertze gogoan ditugu haatik Scala Saneta eta Santa haatik Scala Sancta eta Santa munduaren munduaz, ez badugu hurbiltzea baizik ukhan eta lehen mailan othoitz labur bezen kartsu baten egitea, luzez ikusi eta goxatu dugu Santa Elenaren eliza. Erromako ederren-ederrenetarik bat dela daukagu. Constantin enperadore famatuaren ama zen Santa Elena. Nork ez daki oraiko eskolekin Constantinek 312garren urthean Maxence orduko enperadorea garhaitu zuela Erromako inguruetan? Tiber⁵² ibaian Maxence ithorik, Constantin enperadore sartu zen, Elizaren on handienarentzat. Liburuek erraiten daukute nola gudurat zoalarik Constantinek airetan gurutze bat ikusi zuen⁵³ eta gurutze hartan hitz hauk irakurtu: "In hoc signo vinces".

⁵² H. *Tibre*.

⁵³ H. *gurutze bat ikusi bat ikusi zuen*.

Seinale horrekin garhaituko duk! Sekulan ez dezagun hori ahantz!

JONDONI LAURENDI

Ihuntzeari buruz, lagunak beren bideari utzirik, bortz bakharrek haia haia jo dugu Erromatik kanpo jondoni Laurendiren eliza paregaberat. Ez da fama gehiago duen elizarik. Constantin enperadoreak altxatua da eliza hau ere jondoni Laurendi ahortzi zuten tokian. Pelage II Aita Sainduak errotik erreberritu zuen 578garren urthean. Bainan oraiko moldea Honorius III hamahirugarren mendeko Aita Saindu batek emana dio. Ondikotz azken gerla huntan kanoiek aski kolpatu dute kanpoan eta barnean eta zauriak oraino ageri ditu han-hemenka! Kalostratik aldare gibeleraino, pilarretik pilarrerat, oro hurbildik ikustekoak dire jondoni Laurendiren elizan! Oren bat gehiago han iragaitea ez da segurki oren haren galtzea! Sinhets gaitzatue...

Arratsaldeko lasterkek appetitua idekirik eta Regina usaian hain ixilaren erasiak entzunik, anaia bi orenez ebatsi giniola-kotz, macaronieri bereri ez diotegu thu egin arratsean. Makeako jaun auzaphezak berak ez othe ditu aldi hartan jastatu? Eta kasik maitatu?

KATAKONBAK

Asteartea. Iguzki eder bat zeruan, argiko! Segurki ongi ethorria da, egun goizean bidetze luze bat baitugu katakonbetako mezarat joaiteko. Zer dire katakonbak? Utz dezagun mintzatzerat Pierre Duhour gure hazpandar adixkideak duela hogioita bortz urthe egin liburu bat: "Jesu-Krichtotik hunateko lehen mendetan, inperadore Erromanu batzu izan dira paganoak, burrego hutsak, girixtino atxeman guziak hil-arazten baitzituzten. Girixtinoak hertsatuak ziren, bada, gordetzerat, beren fededun urhatsen egiteko. Hortakotz lurpean zilhatzen zituzten bide batzu, metra pare bat gora, baten heina zabal eta han-hemanka biltzar toki hertsu zombait. Usuenik etxe abe-

rats girixtino batean zuten lurperako sartzea, paganoek ez zezaten jakin ez asma sinhestedunen berririk. Delako lurpeko bidearen bi sahetsetan egiten zituzten beren hilen ehorzteko hobiak, estaika, zonbait bidetan sei zazpi estaietaraino. Badire hola lurpean ehun kilometra bide baino gehiago, dena hiltzila bi eskualdetarik. Horiek dituzte deitzen katakonbak." Horra nun ginuen, beraz, astearteko elizkizuna...

Meza-emaila Gerezietao erretora, Erroman diren aphez beilarietan xaharrena... urtheek egiten badute norbeiten adina! Predikari, Maintenu jaun misionesta. Beretter, Makeako jaun auzapheza. Narbaitz jaun kalonjea buru, beilari guziak kantari artetan: bainan kantari, kasik ahapetik, segur lehen girixtinoak kanpotik ez aditzeko ari ziren bezala! Ez, ez ditake katakonbetako meza baten hunkigarria erran! Zer nigar xortak mathela gehienetan! Eskual Herrian balakite! Balakite, oinez joan litazke Erromarat frango eta frango, behin Barkoxetik Etxahun⁵⁴ bat joan zen bezala, lurrean berean zeru doi baten jastatzeko!

Lau katakonba badire Erroman. Bat ikusi dugu bakharrik, San Kalixto. Bertzeak deitzen dituzte Santa Agnes, Santa Domitila eta San Sebastien. Pierre Duhour adixkideak erran baitautzue⁵⁵ badirela ehun kilometra baino bide gehiago lurpean, ikusazue badirela bederatzi ehun kilometra... eta nihork ez daki ondoko ilabete edo urthetan ez duten gehiago ere kausituko! Dena dela, mementoko katakonba handiena San Kalixto da eta hura dugu ikusi, parte. Han ere sobera bada ikusteko eta orhoitzeko. Doi-doia⁵⁶ gogoan atxikiak ditugu hirugarren mendeko Aita Sainduen ehotz-lekhua, Santa Zezilia 230garren urthean, Alexandre Severe enperadore zelarik, lephoa errotik moztu zioten martir gazte maitagarriaren ehortz-lekhua. Sakramenduen kapera. Eusebe Aita Sainduaren xokhoa, Zizto Aita

⁵⁴ H. *Barkotchetik Etxahun*.

⁵⁵ H. *batautzue*.

⁵⁶ H. *doidoia*.

Saindua harrizko tronu batean. Hots, begiek ikus ahala baino hainitz gehiago ikusgarri!

Elizaren lehen urthetakoak dire katakonbak. Geroztik ez dire bethi idekiak egon. Ez badakigu xuxen noiz hetsi ziren, badakigu bederen zazpigarren mendean Aita Sainduak handik khendu zituztela hainitz eta hainitz martiren ondarkin sainduak eta Erromako elizetan ezarri, Erroman baita –jada errana ez badugu ere, hemen erraiteko– urtheak egun duen bezenbat eliza! Hamahirugarren menderaino nihun ez da katakonbez aiphurik. Hamalau-hamabortzgarren mendetan, aiphu guti. Orduan zenbeit orhoitu ziren zerbeitez eta bilhatzen hasi, bainan bilhatzen buru ez molderik gabe. Hemeretzigarren mendean Jean Baptiste de Rossi italianoak katakonbak ikheretzeak bururatuxeak zituen, 1894garren urthean hiruetan hogoita hamabi urthetan hil zelarik. Geroak erranen du geroko berri...

ZAMARRA ETA BERTZE

Itsas-hegiko eskualdunek bederen badakite zer den zamarra –*le crabe*, erdaraz–. Alimalexka bat, erdi arrain, erdi ez dakigu zer, dena aztapar zorrotz. Hanbat gaixto behin aztaparretan hartzen badautzu erhia. Ez zire aise libratuko⁵⁷, eta atx egin beharko duzu! Bada, Erromako karrika, eliza athe eta katakonba ondoetan zernahi zamar bada. Bi zangotako zamar haatik: Araba saltzaile batzu! Oi, ez zaituzte utzi nahi... larrutu arte! Egiazko zamarrak.

San Kalixton sartzean oro ohartu ginen berehala athearen giblean hitz larriz ezarria den “No smoking” bati: ez dela han pipatzea haizu erran nahi du, omen. Xuberotar Parisen barna ibili batek gibelat egin nahi izan da⁵⁸, ustez “smoking” ezarri

⁵⁷ H. *libratko*.

⁵⁸ H. *Chuberotar Parisen barna ibili batek gibelat egin nahi izan da*. Okerra delakoan, esaldia honelaxe jarri dugu: “Xuberotar Parisen barna ibili batek gibelat egin nahi izan du”

behar zela katakonbetan sartzeko! Ez zen ohartua “no” smoking zela: Chamartinek ohartarazi du! Gutxi huts egiten zuten Chemartinen begiek!

Kanpoan zamarrak balin badire milaka, eliza batzuetan ere kausitu dugu zenbeit. Hala-nola fraile dominikanoen eliza batean. Berrogoita hamarna lira polliki katzitu diote Larre, Belleau, Maintenu, Idiartegaray, Mailluquet jaun aphezeri... eta zuen zerbitzariari, aldare zahar batzuen erakusteko⁵⁹! Aditu bazintuzte atheratzean gutarik bizpalauen sudur-xixtuak! Guk ere jakin baginu Arbonako Martha batek bezala: Mettere la coda dove non va il capo –erran nahi baita– zamarreri erhien ez emaiten!

Irakurtzaile maiteak, barkatu ahantzia badugu xuxen noiz ikusi ditugun Santa Maria in Dominica, Leon X Aita Sainduak eginarazi sartze ederrarekin, eliza bera hamargarren mendekoa delarik eta Pascal! Aita Sainduak altxatua; –jondoni Joani eta Pauloren laugarren mendeko eliza maitagarria–; San Gregorio, saindu handi horren beraren etxean egin eliza. Orotan, zernahi ederreria, zernahi ikusgarri! Buru hoberenak koka-ahala baino gehiago! Sinhetsazue ez dela aski horietaz zerbeit nunbeit irakurtzea: bere begiz ikus behar dire⁶⁰!

COLISÉE

Ez, Erromatik sekulan ez litake etxerat itzuli behar Colisée delakoa ikusi gabe! Zer obra! Hemen ere utz dezogun Pierre Duhour adixkideari luma: “Harrigarriko barne bat da, Jesu-Krixtotik hunateko lehen mendean egina, zeruaz beste estalgi-rik gabea: kanpoz iduri du erronda dela, bainan ez, luzean baditu 188 metra eta zabalean 156, gora 49. Gainera puntaraino den jartoki, estaika, zezen lasterretako Arènes hetarik iduri. Lauetan hogoi mila jende sartzen ziren. Hea nolako bihika zen! Hor lehen mendetan iragan diren izigarrikeriak nork

⁵⁹ H. *irakusteko*.

⁶⁰ Hemen bukatzen da hirugarren plamako testua.

erran. Girixtinoak asko gisetarat sarraskitzen zituztelarik! Josteta egunetan ziren odol ixurtzeak! Batzuetan bi gizon kondenatu: arrarazten zituzten kolpeka, ezpata eskuan, zoinek bat bestea garbi: beste batzuetan balentriaz bi esklabo, edo gizon bat eta alimale basa bat: alimale basez bethea baitzen barne hartako lurpea, dena tegi, nonbaiko oihanetarik horrat eremana, bethi jendea jostatzeko: lehoin, tigre eta beste. Gizona gizonaren kontra edo alimale baten kontra ari ziren, bata ala bestea hil arte, nun ez zuten ikusliarrek gizon garhaituaz urrikaldurik, haren bizia galdegiten. Gudulari batzu baziren hola: jostetetan ofizioz ari zirenak: denak esklaboak ziren eta “gladiateurs” erraiten diote erdaraz...” Egundaino⁶¹ ez da gudulari horietan Spartacus baino famatuagorik izan. Ez othe zituen behin esklabo guziak Erromako nausien kontra xutiarazi? Ez zituen halere bere xedeak bururatu...

Colisée hartan uste gabeko zerbeit ikusi dugu... atsegin handienarekin: Irigoyen jaun apheza kantari, Jean Pierre Uthurry Chuberoko⁶² dantzari hoberena dantzari! Satan dantza horra, beraz, nun ikusi behar ginuen aspaldiko partez! Bazterretik irriz beha zagon Barkhoxeko jaun erretora, eta, kopeta zimurrik, horratago, Erromako enperadore baten harrizko itxura! Marc Aurele othe zen? Enperadore hunek ez zuen josteta maite, dena liburu zen. Nola beha zezaken xuberotar baten jauzieri? Guk, haatik, gehiago ere behatuko ginioten oraino lorietan! Mari Josek ere ba, omen! Jean-Pierre Urruty han ikustean, Hellesponteko dantzari zahar bat gogoratu omen zaio berehala! Eskola zer den!!!

AITA SAINDUA

Oi, Erromako beilaren laburra! Huna jada asteazkena, hango azken eguna! Zer ekharri behar othe dauku? Bihotzak zorionez gainditu behar dituen Pio XII Aita Sainduaren orena!

⁶¹ H. *Egun daino*.

⁶² H. *Chaberoko*.

Eguerdiko ginoazen jondoni Petriren elizarat galdea: han ginen hameka orenetako. Han, hogoita hamar mila jende, Italia-tik. Alemaniatik, Ameriketatik, ez dakigu nundik, eta Eskual Herritik! Han, kanta latinez, kanta italiano... eta kanta eskuaraz... denborari ohartu gabe, tinki-tinkia, gero eta tinkiago elgarren kontra, mila eta mila ardi korrale ttipian bezala! Egia erran jondoni Petriren elizan bertze hainbertze jende aise kokatuko zen, bainan bakhotxak hurbil baino hurbilagoatik nahi zuen Aita Saindua ikusi! Sorka ginoazin, beraz, gero eta⁶³ gehiago, ithotzeko heinean! Bai, ithotzeko heinean!

Eta beha munduaren ttipia eta hertsia! Hantxe goazilarik Aita Saindua iragan behar den⁶⁴ bidexka hertsirat, gero eta tinkiago, horra nun burua itzulirik neskata bat ikusten dugun nigarrez! "Zer duzu? Eri? -Ez, jauna, ez! Bainan zuen "Jaunkoaren Ama" kanpotik entzun dutalarik bihotzak jauzi egin daut! Miarriztarra sortzez. Erroman neskato, traba guzien gatik, huna nun naizen herriarrekin! Milesker, Jainko Ona!" Berritz ere, oi herriaren, etxearen eta mintzairaren gozoa urrun denarentzat! Nicole Balidet orhoituko da gure beilaz!

Denbora bazoan anhartean. Eguerdi hurbilduxea zen. Horra nun betbetan buru guziak itzultzen diren jondoni Petri elizako athe handi batzuetarat. Hara, hara Aita Saindua bere "sedia" kadira handian sei gizon azkarren bizkarrean, bere soldadoak eskuin eta ezkerretarik. Oro orotarik oihuka ari dire jada: "Viva el Papa! Vive le Pape!" Eta eskualdunek ere oihu egiten dugu: "Gora Aita Saindua!" Ez da gehiago bertzerik aditzen buru batetik bertzerat eliza handian! Gora! Gora! Eta ohore Jesu Krixtoren ordainari lurrean! Eta Aita Saindua emeki emeki heldu da lerrotik lerrorat, itzul eskuin, itzul ezker, oro eta bakhotxa benedikatzan dituela, irri saindu bat ezipainetan! Harritzeko da bihotzak nola ez duen zapart egiten holakoetan!

⁶³ H. *gero-ta*. Lerrokada honetan bi aldiz dator "gero-ta ...-ago" egitura. Bietan "gero eta (...) -ago" transkribatu dugu.

⁶⁴ H. *beharden*.

Begi gehienak bustitzen dire bederen, Elizako itzulia gisa hortan bururatu eta, Aita Saindua jauntsiko da bere tronutik, frixtean aldarerat iraganen, eta han jarriarik mintzatuko. Mintzatuko italianoz, alamanez, anglesez, españolez⁶⁵ eta frantsesez, bortz mintzairak bardin aise deramatzala! Ba omen daki bertze mintzairarik ere. Eskuara? Ez dugu uste, bainan behin ez othe zioten eskualdun beilari batzueri, edozoin eskualdunek bezen ongi, erran? “Eskualdunak, ongi ethorri Erromarat!” Oren bat zen. Aita Sainduak besoak zabaldu ditu orduan eta bere benedizionea eman dauku, Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean. Bihotza inharrosia, eskualdunak ahal duten bezala atheratu dire, beraz, jondoni Petriren elizatik eta berebiletan sartu, ostatueta zerbeit jateko. Erromako aldia eginu ginuen. Asisatik san Frantses eta santa Clara oihuka ari... Agur, Erroma!

ASISERAT

Asteazken arratsaldea. Horra gure sei beribilak lerroan. Bakhotxa sartzen da berean. Ez baitugu gehiago denbora galterik, seiak bideari lothuko dire firrindan. Azken kantu bat hasten dauku Maintenu ezin nekatuak eta... avanti Giovanni! Herri pollitetarik herri pollitagoetarat, begiak aseko ditugu gaur ere. Ilhuna ginuen haatik Asiserat heltzean! Nola joan ostatueta Portionculako elizan san Frantsesi eskualdunen agurra egin gabe! Eta han ere gure eskuarazko kantuek nigar eginarazi diote norbeiti aspaldi Frantzizkanoekin bizi den Paulino donostiar fraileari. Urtheak ba omen zituen ez zuela eskuararik entzun.

Eta orai karrika ilhunetan astirik galdu gabe, goazen nor gure ostaturat sabelak aspaldi oihuka hasiak ditugu. Afari onto bat eginen dugu usaiako lagunekin... nahi baino spaghetti gehiagorekin haatik, Josepek bederen. Ogia agotik ezin utzia baita, harek pekatzen du gehienik. Bai eta Chemartinek Erro-

⁶⁵ H. *españolez*.

matik ikharri duen⁶⁶ Frascati harek. Freskati erraiten dio Chermartinek. Frascati, frescati!...

BIHOTZ ONA

Hameka orenetako ohean zauden⁶⁷ gehienak, eta lo. Azken othoitzen erraiten ari Donaixtiko jaun erretora, atheko argian. Jada salatua baitautzuet arras bihotz oneko gizona dela, horrek galtzen dauku gau hartan! Huna nola. Andere Carrau Hazparnekoak bazterretxe batean zuen bere ohea, ostatutik aski urrun. Etxea ez zaio gustatu, eta gibelat ethorri da... Donaichtiko jaun erretoraren ganat eta bere zorigaitza erran dio. Aphez onak zer egin du? Bere ostatuko ohea andere Carrauri utzi, eta joan delako bazterretxerat, eta ixiltasun lotsagarrienean etzan. Eta horra nun oren baten buruan bezala harrabots bat aditzen duen ganbaran! "Nor da hor? Chi va!" Bainan nihork ez dio ihardesten eta bethi hurbiltzen ari da harrabotsa! Zer eginen zinuten? Argia phiztuko. Hala egin du aphezak ere eta ganbararen erdian bi begi handi ikusi. Bi begi handi, hantxe oheari beha zagon arratoin alimale batenak! Zer eginen othe zuen andere Carrau gaixoak? Irri egin du Donaixtiko jaun erretorak, bertze alderat itzuli eta lokhartu... eskerrak Jainkoari bihurturik!

Argia gabe aphez gehienak elizetan ziren mezaren emaiteko. Hamar bat baginen san Frantsesen hobia deraukan elizan, gure ostatutik aski hurbil. Aski eder baitzen⁶⁸ memento batez san Frantsesen hobiaren gainean lau aldetarik eginak diren aldare ixiletan lau aphez eskualdun meza emaiten ari, Maintenu eta Idiartegaray misionestak, Larre Hiriburuko bikarioa eta Donaixtiko erretora! Orduan san Frantsesek nola gogoan ibili ahal dituen Eskual Herriko heren-ordeko anai arrebak⁶⁹!

⁶⁶ H. *Luen*.

⁶⁷ H. *zoien*.

⁶⁸ H. *baitzln*.

⁶⁹ H. hirugarren plamako azken hitza.

PAULINO

Bederatzi orenetan ginuen meza nausia, han berean. Lekhorneko jaun erretora meza emailde aldare handian, Idiarregaray jaun misionesta predikari, Narbaits jauna musikari, oro kantari. Meza eder bat segurki, eskual kanta eder ederrenekin, eta bezperan bezala, Paulino frailearen nigarrekin! Erran gabe doa haatik Paulino deusek ez duela hala inharrosi nola bere herritarraren “Iñaki” airos harek eta kanporakoan gogotik erran dauku segurki: “Adixkide herritarrak, milesker! Laster zatozte berritz hunat! Hogoi urthe badu hemen nauziela: ez dut behinere holako elizkizun ederrik ikusi! Milesker!” Paulinori ere eskuara oraino mintzo! Eta mintzo⁷⁰ etxea baino gehiago!

ZUHAITZ ETA BERTZE

“Carceri” direlako lezeak zenbeitek ikusi nahi izan dituzte, han egona baita denbora frangoz san Frantses bere lagunekin. Urrunsko dire karrikatik eta halere Ezpeletako neskatzak oinez hango itzulia⁷¹ egina zuten meza aintzin. Bospasei lagunek, ondoan egin dugu, eta beribil batean. Ikustea balio du. Han ikusi dugu, bertzeak bertze, san Frantsesek xoriak tropa-ka bilarazten zituen zuhaitz famatua! Ez da haizu zuhaitzaren hunkitzea, laster hil bailitake bakhotzak bere aldaxka khen-tzen balio. Bat hartu diogu halere, eta Germaine, Mari Jose eta andere Sallaberriri partitu! Agian ez dituzte preso eramanen ondoko egunetan!

SANTA KLARA

Huna⁷² naski ethorria gure beila guziko orenik hunkigarriena, ororen arabera! Saindu hainitz eta hainitz izan da mendetik menderat Asisan. Bat ez da santa Clara baino gehiago herrian ohoratzen dutenik! Eta egiazki hamargarren mendeko

⁷⁰ H. *mnitzo*.

⁷¹ H. *itzula*.

⁷² H. *Huni*.

saindu handi horrek ohore guziak merezi ditu. Harriz egina behar litake bihotza, santa Clararen gorphutzaren aintzinean ez nigarrez hasteko! Ezen gorphutz hori "Clarisses" seroren komentuan ikus ditake berinozko kutxa batean. Belztua da segurki, bainan oso-osea, bere neskata begitarte pollitarekin! Bardin hunkigarria da bere pobrezian santa Clarak bere lagunekin batean jaten zuen mahain arrunt hura? Harekin zituen santa Clarak Sarrasins direlako gaixtaginak zurubietarik etorraz. Nahuzue guk hemen, ikusiak ikusirik, ondoko urthetan Italiarat beila eginen duteneri zerbeit erraitea? Napoli eta bertze batzu bazterrerat utzirik, zoazte Asiserat bi egunentzat berderen! Ez dautzuate bertzerik erranen Régine Marthe, Marie Jose, Suzie, Christiane eta gurekin ziren aurthengo neskata beilariek!

Ortzegun arratsaldean Asisatik norat joko othe dugu? Firenzako hiri handi eta xoragarriat. Bethi beribil beretan goazi. Bidea nihork baino hobeki ezagutzen du gure Giovanik: hangoa da eta han sarri atxemanen ditu zortzi egun huntan ikusi ez dituen bere emazte eta bi haurrak. Goiz heldu nahiko luke, beraz, bainan bidea luze da Asisatik⁷³ Firenzerat etc. hain xuxen, bideko hiri, herri eta herrixka guziak phestan: Mussolini eta alamanen aztaparretarik atheratzearen urtheburua dute eta beren bideak berentzat nahi! Tenore bat izanen dugu, beraz, Firenzan ere, afari ontto bat eginik –Italian egin dugun hobereña, diote gure Josep, Chemartin, eta Makeako Jaun auzaphezak– gure ganbaretan sartu eta kokatu orduko. Usaiako lagunek Chianti xorta bat edanik haatik! Ez dakigu nundik bildua zuen Etchegorry adixkideak... emaztearen ixilik! Onskoia baitzen!

FIRENTZAN

Firenza –Florence frantsesez– hiri handi bat dela errana dugu jada. Larre Hirburuko jaun bikario maitagarria hiriburu-

⁷³ H. *Asisatib*.

rat joan aintzinean Hazparneko ikastegi aiphatuan irakasle baitzen⁷⁴, lutelestiaren irakasle *–la géographie* omen da lutelestia hori, Charritton jaun aphez jakintsunak erran daukunuz!– bai, Larre jaunak nunbeit irakurtarazirik dakigu Firenzan badirela gutien gutienetik hiru ehun eta berrogoita hamar mila arima! Zernahi zakhur, gathu eta uso bertzalde! Egiazki hiri handi bat da, beraz, Firenze! Eta eskualdunek zerbeit ikasteko izan omen dezakegu Firenzako hiriarekin! Alabainan hainitzek uste dutena da eskualdunek badugula “Etrusques” direlako batzuen odoletik... nahiz hori ez den behinere Blade, Van Eys, Vinson, Luchaire, Bonaparte eta Champion batzuen buruan sartzen ahal izan! Ordainez zer eman daukute? Beraz, bai, izan dezakegu “Etrusques” direlakoen odoletik... eta Firenze ez othe zen hastean jauntto horien meneko? Beraz, irakurtzaile eskualdunek nahi dutena asma dezaten, guk xehetasun horietaz eskerrak zor ditugu Larre jaun aphezari. Holako jakintsuna nola utzi duen Hazparnetik joaiterat Gastellon jaun kalonjeak!

Egun bat ginuen doi-doia Firenzaren ikusteko eta gure azken “liren” berduratzeko. Hau, lan errexa eta aise egin dutena gutiz gehienek Firenzan egiten diren esku-zaku, larruzko esku-larru baxeraki eder eta zimino polliten erosten. Hiria ez dugu haatik nahiko ginuen bezenbat eta nahiko ginuen beza-la ikusi! Alde batetik denbora eskas, eta bertzetik hango gidariak ez Erromakoa balio. Behar gabeko urhats eta elhe sobera! Ez diogu, beraz, behatu baizik Santa Maria Maggiore hamabigarren mendeko elizari, lasterka Bathaioetako kaperan iragaiteko. Santa Maria del Fioreko eliza nausirat jauzi egiteko, eta Chiesa de Santa Croce, Erromako Jondoni Petri eta Londreseko eliza nausiaren ondotik munduko elizarik handienezan doi-doia trikatzeko. Eta denbora gehiagoko guti gelditzen zitzaukun goiz hartan bertzerik ikusteko. Ez ginen, beraz, lasterka⁷⁵

⁷⁴ H. *beritzen*.

⁷⁵ H. *Jaserka*. Hitz hau *lasterka* izan behar du, gure ustean.

iragan baizik Michel-Ange, Titien, Rubens eta hein hortako margolari famatuenen ikusgarri paregabekoen aintzinean. Ez zitaken bertzerik!

NOR GURE ALDE

Ez zitzaukun gehiago arratsalde bat baizik gelditzen... eta arratsalde hortan, bakhotxa bere alde eta bere buru, ibili dire gutiz gehienak. Frango eta frango Fiesoleko mendiskarat⁷⁶ iragan dire eta han, jendetze ederraren aintzinean "ikusten duzu goizean" kantaturik, Barkoxtarrari godalet dantzetan alegerena emanarazi! Bertze batzuek nahiago izan dute zaldi-karro zahar batean karriketan ibili, segur behari bailukete Mairritzen hola abiatzen balire heldu den udako eskual phesta batzuetan Oldarra aintzinean! Gaineratekoak barraiatu dire... saltegietan. Han kausitu behar ginuen zimino baten erosteko azken-azken "liren" igortzen ari Donaixtiko jaun erretora, berea gogoan. Han ikusi du ere Narbaits jaun kalonjeak, ez baita guti harritu bere ziminoak eskuan ikusi duelarik... eta moltsa hutsari beha... Ez da harritzeko polliki erran badio: "Mon cher ami, je vois que décidément tu dé... lires!"

Denbora hortan, nihun ez baitzen gehiago ageri, nun othe zabilan Gerezietako tropa eder bezen alegera? Bartali munduko pirripitari famatuaren ondotik joana! Eta ikusi baitute, eiki, karrika batean... eta batek bederen mintzatu! Gizon pollita da Bartali, arras elizatiarra, eta Firenzan hobekienetarik ikusia. Atsegin ukhan omen du gerezietarrak erran diozkan elhe⁷⁷ pollitez, eta gerezietarrak Bartaliren ganik ukhan dituen hirur sinadurez. Hirur sinadura horietarik biga ez dituzte saltzekoak Gerezietako bi muthiko gaztek: are gutiago hirugarren Marie Jose batek Getarian! Erran othe dautzuegu Firenzakoa dela Bartoli?

⁷⁶ H. *mendikarat*.

⁷⁷ H. *elle*.

ETXERAT

San Remo, Bordighera, Ventimiglia bere mugazain prestuekin, Nice, etxeko bidea, Tolosa ohartu orduko. Lurde zorzaion agurrarekin., Saliese elgarri agur luze eta hunkigarriena-rekin, eta Baiona mundu handi batekin geltokian! Eta igandea baita, oro bagoazi Santispiriteko elizarat mezaren entzuteko. Azken othoitzak, azken kontseiluak Narbais jaun Bikario jeneralak emanak, azken kantika, Iñaki! Eta zoin airoski!!! Horra bada gure Erromako itzulia. Hirugarrena ginuen, eta segur azkena. Agian ez dadiela hala izan bertze beilari lagunentzat! Itzuliak balio du...

Milesker “Herriaren” jaun buruzagiari hoinbertze xokho hoinbertze denboraz berri ttipi hauieri utzi nahi izan diotela-kotz hemen⁷⁸. Eta goraintzi beilari guzieri Hendaiatik Altzumartaraino, Saliesetik Alduderaino, nihor ez ahanzteko nihor izendatu gabe... oro Donaixtiko Gaztainen Phesten berritz ikusiko ditugulako esperantzarekin! Anhartean goraintzi berezi bat haatik hango jaun erretor onari!

BIDAIA BUKATU ETA LAU HILABETE ETA ERDI ONDO-RENGO OHARRA:

ERROMAKO BEILARIERI

“Herriak” bere mementoan zenbeit astez aipatu zituen berrehun eta hogoiata bortz eskualdunek Napolin, Firenzan⁷⁹, Asisan⁸⁰ eta Erroman gaindi ibili zituzten urhatsak. Orduan erran ez zuena hau da, itzuli paregabe hura batasun osoan eta adixkidantza handienez egin zuten beilariak, Saliesen, Puyoon eta Baionan elgarretarik berextean, hitzeman zutela be-

⁷⁸ H. *emen*.

⁷⁹ H. *Frenzan*.

⁸⁰ H. *Asian*.

rritz eta aski laster elgar ikustea, Donaixtiko gaztain-phesta famatuan. Bada, phesta hori gainean dugu: urriaren zazpian, ilabeteko lehen igandean egin beharra da. Eta xori batek salaturik badakigu phesta hortan deus ez dela eskas izanen! Gurekin Erroman ginuen Belleau Donaixtiko jaun erretor on bezen maitagarriak oro gogoan erabiliak ditu aspaldi, tiletetik tileterat oro jada xutik ezarriak: gaztainak bilduak, berexiak, zartainetan ezarriak, Donaixtiko arno xuri arinena botoiletan prest, pertsulariak hautatuak (Mattin, Xalbador eta hoberetan hoberenak), Erromako beilarrien mahain berezia bere xokoan urhezko itze batzuekin finkatua. Xuberotarren, lapurtarren eta baxenabartarren izenekin. Chemartin (bizarra ederkisko eginik jinen baita), Makeako auzaphez jauna, Alzumarteko jaun-andere esposatu berriak, Ezpeletako kantari maitagarriak, Albertine Fagoaga heiekin, Irisarriko bederatzi edo hamar gazte alegerak, Armendaritze Doneztirikoak, Uztaritzeko Luisita Heuty eta Lucie Duboscq bere iloba pollitarekin, andere Freville Azkainekoa bere lagunekin, mirakuilu batez garratoin alimale batek Asisan jan ez zuen andere Carrau Hazparnekkoa. Hazparnetik orobat andere Charritton, andere Negueloua eta Régine⁸¹ Larre, Pierre Uthurry Barkhotcheko dantzari famatua, andere Aguer Maniekkoa, andere Sallaberry Gerezietakoa bere anaiarekin, hainitz aphez eta, den gutieneko dudarik gabe, Erromako beila hain ongi gidatu zuen Narbaitz jaun kalonjea. Oro, hots! Oro, hango itzuliaz atseginekin mintzatzeko, hainbertze aldiz halako bihotz-pilpirarekin⁸² ikusi ginuen Aitaren begitarte sainduaren berritz aiphatzeko. Aiphatzeko orobat Erromako edertasunak, katakonbak, Jondoni Petriren eliza espantagarria, aita jesuixten Ghezu famatua, han eta hemen egin gintuen irriak, Colisée hartako kantu, irrintzina eta jauziak, Chianti eta Freskati, Chemartini gapelua eta ileak eremaiter ziozkan basa-abere dena zango eta lepho zen hura. Asisako

⁸¹ Honainoko testua lehen plaman.

⁸² H. *bihotz-pilpirarekin*.

garratoina, Firenzako⁸³ ximinoa. Funtsean⁸⁴, ximinoa segur gu-
rekin izanen da mahainean, arras ongi egoiten ikasi omen bai-
tio Donaixtiko serora batek! Hoin esku ona dute serorek!

Erromako adixkideak, ez dezakegu urriaren zazpian Do-
naixtiko jaun erretoresaren phesta huts egin. Segur balioko du
joaitea. Gure elgarretaratzea bere kantu ederrez alegeratuko
du Maintenu jaunak eta menturaz Idiartegaray jaunak ere ba
Asisan egin zaukun bezalako mintzaldi hunkigarri batekin,
nun eta ez duten Mattin eta Xalbador pertsulari kopetatuek
arras lotsatzen!

Eta badakizue nor ikusiko dugun oraino Donaixtin? Nicole
Balidet, Jondoni Petriren elizarat gure eskualdun kantuek bila-
razi miarritzar neskatxa hura! Erromarat sehi joan zelarik ez zi-
tuen eskualdunak maite. Orai bai. Guriz Erroman ikusi gaitue-
nak! Egin dezogun atsegin hori Donaixtiko jaun erretores onari
ere ba.

Beraz, urriaren zazpia arte.

ZERBITZARI

BIBLIOGRAFIA

- ADEMA, G. "Zalduby" 1875. *1875an Jubilau urthe sainduan Bazco biharamun eta hirugarrenean Lourdesen eta Betharra-
men Escual herritik pelegrin cirenen orhoitzapena*. Baiona:
Lamainère, 1875.
- AGIRRE, J. M. "Lizardi" 1929. "Donapaleu'ra joan-etorria",
Euzkadi 1929-12-25. "Gipuzkoatik, Donapaleu'ko Joan-Eto-
rria", *Eskualduna*, 27-12-1929; 3-1-1930.
- AGIRRE, J. M. "Lizardi" Lurdes Otaegiren edizioa 1987. "Do-
napaleura joan-etorria" in *Kazetari lanak*, .Erein, 225-232.

⁸³ H. *Frenzako*.

⁸⁴ H. *Fantsean*.

- AGIRRE, D. 1892, 1899. "Juan etorri bat Erromara", *Euskal Herria*, 1892, XXVI, 135-137, 184-185, 205-207, 251-252, 272-274, 394-396, 445-448, 458-464, 553-559; 1892, XXVII, 39-41, 72-76, 104-105; 1893, XXVIII, 237-241, 263-266. — "Ioan-etorri bat Erromara", *Euskalzale*, 1899, III, 90-91, 108-109, 117, 141, 158-159, 175-176, 181-182, 190-191, 203-204, 21-212, 219-220, 231-232, 243-244, 259-261, 267-268, 274-275.
- ANABITARTE, A. 1961. *Aprika-ko basamortuan*. Kuliska sorta 49 zenbakia.
- BARAIAZARRA, Luis "Txarako txoria" (1992): "Melodies basses", *Karmel-3*, 81-89.
- —1997. "Euskaldunak Lisieux-era", *Karmel-2*, 94-108.
- —2007. "Lur santuetara erromes", *Karmel-4*, 80-111.
- BEILARI 1956. "Erromako itzulua", *Herria*, maiatzaren 10, 300 zenbakia.
- CASENAVE, J. 1997. De l'article de presse à l'essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare. Tèse de Doctorat. Université Michel de Montaigne —Bordeaux III. 656 pp.
- DUCK, M. 1891. *Erroma eta Jerusalem Martin Ducq aphezak egina*. Baiona
- DUHOUR, P. 1929. "Erromako itzulua (I)" *Gure Herria*, 19-4-1929; (II) 26-4-1929;
- DUHOUR, P. 1931. *Erromako itzulua*. Imprimerie La Presse. Bayonne.
- ELISSALDE, J. "Zerbitzari" 1955. "Etchepare jaun mirikuaren ohoretan", *Gure Herria* 1955, XXVII, 279-282.
- —1925. "Metsikorat", *Gure Herria*, 1925, V, 53-56, 78-81, 186-190, 250-255, 344-348; 1927, VII, 209-212, 324-327.
- —(a)1956. "Erromarat", *Herria*, Maiatzaren 17-ekoa, 3 eta 4 orriak; Maiatzaren 24-ekoa, 2 eta 4 orriak; Ekainaren 7koa, 3 eta 4 orriak; Ekainaren 14ekoa, 3 eta 4 orriak; Ekainaren 21-ekoa, 3 eta 4 orriak, 1956.

- —(b)1956. “Erromako beilarieri”, *Herria*, buruilaren 13-koa, 318 zenbakia.
- ETXAMENDI, M. 2013. *Urruneko mendebaldean artzain*.
- IZURRATEGI, J. 1923. *Jerusalen osterean semeak amari*.
- MITXELENA, L. 1962. “Agustin Anabitarte. Aprika-ko basamortuan, Kuliska sorta 49'gn. Zenbakia. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz'en, 1961”, *Egan*, julio-diciembre, 1962, 312-313.
- SARASOLA, I. 2003. “Jon Izurrategi” in *Jerusalen-go Osteran amari idazkijak*. Euskal Editoreen Elkarte.
- SARRIUGARTE, I. 2017. “Autobusez. Maite idazle mungiarren kronikak Euskal Herrietatik”, *Karmel*, 2017-4, 28-55).
- VILLASANTE, L. 1966. “Kristoren lurraldera erromes (1)”, *Aranzazu*, 1966, Junio, nº 439, 164-167; (2): Julio, nº 440, 195-198; (3): Agosto, nº 441, 226-230; (4): Noviembre, nº 444; 328-331; (5) Diciembre, nº 445, 359-361. (1967) “Kristoren lurraldera erromes (6)”, *Aranzazu*, Febrero, nº 447, 36-38; (7): Marzo, nº 448, 74-76; (8): Abril, nº 449, 101-103.
- ZUBIRI, E. “Manezaundi” Rosa Miren Pagolaren edizioa 1990. *Artikulu bilduma*, Euskal Editoreen elkarte.

Jabier Kaltzakorta

BOSTAK BAT KULTUR ELKARTEA 40 URTE EUSKARA IKERTZEN, EGOKITZEN, ZABALTZEN

Duela bi urte, Euskaltzaindiak bere mendeurrena ospatzeko antolatuko zenbait ekitaldien artean oso garrantzitsua izan genuen Donostiako Tabakaleran burutu zuen *‘Ingurune digitala, hizkuntzen estandarizazioa eta euskara’* nazioarteko jardunaldia (2019ko irailaren 12an eta 13an). Orduan honako hitz hauekin eman nion hasiera gure taldearen izenean aurkeztu nuen txostenari:

“Euskaltzaindiak eskaintzen didan abagunea baliatuz abalik eta laburren eta argien BOSTAK BAT Kultur Elkarteak 38 urtean egindako lana aurkeztu nahi dizuet. Gure taldeak lau erako hiztegiak egin eta plazaratu ditu: sinonimoen hiztegiak, definiziozko hiztegiak, hiztegi elebidunak eta Euskal Aditza hiztegi eran prestatua.

ADOREZ hiztegi-sorta, zenbait euskaltzalek orain dela 38 urte sortu genuen BOSTAK BAT kultur elkartearen emaitza oparoa dugu. Elkarteko kideok alfabetatze-euskalduntze lane-tan, Euskaltzaindiko ‘D’ eta ‘B’ tituluetarako prestakuntzan eta batzuk Euskaltzaindiaren azterketetarako epaimahaiko lanetan ari ginen. Premiak hurbiletik ezagutzen genituen, bada.

Elkartea sortu eta bi urtera, 1983an eskaini genion euskal gizarteari gure lehen hiztegia izan zen Sinonimoen Hiztegia. Oso gutxik uste izango zuen orduan gure elkarteak euskal-alorrean hain bide luzea egingo zuenik. Hasierako urrats hu-

ra euskal gizartean nabaria zen butsune bati erantzuteko asmoz zetorrelako.”

Txosten horretan aipatzen denaren arabera dagoeneko 40 urte direla ekin zion gure taldeak lanari. Horrela eman genion hasiera hain fruitu ederrak eman dituen gure bideari. Hain zuzen ere orduko txostenean zehazki azaldu genuen lanari, hots, 19 liburuki eta bi CD-k osatzen duen altxor ederrari.

Bestalde, orain dela gutxi, Deustuko Unibertsitatean Euskal Hizkuntza eta Kultura graduko amaiera lanerako lexikografia-ren gaia jorratzen ari den Jose Izeta Balentziaga ikasleak guregana jo zuen BOSTAK BAT taldearen sareko ADOREZ 5.000 hiztegi elebidunaren irizpideak zein diren aztertzeko gogoazazalduz, era berean etorkizunera begira ditugun asmo eta erronkak zein diren azaltzeko eskatuz.

Abagune egokia ikusi nuen hainbeste urtetan zehar eginiko lanari buruzko gogoeta egiteko. Bide batez esan beharra dago orain hari-harira datorkidala egindako gogoeta hori, egin-eginetan ere KARMEK aldizkari honek ematen didan abagunea erabiliz zuen esku jartzeko. Amaieran, gaiaren nondik norakoak argitzeko, gorago aipatu dudana Euskaltzaindiaren ekitaldirako eginiko txostenean jasotzen nituen ondorioak ere erantsiko ditut.

Beraz, jarraian, Jose Izeta Balentziaga jaunak egindako galderei emandako erantzunak jartzen ditut zuen esku, nirekin batera hizkuntzari buruzko hausnarketa egin dezazuen. Hona hemen, bada, itaunak eta erantzunak:

1. Garbitasunaren ideia: hizkuntza guztiek helburu nagusia iraupena ziurtatzea izaten dute. Iraupen hori, jakina, herriaren bizitzari estu-estu lotuta ageri ohi da. Herriek, baina, gehiengutan beste hizkuntza bat duten mugakideekin harremanetan bizi beharra izaten dute. Horrek, jakina, bi hizkuntzen arteko talka sortzen du. Hori horrela, bi aukera izango ditu irau nahal izateko hizkuntzak

- bere-bereak dituen baliabideak erabiliz kontzeptu berriei erantzuteko termino berriak sortzea
- kanpoko herriek erabiltzen dituzten terminoak besterik gabe beretzat onartzea.

Euskaldunok dilema horren pean bizi beharrean izan gara mendeetan zehar, gure inguruko herrietako hizkuntzen eragipean. Bizi-iraupenaren larridurak bultzaturik, une batzuetan hizkuntzak bereak dituen baliabideak gehiegi erabiliz termino berriak sortzeari ekin diogu, beste hizkuntzetatik jasotako maileguak baztertzeko joera indartuz.

Nabaria izan zen joera hori hemeretzigarren mendearen erdialdean hasi eta hogeigarren mendean zehar gerra zibilak etendura sortu zuen arte. Gerrarik izan ez balitz aurreko garbitasun-joerak iraupen handiagoa izango zuen eta, beharbada, une honetan albora utzi ditugun hainbat termino berez-berez erabiliko genituzke.

Euskarak bazuen, hala ere, hainbat termino tekniko hizkuntza klasikoetatik –latinetik eta grekotik– jaso eta erabiltzeko ohitura batez ere iparraldean, Biblia euskaratzerakoan hala egin beharrak ezinbestez bultzatuta.

Euskal gizartean gerraren ondorioz euskararen presentzia publikoa –administrazioan eta irakaskuntzan bereziki– desgertzeak etendura handia sortu zuen. Munduko gerra nagusiak ere iraultza sortu zuen gizartean eta horrek ere hizkuntzaren berez-berezko bilakaerari hainbat oztopo ekarri zizkion.

Hori horrela, euskararen presentzia gizarteko eremu ezberdinetan –batez ere irakaskuntzan– indartzen hasi zen adinean, ezinbesteko bihurtu zen, gaur egungo munduko beste herrietako joerari jarraituz, zientzia alorrean batez ere maileguak onartzeko bidea nagusitzea. Premia ikusirik Euskaltzaindiak berak ere nahiko aspaldi sortu zuen termino mailegatuak aztertzeko batzorde berezia.

Tirabira batzuk izan ziren, jakina, gerra aurreko tradizioaren eragina bizitakoen eta aire berrietan elikatutako jende gazteen artean. Honetan esan beharra dugu inguruko herrietako hizkuntzen –gaztelaniaren zein frantsesaren– eragina hain nabaria eta itogarria izateak zerikusi handia izan zuela jarrera ezberdinen artean. Gaztelaniaz ere bere garaian antzeko tirabirak izan ziren Gongora eta Quevedoren garaietan.

Edonola ere, kontuan hartu behar dugu, bai terminoak sortuz bai maileguak eskuratuz, ezinbestekoa duela edozein terminok jendeak onartu eta erabilia izatea hizkuntzan barnerratuta gera dadin. Hori, jakina, ez da dekretuz egiten, komunikabideen, irakaskintzaren, administrazioaren eta literaturaren eraginez baizik.

2. Hedadura txikiko hitzak: lehen eta behin argitu behar da bi motako hitzak izan daitezkeela hedadura txikikoen artean:

- zientzia zehatz batean, alor mugatuan erabiltzen direnak.
- lurralde bateko txoko batean bakarrik erabiltzen direnak.

Esan beharra dago, bestalde, hizteigileon lana ez dela terminoak sortzea ezta termino horiek besterik gabe, hots, inolako bereizketarik gabe pilatu eta ordena alfabetikoan ematea.

Horrek ikerketa egitea eskatzen du. Hasiera batean taldeki-deok burutu behar izaten genuen ikerketa hori, zenbait iturritatik terminoak jaso eta erabilerarik zabalena zutenak eskainiz.

Alabaina, 60-70-80ko hamarkadetan ikerketa talde ugari sortu ziren Euskal Herrian zehar. Halako taldeak argitara emandako terminoak bildu, beraien artean erkatu eta hiztegian jasotzea izan zen gure lana. Aipatzeko iturriak ditugu honako hauek: Azkueren hiztegia, Plazido Mujikarena, Hiztegia 80, Lino Akesolok zuzenduta argitaratu zen Retanaren hizte-

gia, UZEI-k argitaratutako hiztegi monografikoak, Ibon Sarasolak argitaratutako Hauta-lanetarako materiala, Administrazioako arlo ezberdinetarako egin ziren termino-zerrenda ugariak. Ikastoletarako prestatutako hiztegiak (zortzi urte artekoa, adibidez) edota euskara irakasteko metodoetan ageri ziren terminoak. Guztiak erabili genituen gure hiztegiak hornitzeko. Iturri guzti horien berri zehatzak eskaintzen dira gure hiztegien sarreretan.

Horrela jokatu genuen Euskaltzaindia 80ko hamarkadaren amaieran euskara baturako zerrendak argitaratzen hasi zen arte. Une horretatik aurrera, Euskaltzaindiaren irizpideei jarraitu izan diegu honako terminoak onartuz:

- euskalki baten baino gehiagotan erabiltzen direnak.
- euskalki mailakoak izan arren eremu zabalean erabiltzarenak.
- eremu mugatuan erabili izan arren euskarako termino bakartzat jotzen direnak .

‘Euskara-gaztelania / gaztelania euskara’ hiztegi nagusiek, BOSTAK bat taldeko kideok eginak nahiz ELLHUYAR eta LABAYRU taldeek eginak, lehen fasean Lino Akesolok zuzenduta argitaratua izan zen Retanaren Hiztegian oinarrituta daude. Hori izan zen gure tradiziozko literatura baliatzeko biderik zuzenena eta ziurrena. Hori dela-eta, hedadura txikiko hitz ugari –oraindik Euskaltzaindiak onartu gabeak- agiri dira hiztegi horietan.

Lekuaren marka ezartzeari dagokionez, ADOREZ hiztegitan ez genien apropos markarik ezarri terminoei, horrek norberarena ez zen euskalkiko terminoak bazterrean uztea ekar zezakeelako. Horrela, azken hiztegiak burutu ditugun arte.

Euskaltzaindiak bere hiztegian hala egin duela ikusiz, guk ere datu hori eranstea erabaki genuen. Hala egiten hasi gara, horrela erabiltzaileari erreferentzia gehigarri bat eskainiz.

Euskaltzaindiaren lanen ondorioz, beste aldaketa batzuk ere eransten ari gara, hala nola gramatikari dagozkionak, lehen erabiltzen genituen laburdura batzuk Euskaltzaindiak erabilitakoen arabera jarriz, hala nola, ‘adond/adlag = adb.’; ‘izond./izlag. = adj.’; ‘esap. = lok.’ eta abar.

3. Corpusaren hautua: aurreko puntuan esan denez, guk iturri ezberdinetatik jasotako terminoak bildu ditugu hiztegian. Gaur egun, Euskaltzaindiak bere terminologia-gorputzean guxtienez bi adibide idatzi (tradizio literariokoak) dituen terminoak onartzen ditu bakarrik, salbuespenak salbuespen.

Guk esku zabalagoa erabili dugu. Zenbait kasutan, gainera, adibideak guk geuk prestatu ditugu terminoaren adiera egoikiago aditzera emateko, hots, hiztegia modernoagoa egiteko, gure literatura oso mugatu izan baita historian zehar. Dena dela, oinarritzat Euskaltzaindiaren OROTARIKO HIZTEGIA hartu izan dugu argitaratu zutenetik bertako hainbat adibide erabiliz.

Une honetan Euskal Herrian ahozko corpora –Atlaserako grabaketak eta abar luzea– hainbatean bildua dugunez, horrek guztiak bide emango digu oraindik euskara batuko zerrendetan ageri ez diren hainbat terminori lekua egiteko, batez ere adjektiboetan, aditzetan eta lokuzioetan.

Hori horrela, Euskaltzaindiko euskalkien batzordeak ere proposatuak ditu bizkaierazko 300 terminotik gora batuko zerrendan sartzeko. Edonola ere, aldeztu aurretik terminoak galbahe estutik eralki ondoren, ortografia alorreko nahasteak ekiditeko.

4. Jakintza alorretako terminologia teknikoa: hiztegi orokor batean ezin dira termino tekniko guztiak jaso. Aukeraketa egin beharra izaten da, gizartean gehien erabiliak jasotzeko. Aukeraketa hori egiterakoan, jakina, alor bakoitzean jakintsuak diren pertsonen proposatuak jasoko dira.

Guk, ADOREZ hiztegieta, bereziki *5000 HIZTEGIAN*, leku zabala egin izan diegu termino teknikoei. Hasieratik izan genuen hori argi, euskarak beste hizkuntzek bezala iraupena bideratzeko ezinbestekoa zuelako termino teknikoak bereganatzea.

Horretarako:

- **lehen fasean:** zenbait iturri gogoan genituela, hala nola, administraziorako prestatutako zerrendak, irakaskuntza mailako terminoak, UZEIk prestatutako hiztegieta terminorik erabilienak... lekua egin genien beharrezkoenak ziren milaka eta milaka termino teknikoei. Metodoa: zientzia-alor ezberdinetan jakintsuak ziren pertsonen alor bakoitzean beharrezkotzat jotzen zituzten terminoen zerrenda eskatu genien. Horrela, zerrenda orekatuak prestatu genituen.
- **bigarren fasean:** Euskaltzaindiak onartutako terminoei lekua egin diegu, hala nola, fisika, kimika, astronomia, literatura, administrazio eta abarretarako onartutako terminoei. Honek asko erraztu digu lana, bai beharrezko zuzenketak egiterakoan bai beharrezko bide egokirik erantzuterakoan.

Aurrerantzean, uste dut bide honetatik jo behar dugula, termino-zerrenda egokiak euskara baturako prestatuz. Guk dagoeneko jasotako termino batzuk ez ditu Euskaltzaindiak oraindik batuko zerrendan sartu termino berezituak direla uste izan duelako. Halakoek oraingoz baturako onartuak izan ez arren badute lekuri hiztegi orokorretan, talde berezituak aurkeztuak izan diren adinean.

5. Ulermenaren ideia: Hiztegi orokor batean, jendeak erabiltzen dituen terminoak eta gizarte moderno batean erabili beharreko terminoak jaso behar dira. Gerta daiteke Euskal Herrian inoiz izan ez diren animalia, landare eta halako zenbaiten terminoak jaso beharra, bertako biztanleek inoiz erabi-

liak izan ez arren. Halako askoren berri jendeak pasiboki jaso izaten du, nahiz eta erabiltzeko premiarik ez duelako inoiz ez erabili.

Mundu globalizatu batean bizi garenez, eta hizkuntzak alor oso ezberdinetako premiei erantzun beharra duenez, gaur egungo mundu zabaleko kontzeptu orokorreki dagozkien termino ezagunenak jaso behar dira.

Bertakoak ez diren zenbait terminok, batez ere teknikoek urteak beharko dituzte jendeen artean hedatzeko. Horretan laguntza handia ematen dute komunikabideek (irradi, telebista, zinema, prentsa idatzia) eta irakaskuntzak.

Aparteko arreta eskatzen du ingelesaren eraginak. Honetan, guk, Euskaltzaindiak termino berriak onartzen dituen adinean eramango ditugu gure hiztegietaiko datu-baseetara.

6. Hiztegien mikroegitura: Mitxelena jaunak zioen hiztegiek ahalik eta informaziorik zabalena eta zehatzena eman behar zutela. Dena dela, kontuan izan behar da zer-nolako hiztegiari ari garen. Hemen, badirudi, hiztegi orokorrezi ari garela.

Halako hiztegiek, gaur egun ezinbestekotzat jotzen diren ezaugarri gramatikalak ongi zehaztuta eskaintzeaz gainera, beste zenbait datu gehigarri interesgarri eskaintzea komeni da: hitzen eremu geografikoa (euskalki marka), generoa (gaztelaniaren kasuan), erabilera egokia egiteko adibideak, lokuzioak (hizkuntzaren ezkutuko baliabideak adierazteko), aditzak direnean komunztadura...

Termino bakoitzari buruzko informaziorik zehatzena eskaini behar da, adiera bat baino gehiago dituenen bereizketa ongi eginez. Honetan, guk, gaur egun Euskaltzaindiak proposatutako bideari jarraitzen diogu, bai esanahia eskaintzean bai ordena ezartzean. Inoizka gehitzeren bat edo beste eginez, jakina.

Gure hiztegiak Euskaltzaindiak proposatutako bideetara egokitzen dihardugu. Laster 5000 HIZTEGIA oso-osorik Euskaltzaindiak proposatutakoaren arabera jarrita agertuko da, euskara-gaztelania aldean.

Nabarmentzekoa dugu: Euskaltzaindiak onartutako terminoak kurtsibaz aurkezten ditugula bai euskara-gaztelania aldean bai gaztelania-euskara aldean. Horrela erabiltzaileak argi daki zein den dagoeneko euskara baturako onartua eta zein gure proposamen propioa.

7. Digitalizazioa: zuk diozu *‘paperetik Internetera egindako jauziak bainbat ate ireki dizkio euskal hiztegi gintzari’*, baina egoera larrian jarri ere bai. Orain arte hiztegi gintza-lanari dagozkion prestakuntza-gastuei liburu-salmentaren bidez egin zaie aurre hainbatean. Liburu formatua, batez ere hiztegiarena, jasaten ari den krisialdiak oso zail egiten dute etorkizuna.

Nola ordainduko dira prestakuntza gastuak, internet bidezko eskaintzak dohainik izanik? Ikerketa alorrean Euskaltzaindiak eta Unibertsitateko eremu ezberdinetako taldeek badituzte eskura zenbait baliabide. Hala izan behar du, gainera, euskarak aurrera egin dezan gizarte moderno honetan.

Horrela aztertu eta onartutako terminoak jendearen esku jartzeko, alabaina, hiztegi orokorrak behar dira. Eta horrek, jakina, egokitzen lan astuna dakar aldean. Lan hori egiten dutenek ere bizi beharko dute, ezta?

Bestalde, digitalizazioak informatikaren beharra ere badu. Programa egokia egin beharra, bai prestatzaileen lana errazteko bai egiten den lan hori eroso eta epe laburrean jendearen esku jartzeko. Programak interneten edukitzea ere kosturri izaten da, halakoen kotak eta ordaindu behar direlako.

Aurrerantzean oso zaila izango da, zoritxarrez, liburu gisa hiztegiak argitaratzea. Akats informatikoren bat gertatuz gero, material ugari galtzeko arriskua izango da. Liburu forma-

tuan argitaratutako hiztegiak iraupena eskaintzen du. Hau ere kontuan hartu behar dela uste dut, geroago eskaner bidez halakoak berreskuratzeko bideak eskura izan daitezkeelako.

Jarraian, bide batez egiten dizkidazun galdera laburrei erantzutera noakizu:

- *Zein egitasmo berri daude martxan etorkizunera begira?* -Gure helburu nagusia, euskara batua gorpuzten den adinean, normalizatzen diren terminoak egoki traturik jendearen esku era errazean jartzea da
- *Nola aldatzen dute hauek hiztegiaren kontzeptu tradizionala?* - Zer esanik ez, paperezkoena zeharo murriztua geratuko da. Kontuan hartu behar da, gainera, paperezkoak muga estuak dituela eta askoz ere datu gutxiago eskaintzeko aukera ematen. Orrien kopurua eta prezio publikoak hainbatean baldintzatzen dute hiztegiaren edukia. Ahalik eta daturik gutxien eskaini behar izaten da, hiztegi handiegiak ez egiteko. Digitalizazioak duen abantailarik handiena edukiari mugarik ez ezartzea da. Nahi den beste adibide eta lokuzio jar daitezke. Ez du mugarik eta horrek zehaztasuna areagotzea ekar dezake.
- *Zein erronka berri aurkituko ditugu? Nola egingo diegu aurre?* - Une honetan guk hiru datu-base ditugu internet bidez eskaintzeko prestatuak: euskara-gaztelania/gaztelania euskara (5000 Hiztegia), SINONIMOEN HIZTEGIA eta definiziozko hiztegia. Azken hau oraindik interneten jarri gabe, orrazketa fasean baitugu. Horri *Aditzaren hiztegia* erants diezaiokegu. Hau ere orrazketa fasean dugu.

Gure erronka berria eginak ditugun datu-base guztiak internet bidez batera kontsultatu ahal izatea dugu. Edozein ter-

mino eskatuz (aditz formak barne) erantzun globala jasotzea, behin bakarrik eskatuta. Guzti horrek informatika-programa bereziak prestatzea eskatzen du.

8. Nolakoa litzateke zuretzat euskal hiztegi ideal bat?: argi gerra bedi internet bidez eskaintzen denaz ari garela. Hori abiapuntutzat hartuz, niretzat hiztegi ideala, termino bat (aditz formak barne) eskatuz berehala eskatuari buruzko informazioz zabaleta eta, era berean, errazena eskaintzen duena litzateke. Erraztasunak garrantzi oso handia du, nire irudiko. Behar bada hori dela eta izaten ditugu interneten hiru milioitik gora kontsulta urtero.

Balio erantsia hartuko luke eskaintzak, gaur egun eskura ditugun baliabideak erabiliz irudiak ere erantsita izanez gero edota bide batez ahoskera jatorra irakasteko terminoak nahiz esaldiak ahoskatzeko programa gehitua izango balu, hots, guk gaur egun erantsia dugun ahoskera sistema osotasunera eramenez.

Azken oharra: une honetan datu-basearen kontrola neure esku izan arren, argi geratu behar du gure hiztegi gintza talde-lana izan dela, ez bakarrik *Bostak Bat* osatzen dugunon lana. Gure liburuen sarreretan aitortu izan dugunez hainbat pertsonen parte hartu dute -batzuk gehiago beste batzuk gutxiagorekin lana burutzen. Guztiei esker onaz aparte, aitortza zor diegu”.

Eranskina:

Hasieran aipatu dudanez, Donostian izandako Euskaltzaindiaren jardunaldian BOSTAK BAT taldeak burututako lanaren emaitzak aurkeztu nituen taldearen izenean. Han jendaurrean jarritako txostenaren azken lerroak hona ekarri nahi ditut, zuen esku jarri dudana gogoetaren osagarri izan daitezkeelako.

“BOSTAK BAT kultur taldearen lorpenak:

1. Euskarazko lehen Sinonimoen hiztegia (1983).
2. Euskarazko lehen definiziozko hiztegi orokorra (1986). Aurretik ‘Batasunaren Kutxa’ oso mugatua.
3. Euskaraz internet bidez eginiko lehen eskaintzak. (3000. hiztegia eta sinonimoak).
4. Euskarazko lehen CD-ak: 3000 hiztegia / 3000 Eskola Hiztegia.
5. Lehen aldiz femeninoaren tratamendu orokorra (3000 hiztegian eta ondoko guztietan).
6. Jendeari ezagutzera emateko Euskaltzaindiak onartutako terminoak kurtsibaz berezita eskaintzea, 2002tik aurrera argitaratutako hiztegieta.
7. Aditza hiztegi gisa tratatzea (euskalkien eta batuaren arteko zubia eginez).
8. Aparteko arretaz landu ditugu euskalkietako terminoak, batez ere Bizkaikoak eta Iparraldekoak.
9. Unibertsitatearekin lankidetzan lortuta, sarrerako terminoak ahoskatuz entzun daitezke.
10. Auzolanean jardutea: BOSTAK BAT kultur taldeko ki-deok (Txomin Solabarrieta, Luis Baraiazarra, Patxi Uribarren, Juan Luis Gokoetxea, Rikardo Badiola, Gotzon Aurrekoetxea) lankidetzan aritu gara. Gurekin ibilbide luze horretan beste 56 pertsonak (irakasleek, itzultzaileek, zientzialariek, informatikariek, marrazkilariek, administrazioari...) parte hartu dute, nor bere eremuan jardunez. Hiztegieta aipatzen dira guztiak banan-banan.

Informatika alorrean:

- *5000 Hiztegia* eta *Sinonimoen hiztegia* Internet bidez eskainiak ditugu.

- Euskaltzaindiak onartutako terminoak hiztegiaren alde bietan kurtsibaz emateko programa berezia dugu.
- Word-en lan egin eta datu-basera datuak egokiro eramateko programa berezia. Programa honi esker, word-ean lan egin daiteke eta amaitzean, lan osoa golpe bakarrean basera sartu, modu egokian sailkatuz informazioa.
- Programa horrek berak zuzenketak egiteko aukera eskaintzen du, akatsak non dauden aurkitzen laguntzen baitu. Zuzenketa egin eta berehala agertzen da zuzenduta interneten.
- Hiztegi guztiak kontsulta bakarrean eskaintzeko programa (aktibatu gabe).
- Sakelako telefonoz eta tauleta bidez eskaintzeko programa (aktibatu gabe).

Hiru harribitxi: Internet bidezko gure eskaintza zabalaz batera, hiru harribitxi ditugu merkatuan:

- a. *Sinonimoen hiztegia*. Antonimoduna (Adorez 14. 2013).
- b. *Eskola Hiztegia*. Irudiduna. Berriztatua, eguneratua (Adorez 15. 2014).
- c. *3000 hiztegi praktikoa*: hiztegi batua era didaktikoan (Adorez 16. 2018).

Azken gogoeta:

Hiztegitantza gaur egun zeharo defizitariora da. Herritarrek dohainik jaso nahi dituzte internet bidezko zerbitzuak. Euskaltzaindiak euskara baturako terminoak onartu ahala, hiztegitan islatu beharra dago. Horrek lan etengabea eskatzen du termino horiek egokiro tratatuz hiztegitan txertatzeko.

Herri erakundeek kontuan izan beharko lukete hau, beharrezko diru-laguntzak emateko, esaterako ikastetxeetako gela guztietan hiztegi eguneratuak izatea bideratuz edota irakasleei halako hiztegiak eskuratzeko laguntzak emanez.

Nori berea Jainkoaren legea. Esker onez aitortu behar diogu ELKAR fundazioari, gure ibilbide luzean eman digun babesa. Baita Bizkaiko Foru Aldundiari deialdi publiko bidez emandako laguntza. Euskaltzaindiak azken 30 urte hauetan argitara emandako zerrenda eta informazioek ere hainbatean erraztu digute lana.

Eskerrik asko pazientzia handiz entzuteagatik.”.

Besterik ez. Gaurkoz nahikoa!

Patxi Uribarren Leturiaga

BOSTAK BAT kultur elkarteko kidea.
Markinan, 2021eko martxoan.

**SAN JOAN GURUTZEKOREN
“IDAZLAN GUZTIAK” LIBURUAREN
ETA GONTZAL MENDIBIL-EN “SAN JOAN
GURUTZEKOREN POEMA MUSIKATUAK” CDAREN
AURKEZPENA**





San Joan Gurutzekoren “Idazlan guztiak” liburuaren eta Gontzal Mendibil-en “San Joan Gurutzekoren Poema musikatuak” CDaren aurkezpena, *Julen Urkiza*.

Ekainaren 14an, eguerdiko hamabietan, Euskaltzaindiko aretoan aurkeztua izan zen San Joan Gurutzekoren “Idazlan guztiak” liburua, euskaraz egina Luis Baraiazarraren itzulpenaz. Eta liburuarekin batera doa Gontzal Mendibil-en “San Joan Gurutzekoren Poema musikatuak” CDa. 13 poema hautatu musikatu ditu. Lan biribila aurkezten da: alde batetik Joan Gurutzekoren lan klasikoak euskaraz, eta bestetik poeta han-

diaren zati batzuk euskal kutsuz abestuak; dena euskararen eta kultura mistikoaren lekuko gisa.

Lan handia Markina-Xemeinen egina da, Karmengo Amaren komentuan; bertan ateratzen dira *Karmel* aldizkaria, *Karmel sorta* liburuak, *Karmel Lekukoak* sorta, etab. Bertan bizi dira eta lan egiten dute hiru euskalzainek (bat Euskaltzain osoa da eta beste biak ohorezkoak). Hemen euskal kultura, batez ere euskararena, kultura erlijiosoa eta Karmengo Ordenako kultura, historia eta espiritualitatea eskutik doaz, Euskal Herriaren zerbitzurako.



Liburuaren eta CDaren lehenengo aurkezpena Euskaltzaindian egitea zela egokiena uste genuen, batez ere kazetari eta hedabideentzat, egindako lana ezagutzera eman behar baitzen.

Baina zenbait egun aurretik, **Gontzal Mendibilek** idazlan labur bat argitaratu zuen Arratiako “Begitu”n bizkaieraz; liburuaren aurkezpenari sarrera edo giro ona prestatu nahirik; izenburu hau eman zion: “Luis Baraiazarra, poeten poeta”:

“Luis Baraiazarra karmeldar idazlea, itzultzailea eta poeta dugu, eta bere azken lan eder-sendoan, poetaren poeta dela esan dezakegu. San Joan Gurutzekoren idazlan guztiak, prosa eta olerkiak euskaratu ditu poetikotasunaren sentsibiltate fina erakutsiz.

Hala ere, orain lau urte pasatxo, Santa Teresa Jesusenaren idazlan guztiak gaztelaniazko originaletik euskaratzeagatik Espainiako kultura ministerioak lehenengo saria eman zion, komunikabideetan zabaldu zenez. Baina bertan behera utzi zuten erabakia.

Lan hori, antza, oinarrietatik kanpo zen. Itzulpena, hizkuntza arrotz batetik Espainiako hizkuntza ofizial batera itzulia izatea eskatzen zen oinarritan; hau, berriaz, Espainiako hizkuntza batetik (gaztelaniatik) Espainiako beste hizkuntza batera (euskarara) egin izan zen. Eta, nola liteke euskara espainiar hizkuntza nazionaltzat hartu eta euskal kultura Euskal Herritik kanpo inon ez azaltzea? Espainiak kultura desberdinak dituela adierazi eta euskal kultura eta euskara dagoenik ere ez aipatzea? Nola liteke euskara espainiartzat hartu eta hutsaren hurrengotzat hartzea?

Meñaka bere herrian, omenaldia egin zioten Baraiazarrari eta han zegoen Arkaitz Estiballes, “Espainian maite ez badute ere, Luis Baraiazarra eta berak egindakoa, guk maite dogula zioskun bertso ederrez”. Luis, garai batean bertsolari txapelke-





tako epaimahaiko izan zen eta berak jarri zion txapela Arkaitzi lehen aldiz Bizkaiko txapeldun izan zenean.

Eta, poemetara etorri, poema on batek, edertasuna eta esanahia izan behar ditu. Bada, oraingo honetan, jatorrizko bertsioak dituen metrika eta errimen konbinazio berberaz euskaratu ditu Baraiazarrak, gure hizkuntzaren sen eta soinurik ederrenean. Poema horiek euskaraz irakurriz batera, benetan nire harridura, hain gozo eta ederrezko itzulera eskaintzen zaigula ikustean.

Juan de Yepes (San Joan Gurutzekoa) Kartzeleratua izan zen eta hantxe idatzi zituen bere poema eder gehientsuenak:



“Neugan bizi gabe biziz/ hain nago goi-bizi minez/hiltzen bainaiz hil ezinez”.

Zigorraren epaia gogorra izan zuen, ziega ilun eta estu batean giltzapetu zuten zortzi hilabete baino gehiagoz. Isolamendua, zigorra eta barrotea egokitu zitzaizkion, eta abandonu egoera batean, beste batzuk erabateko hondoratzerara eta eromenera eramango lituzkeenaren erdian, amodiozko poesia goren-gorengoak idatziko zituen: Kantu Espiritualeko lehen 31 ahapaldiak (protokantikoa deritzona), aldi berean Erromantzeak eta Betiko iturria (Eterna fonte) izeneko poema tarteetan. Unibertsorearen erdigunetik isurtzen den maitasun edo argiztapen iturria edo existentziari darion bizitza, lekurik ederrera, egiazkoena, bizi-lagunartea duguna, argitzen duen iturria.

Beti bilatu izan zuen edertasunaren eta egiaren iturria bere arima oinazetuan eta halaber, bere abentura mistikoa ezarritako arauen urratzea izan zela esan dezakegu.

*“Jatorririk ez du eta nik ez dakit,
baina bai dena datorrela hartatik,
gaua izan arren.*

*Ongi dakit lur gainik ez dela
eta inork igaro ezin duela
gaua izan arren. “*

Samurtasun orotan eta bertute eta desira biziz hornitzearen, fedez eta esperantzaz bizi zenean, nahiz eta ulergaitzatasuna sufritu, beti izan ziren bere aldetik ausardiazko lekukotasunak, eta gau ilunak bakardade eta desolazio sentimendua deskribatzen dituen arren, horretan jasan zituen oposizio eta oharpenengatik, beti ere amodioa desiratzat eta gorakadatzat



izan zuen bere esperientzian, edertasunaren zaporean sentitzen zuenarekin bat eginez:

*“Oi maite-gar bizia,
eztiki jo obi duzuna
nire ariman sakonen den partean!
Ez baitzara aurkako ja
Nahi baduzu urra ehuna;
Elkar gaitezen balako batean!”*

Halakoxe poema ederrak idatzi zituen San Joan Gurutze-koak, oraingoan Luis Baraiazarrak euskara ezin hobean itzu-

liak. Ohorea Luis, zuk hain eder eta gozo itzulitako poema hauek musikatzea. Zorionak Poeten poeta!”

Aurkezpenaren ekintza

2021ko ekainaren 14an

Aretoa ondo prestaturik, han ziren aurkezleak, Eusko Jaularitzako kultura eta Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari-agintariak, gonbidatuak eta kazetariak, bakoitza bere lekuan, pandemiako arazoengatik behar den distantzian jarriak... Eta aurkeztu behar ziren liburuak mahai gainean.

Baina ekintza hasi aurretik, Plaza berrian kazetariak beren lanari ekin zioten: elkarrizketak bideratzen, galdezka eta jakin nahian. Euskal Telebistakoak han ziren Luis Bariazarrari eta Gontzal Mendibili elkarrizketak egiten.

Laster agertu ziren Euskal Herriko eta Bizkaiko kultura arduradunak, eta orduan batez ere argazkilariak beren lanean ari ziren ezin argazkia egin eta egin... zorionak eta irribarreak banantzen...

Gero, Euskaltzaindiko aretora sartu ziren; bakoitzak bere lekua hartu zuen, distantziak ondo zainduz eta harmonian.

Orduan **Andres Urrutiak**, Euskaltzainburuak, agurtu agur egin zien guztiei. Ekintza honen garrantzia aspimarratu zuen, Luis Baraiazarraren itzulpen handia eta Gontzal Mendibilen “San Joan Guruzekoren Poema musikatuak” goraipatuz.

Eta hizlariei banan-banan hitza ematen hasi zan, hitzaldiak oso laburrak izango ziren.

Lehenengo **Lontzo Zugazagari**, Bilboko Elizbarrutiko Euskara saileko arduradunari, eman zion hitza. Eta honek bere mezu laburra honela azaldu zuen:





“Joseba Gotzainak esan eustanean ea prest egongo nintza-
kean ospakizun honetan bera ordezkatzeko, pozarren jaso
neban konbidapena.

Izan be, aspalditik, oso hurko dot Luis Baraiazarra; hurko
egiten jat Gontzal Mendibilen musika eta kantaera; oso gogo-
ko dot San Joan Kurutzekoaren poesia mistikoa; beti maite
izan dot musika eta barru-barrutik maite dot gure euskera.

Maitasun guzti horreen soka lotuta, dantzari iatort gogora
"Kantu Espiritualaren" 36. ahapaldi gozoa. Bertan holan dino
Emazteak:

"Goza dezagun Maite,
Ederretsiz zure itxura iaioan
Mendi eta mendi arte
Ur garden jarioan;
Sar gaiten barneragoko giroan".

ZORIONAK, Luis eta Gontzal, eta eskerrik asko!

Poesiaren sakona ahusnartuz,
Eta kanturaren barrukotasuna gozatuz,
Sartu gaitezkan Itsaso eder horretara
Bertako olatu erakargarrietan kulunkatzera".

Gero **Lorea Bilbao**, Euskara, Kultura eta Kirol saileko foru
diputatuaren txanda izan zen. Honela adierazi zuen ekintza
honetako mezua:





“Euskara, sorkuntza, euskarazko sorkuntza sustatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren lan lerroetakoa da, berebiziko garrantzia duena gainera, beraz gaur aurkeztan den obra bikoitz hau, **itzulpen lana eta poema musikatua**, lerrokatuta dago Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren izatearekin eta helburuekin.

Are gehiago kontuan hartzen badugu San Joan Gurutze-koaren obrak oro har kulturari eta bereziki literaturari izan duen eragina.



Itzulpen lanari dagokionez, *Luis Baraiazar* egindako **itzulpen lana neurri baten epikoa** dela esan liteke, obra mar-

dul hori euskarara egokitzeak eskatu duen ahalegin handiagatik. Horregatik, ba, goraipatzekoa da lana.

Luis Baraiazarrari esker, Literatura unibertsaleko klasikoe-tako bat euskaraz gozatzeko aukera daukagu.

Horregatik ba zoriontzekoa da eginiko itzulpen lana, meritu handikoa, baina gainera, *Gontzal Mendibilen* musika-ezagutzari, sensibilitateari eta lanari esker eta bere poemak entzun ere entzungo ditugu, San Joan Gurutzearen obra musikaren bitartez gozatzeko aukera emanez.

Horrelako lanak euskaraz izateak hizkuntza bera sendotu egiten du, gure hizkuntza elikatu egiten du, aberastu. [...]

Literatura, musika eta ikus-entzunezko disziplinak landu dituen egile oparoa dogu Gontzal eta *San Joan Gurutzekoaren* poema lanak musikara ekartzeko ausardia eta gaitasun profesional handia erakutsi du.

Artisautza poetiko musikala bezala deskribatu dozue lana eta horixe da, horrek ematen dio aberastasun handiagoa lan honi, disziplina artistiko ezberdinen fusioa: itzulpen lan ikargarria, poesia eta musika euskaraz”.

Ondoren, Euskalatzainburuak **Bingen Zupiriari**, Eusko Jaur-laritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, eskaini zion hitz batzuk esateko aukera. Eta honek maisutasunez azaldu zuen bere pentsamendua:

“Luis eta Gontzal eskerrik asko zuena den egun honetan zuekin egoteko aukera eman diguzuelako.

Nik nahiko nuke, eta seguru nago bai Andres Urrutia Euskaltzainburua eta bai Lorea Bilbao Euskara eta Kultura diputatua bat etorriko direla nirekin, nahiko nuke gaurkoa ez izatea aurkezpen ekitaldi bat eta nahiko nuke izatea omenaldi-ekitaldi bat.





Omenaldia itzultzaile nekaezinari eta omenaldia kantariari.

Itzulpengintza eta kantagintza, bi-biak dira gure kultur ondarea osatzeko behar beharrezkoak ditugun arloak.

Ederki aipatu du Loreak itzulpengintzaren garrantzia. Batez ere gurea moduko hizkuntza-komunitate txiki batean, bai beste mundu batzuetara iristeko eta baita ere beste mundu eta hizkuntza batzuetan sortutakoak geurera ekartzeko.

Lan handia egin da gure artean itzulpengintzaren arloan, baina ahalegin handiagoa beharko genuke eta, batez ere, irakurleen konpromisoa beharko genuke.

Zentzu honetan, Luis Baraizarraren eskutik San Joan Gurutzekoren lanak osorik eta euskaraz jasotzea gure ondarea aberasteko modu izugarria da.

Gure kultura txiki honek izan du kulturaren eta ondarearen ezagutzan bidelagun talde bat, eta esango nuke horiek abeslariak izan direla. Seguruenik euskaldun askok Etxepare-ri, Lizardiri, Lauaxetari...eta beste hainbat idazleri buruz daki-guna ez genukeen jakingo tartean kantariak izan ez balira.

Euskal kantagintzak sorkuntza lanaz gainera bidelagun lana egin duelako hainbat eta hainbat idazle nagusiren testuak eta idatziak ezagutarazteko. Eta kasu honetan ere, euskara ederrera itzulitako San Joan Gurutzekoren lanak musikaren bitartez jasoko ditugu askok eta askok eta horrela iritsiko gara ezagutza hobe bat izatera.

Eta guzti honen emaitza bezala geratuko da gure kultura ondarea aberastuta.

Horregatik iruditu zait garrantzitsua gaurko hau ez izatea aurkezpen ekitaldi soil bat, eta bihurtzea denon artean Luis Baraizarrak eta Gontzal Mendibilek merezi duten omenaldia.

Zorionak bioi eta eskerrik asko, jaun-andreok".

Gero **Gontzal Mendibil**, musikariak, beronek musikatutako Joan Gurutzekoren poema bat abestu zuen: "Neugan bizi ga-be biziz / hain nago goi-bizi minez/hiltzen bainaiz hil ezinez". Setimentuz beterik abestu zuen, entzuleen gozamenerako. Ondoren berak azaldu zuen, Luis Baraizarrak itzulitako bertsoak oso egokiak zirela abesteko, eta hain ondo egindako bertsoak musikatzeke bere lana asko erraztu ziotela. Gontzalek agertu zuen nola miresten zituen hain miragarri lortutako bertsoak.





Azkenik, Andres Urrutiak itzultzaileari eskatu zion bere lan handiaz azalpen labur bat eman zezala. Eta **Luis Baraiazarrak**, itzultzailea eta ohorezko euskaltzainak, ideia hauek adierazi zituen:

“Joan Gurutzekoren idazlan guztiei ekiteko, ez dugu inolako urtemugarik izan bultzaka ez zirika. Oraingoan, bi Teresen (Lisieuxkoaren eta Avilakoaren) idazlan guztiak argia ikusiak izanik, Joan Gurutzekoren hutsunea genuen euskal letretan. Horrek min ematen zigun eta dei egiten barruan: ez al gara gauza izango mistiko eta poeta handi honen oihanean barneratzeko? Bestalde, Teresa Avilakoaren argitalpenaren eta Madrilen gertaturikoaren ondoren, eskarmentua eta abiada harturik gentozen.



Kontrako topikoak atzean uzten ere saiatu ginen; airean arnasten direnak: ez duela merezi halako zamak norbere gain hartzea; literatura klasikoa hizkuntza originalean irakurri behar dela; zentzuzko arrazoi-itxuran agertzen, baina izatez ezer ez egiteko aitzakia besterik ez direnak; eta, egin-eginean ere, san Joan Gurutzekoz ari zela irakurri izan dut, honen lanak ez direla edonork irakurtzekoak eta hainbat zatitxo errepikatzen dituela; hobe dela lan hautatuekin antologia eder bat egitea... Kolpe honek ia makurrarazi ninduen, baina jaiki eta hau otu zitzaidan: ez, baina Joan Gurutzekoren obra osoa, bere errepikapen, ilungune eta guzti dela ederra, garrantzitsua eta ez dugula euskaldun espiritual eta irakurle prestuari hori



zertan ukaturik, mahaipera erortzen diren haren doktrinaren ogi-birrinak eta poesiaren gozoki bakanak eskainiz.

Euskarari egiten zaion ekarpena da, nire ustez, gako nagusia: barne-munduaz, psikologiaz, barruan gertatzen denaz, Jainko-maitasunaz (azken batean, giza maitasunaz) inork ez du hark bezain ongi, gozo eta dotore idatzi. Hori guztiori euskarara ekartzea ezin ederragoa litzateke. Barne-altxor horren bila saiatu gara geure indarrez eta argiz eta Espiritu Santuari eskatuz, bila genbiltzan altxorra oso preziatua baitzen.

Itzulpen honetaz ere S. Teresaren sarreran idazten genue-na bera idatz daiteke, izenak aldaturik: “Itzulpena esaten du-gu, hitz bakar batez eta nolabait adieraztearren; baina itzulpen soila baino gehiago eskatzen zaigu: san Joan Gurutzeko euskalduntzea, geurera ekartzea, erdal urak euskal ur bihurtu-rik, gure uharkara eta gure moldeetara bideratzea. Bestalde, honelako lan bati ekiten diogunean, apurka-apurka eta ia konturatu gabe, pertsonaiaren barruan sartzen gara, edota pertsonaiak berak hartua ikusten dugu geure burua”.

Poesien itzulpenaz zerbait esan nahi nuke. “Joan Gurutze-ko euskal letretan” izeneko atalean haren poesiak itzultzen eta euskaraz lantzen saiatu diren euskal idazleak aipatu ditu-gu. Gure itzulpen honetan ekarpen berezia egin nahi izan diogu euskarari: Joan Gurutzekoren poesia guztien bertsio berri-berria; originaleko metrika bera eta bertso-lerroen konbi-nazio berberak erabiliz; esaterako, haren poema nagusiak *lira* izeneko metrika-moldean eginak daude, eta euskarara ere metrika-molde berean itzuli ditugu eta konbinazioak ere origi-nalean datozen bezala ematen ditugu. Beste ohartxo bat era-bili den terminologiaz: originalean *estrofa* eta *verso* agertzen dira, hurrenez hurren *ahapaldia* eta *bertso-lerroa* adierazteko. Jakina, euskaldunon bertso-tradizio herritarrean *bertsoa* eta *ahapaldia* sinonimoak dira; beraz, gaztelaniazko *verso* adie-razteko *bertso-lerroa* erabiltzen dugu”.

Amaieran **Euskaltzainburuak**, agur egin aurretik, liburuaz zenbait gogoeta azaldu zituen. Ondo dator jakitea, berak idatzi zuela liburuaren hasieran doan "Aitzinsolasa", testu laburra:





“Luis Baraiazarra adiskideak ondu duen *San Joan Gurutze-koaren lan guztiak* euskaratzeko lana. Aspalditik ezagutzen dugu Luis Baraiazarra itzultzaile aparta, hitzak baino, testua- ren doinuari eta musikaltasunari arreta berezia ematen diena, egilearen nondik norakoak azpimarratuz.

Aldez aurretik ere entzunak izan dira San Joan Gurutze-koaren lan batzuk euskaraz, *Orix*e zenaren eskutik eginak eta gerora Imanol abeslariak grabatu eta gizarteratu zituenak.

Oraingoan, alabaina, beste doinu berri batez datozkigu, euskararen muina eta idatzia, *Lizardik* aurreratu legez, asko aldatu baitira azken berrogeita hamar urteetan. Hartara, Luis Baraiazarrak euskara estandarra erabiliz moldatu ditu testu hauek eta hala egiteko tenorean, San Joan Gurutzekoaren *Idazlan Guztiak* hartu ditu abiapuntu eta helmuga, nondik norakorik zabalenak lotuz bere ahaleginetan.

Horren ageriko froga da argitalpen honetan barruraturiko hainbat testu, musika eta guzti, hurbileko etorkizun batean ahots eta musikaz esku-eskura izango ditugunak. Badu horretarako dohain berezia Luis Baraiazarrak eta etengabe erakus-





ten dio hori euskal irakurleari. Egin ere, hala egin zuen Santa Teresa Jesusenaren testuekin, lan hartan moldatu baitzuen testu bikaina, sariak eta omenak ekarri dizkiona.

Gutziz azpimarratzekoa da oraingo hau ere, osotoro biribiltzen baititu Karmeloko Santa Teresa Jesusenaren eta San Joan Gurutzekoaren testuak euskarara ekartzeko aldarteak. Norabide ere ziurra izan du itzultzaileak edo hobeto esanda, olerkari-itzultzaileak, behar-beharrezkoa baita zinezko sen poetiko euskalduna tankera honetako lanak zertzeko eta, batik bat, euskarazko testuak esan dezan jatorrizkoak esaten duena baina janzkera berriaz apaindua. [...].

Traduktologia on baten jabe izan behar du itzultzaileak eta hortxe agertzen da, maisukiro, Luis Baraiazarra, euskal letren zizelkaria. XVI. mendeko gaztelania klasikoaren jabe eta XXI.

mendeko euskaldun irakurleari iraganeko urrezko letra horiek euskara dotore eta gaurkotu batez eskaintzeko gai da Luis Baraiazarra, jatorrizko idazkerari zor zaion xehetasun txikiena ere kendu gabe.

Seguru nago bide beretik joanez, tankera bertsukoak eskainiko dizkiela Luis Baraiazarrak irakurle euskaldunei, eta holakoetan izango dituela azken horrek esku-eskura eta euskara ederrean, behinola gaztelaniaz irakurri zituen bertso haiek, abeslari askoren emanaldietan entzun dituenak eta bertiko geratu zaizkionak oroimenean, *Vivo sin vivir en mí/ y de tal manera espero/ que muero porque no muero*. Hona hemen euskaldunen hizkuntzaz emanak, *Neugan bizi gabe biziz/ Hain nago goi-bizi minez/ Hiltzen bainaiz bil ezinez*.

Bizi dadila luzaroan gure artean halako trebetasuna, halako euskara eder eta espiritu altxagarria! Mila esker, Luis, eta hurrengoaren esperantzan! Eskerrak eta goresmenak orobat *Karmel* aldizkariaren eta argitaletxearen adiskideei, behin eta berriro erakusten dutelako halako kementa eta adorea, euskararen bidez tankera honetako maisulanak plazaratzeko, gu guztion gozamenerako!"

Ekitaldia amaiturik, pozez elkar agurtzeko aukera izan zen, bai eta zorionak emateko ere. Han jarraitu zuten argazkilariak lanean... Eta elkarriketak han eta hemen; eta bitartean Luis Baraiazarra eta Gontzal Mendibil beren lanak sinatzen ari ziren.

Aurkezpena, ekintza laburra, ordu erdikoa, izan zen, ego-kia eta atsegina..

Julen Urkiza



SAN JOAN GURUTZEKOREN "IDAZLAN GUZTIAK" LIBURUAREN ETA GONTZAL MENDIBIL-EN
"SAN JOAN GURUTZEKOREN POEMA MUSIKATUAK" CDAREN AURKEZPENA



JOSEPH RATZINGER / BENEDIKTO XVI.A

Joseph Ratzinger / Benedikto XVI.a punta-puntako teologoa danik inork ezin dau ukatu. Alemaniako Unibertsitate entzutetsuetan (Bon, Tubinga, Münster, Ratisbona) irakasle katedradun ohia. Vatikanoko II. Kontzilioan parte hartu eban teologo gazteena, Josef Frings kardinalaren teologo aditu lez. Beronek idatzi eutsozan, Kontzilioan zehar, Koloniako kardinalak egindako hitzaldi guztiak. Baita teologia gaietan idazle oso ugaria ere badogu Ratzinger. Bere idazlan guztiak, hamaisei liburukitan, argitaratuta dagoz alemanez. Beste hainbat hizkuntzetara itzultzen be ari dira. Erderaz, BAC argitaletxeak dihardu ardura horretan. Jadanik hamaika tomo mardul-mardulak kaleratu ditu.

Azkenengoa, gabonetan heldu jatan eskuetara. Berau gus-tura irakurtzen nenbilela, berton non agertzen dan Ratzingerren hitzaldi batek emon eustan benetan atentzinoa. Deigarri apartekoa esango neuke. Batetik Ratisbona Unibertsitateko ikasleak eskatutako gaiari buruz zalako hitzaldia eta bestetik, gaiak erantzun oso pertsonala eskatzen ebalako. Galdera gisa jarritako gaia hauxe zan: Zergaitik oraindino Eleizan jarraitu?

Kontzilio ondorengo urteetan, hainbat eztabaida eta tirabira sortu ziran Eleizaren barnean. Zelan barriztatu Eleiza? Hori zan helburua. Taldeka edo bakarka, hangoak eta hemengoak, goikoak eta behekoak, arituko dira Eleiza barriztatzen. Borro-karako gogoa ere ez zan falta. Askotan Eleizaren enborrari oratu beharrean, adarretan geratuko dira. Hainbat esperientzia

barri sortu ziran. Jo eta ke, talde baxotxa bere neurriko eleiza-
txoak egiten. Urliaren edo berendiaren kasako “txokotxoak”
zirudien, baina ez Kristoren Eleiza.

Aldi horretan, eleiz gaietan buru belarri sartuta ebilen kaze-
tari batek galdetu eutson Kalkutako Ama Teresari: - “Zelako
barrikuntzak behar ditu Eleizak?” - “Zu eta ni, biok hobeak
izateteko barrikuntzak”!

Asko eta asko, egiazko Kontziloaren aldekoak nahiko lan
isilean. Beste asko, eurek asmatutako kontzilio “birtuala”ren
aldekoak, baina komunikabideetan indar handia eukenak.
Gehienak neomarxistak eta neoliberalak. Hori bai, “Kontzi-
lioaren espiritua”, ikurrintzat hartuta, behin eta barriro, azpijo-
koz Vatikanoko III. Kontzilio barria eskatzen ebenak. Euron hel-
burua Eleiza desegitea. Eta beste mordo bat, Vatikanoko II. Kon-
tzilioaren oso kontrakoak.

Paulo VI.a Aita Santuak berak be, Eleizaren fedea irmo au-
tortu beharrean ikusi eban bere burua. Kristogandik hartutako
kargua beteteko ordua zala, hau da, “senideak fedean sendo-
tzeko mandatu” (ik. Lk 22,32). Aldarrikapen aintzatsu hori
egin eban, 1968.eko ekainaren 30ean. Ordutik hona, aitormen
entzutetsu horri “Jaungoikoaren Herriaren Kredo” deritxagu
esker onez. Giro larri horretan emon eban Ratzingerrek bere
hitzaldia eta testigantza ederra. Eskertzekoa da bere ausardia
bihotz barneko eleiztar esperientzia autortzean. Ratzingerrek,
1970. urtean, ekainaren 14an, 43 urte eukazala, emondako hi-
tzaldi sonatuaren laburpentxo “Karmel” aldizkarian aipatzea
baino ez da nire asmoa.

ZERGAITIK ORAINDINO ELEIZAN JARRAITU?

1. Eguzkia, iretargiaren argia

Zergaitik jarraitzen dodan oraindino Eleizan?. Itaun honi
erantzuteko, Eleizaren izatea azaltzen hasten da Josphe Ra-

tzinger. Horretarako baliatzen da konparazio bategaz. Iretargia eta beronen garrantzia unibertsoan. Sinbolo ezaguna Eleizaren historian. Eleiz Gurasoak sarritan erabilia.

“Eleiz Gurasoek, dino J. Ratzingerrek, Eleiza iretargiaz konparatzen eben. Iratargia, bere izatez, haitza eta harea, hautsa eta harri koskorak besterik ez daukan desertu bat dogu. Nahizta berez planeta iluna izan, argitasuna dario. Argitasun hori ez da berea, inorena baino. Beste leku batetik jatorko argia. Eguzkiaren argitik hartzen dau argitasuna. Berez iluna izanda, berea ere badau argitasuna, eguzki-argia islatzen daualako”.

Eleiz Gurasoak, Eleizaren izatea adierazteko, iretargiaren metafora gogoko eben. Eleizaren iluntasuna dakarsku gogora. Iretargiaren antzera, Eleizak “hautsa”, “harea”, “harri koskorak”, hau da, gizakion iluntasunak “lizunkeriak”, “jokaera bi-ziotsua”, “areriotasunak”, “hasarreak”, “inbidiak”, “gorrotoak”, “alderdikeria”, “zatiketak” aldean ditu. Gizakiak eratutako al-karteak danek, bereak ditu Eleizak miseria honeek.

Aldi berean Eleizak baditu argiaren distirak ere: “maitasuna”, “poza”, “bakea”, “pazientzia”, “bihotz ona”, “onginahia”, “leialtasuna”, “otzantasuna”, “errukia”, “parkamena”, “justizia”, “solidaritatea”... “Baina Eleizak, berez iluna danek, ez dau argitzen bere argiaz. Eleizaren argitasuna ez jatorko bere erraie-tatik, eleiztarren eginetatik, Kristogandik baino. Jesukristo da Eleiza argitzen dauan egiazko Eguzkia”.

Jesukristo da Eleizaren argiaren argia. Kristogandik dator eta berarengana daroa. Kristori begira jarten dau Eleizaren argiak. Primeran jatorkoz Ratzingerri Vatikanoko II.aren berbak: “Kristo herrien argi dogu. Argi horrek Eleizaren aurpegian diz-diz egiten dau” (Lumen Gentium I, 1).

2. Kristo Eleizaren argia

“Eleizaren biziaren bizia, arimaren arima eta bihotzaren bihotza Jesukristo da. Kristo da Eleizaren argia. Zelan ez dot

jarraituko Eleizaren barnean? Eskerrak Eleizari munduak hartzen dau Kristoren argia. Eleiza barik, Kristo, denboran galdutako izarra izango litzake. Zelan pentsau leike Jaungoiko bako mundua? Zelakoa izango litzake Jesurkristoren maitasunik eta argitasunik bako gizadia? Jaungoiko bako gizartea, hotzaren hotzez alkarren kontra gorrotoz betetako porlanezko bunkerra litzake.

Modan jarri dan “Kristo bai, Eleizea ez” eslogana, fikzio bibril bat besterik ez da. Horreei esango neuskioe, behintzat eskerrak emoteko Eleizari, bere bitartez Kristo ezagutu dabelako”. Ezin da aldendu Kristogandik Eleiza. Beragandik dator, urteak joan eta urteak etorri, denbora guztietako Eleiza bat bakarra. Kristoren presentzia, gizadiaren bihotzean, bizirik nahi dauanak, ezin dau aurkitu Eleizan izan ezik. Inondik inora ere ez Eleizaren parez parez, eta gitxiago Eleizaren kontra.

“Nahitaez hutsak huts, nik neuk Eleizaren aurpegian Kristoren argia, bizia, presentzia reala, maitasuna sumatzen ditut. Bere bekokian, nahiz eta batzuetan zimurrez beteta ikusi, bizi-bizirik dir-dir darrai Jaunaren argiak. Ez da bata kendu behar bestea salbatzeko. “Ez begi gizakiak banatu, Jaunak bat egin dauana”.

“Niretzat kristau izateak eta eleiztar izateak gauza berbera nahi dau esan! Ezin da izan kristau fededuna bakarrik. Kristau fedeak, alkartuta bizitzea berez-berez eskatzen dau. Pentekoste eguna da Kristoren Eleizaren arketipoa. Inondiko herritarrek, Jesusen Espirituaren izenean, alkartuta gara kristau. Eleizaren bidez ezagutzen dogu Jesukristo. Eleizaren barnean egiten dogu topo beragaz. Bizi-bizirik aurkitzen doguz Jesukristoren argia eta egia eta arnasa garbia”.

Kristoren Eleizak, atzo, gaur eta gero, Espirituaren hariz lotutako lore dotorez eta ez hain dotorez egindako girlanda zoragarria dirudi. Argi daukoz Ratzingerrek Kontzilioaren hitzak: “Jaungoikoaren nahia da, ez gizakiak bana-banaka santu egin

eta salbatzea alkarrekin zerikusirik ez balebe bezala, hareek herri gisa eratzea baino” (Lumen Gentium, II, 9).

3. Maite dot Kristoren Eleiza

“Gizakiok hobeto ikusten doguz gauzak maitasun begiekin, gorrotozko begiekin baino. Fidagarriagoak dira maitasunaren begiak Eleizaren historia ezagutzeko, gorrotozkoak baino. Zenbat eta gehiago maitatu Eleiza, hainbat eta hobeto ulertzen da haren historia. Zenbat eta gorroto gehiago izan Eleizaren kontra, hainbat gitxiago ulertzen da Eleiza”. Maitasunaren begiak eta gorrotoaren begiak ikuskera desberdinak ditue. Bada hor esaera egoki bat Eleizaren historia ezagutzeko. Maite badozu Eleiza, nahiz eta mila eragozpen aurkitu bidean, ez dozu behea joko. Maite ez badozu Eleiza, oster, nahiz eta mila argudio alde izan, ez zaitue konbentzituko. Gorrotoaren begiak, oster, gauzak negatiboki ikusteko baino beste ahalmenik ez daukeelako.

Ratzingerrek maitasun begiekin begiratzen deutso Eleizari. “Zelan ez dot jarraituko Kristoren Eleizan? Baditu historian zehar bere hutsak. Baina badau miragarritzko beste historia zoragarri bat be. Hori be esagutu egin behar da. Zoriontsu aurkitzen naz Eleizaren seme-alaba santuen historiaz. Bata bestea baino miresgarriagoak. Horren artean ikusten ditut hainbat senide, hainbat herritar, hainbat eta hainbat kristau arrunt eta humil Eleizan. Horreengandik aparte ni neu ezin naz bizi ere egin”.

Baita Eleizaren erraietan sortutako artelan edertasunaz ere txundituta aurkitzen da. “Zelan ez dot maitatuko Eleiza bere seme-alaben artelan oso ederren aurrean? Horra hor bere antzinako basilika sekulakoak, horra hor bere erromaniko eta gotiko katedral miresgarriak, horra hor bere barroko eta rokokoko artelan ikusgarriak... Eta musikan eta pinturan eta literaturan sortutako lanak, benetan, harrigarriak... Eta Eleizaren liturgia ospakizunak, egiaz, hunkigarriak... Historia hori ezagu-

tu eta esker onez miresteke eskubidea badaukat... Zelan ez dot, ba, maitatuko Eleiza?...”.

Hainbat liburu eder idatzi ditu Ratzingerrek. Euron artean, Eleiz Irakasle Santuei buruzkoa. Guztira 35 dira Eleiz Irakasleak. 31 gizontzako eta 4 emakume: Teresa Avilakoa, Katalina Sienakoa, Teresa Lisieuxkoa eta Hildegarda Bingenekoa.

Ratzingerren ustez, “Maitasun-jakintzaren espezialista iaioa” da Santa Teresita. Eta beronen bokazioa, “Kristo Jesus eta mundu guztia Eleizaren bihotzean maitatzea”. Oso egoki datoz pentsamentu eder honeek, Ratzinger/Benedikto XVI.aren barneko eleiz-bizipena, ”zergaitik oraindino jarraitu Eleizan?, itaunari emondako erantzun sakona ulertzeko.

A. Olea

"GAREN HORI" LIBURUAREN AURKEZPENA *Zein dira euskal balioak, halakorik baldin badago?*

Martxoaren 16a egun handia izan zen niretzat. ELKAR argitaletxearen bidez argitaratutako “*Garen hori*” liburua aurkeztu nuen Donostiako Koldo Mitxelena kulturgunean eta ez edo nola. Ekitaldia streaming bidez jarraitzeko aukera zabaldu bazen ere (kazetariak ere birtualki jarraitu zuten aurkezpena), liburuan parte hartu duten elkarrizketatu asko eta asko bertaratu ziren, baita lankide eta lagun askotarikoak, eta familiakideak ere. Eta, horrela, bi urtez luzatu den lana plaza-ratzeaz gain, liburuak bere baitan korapilatu gaituen asko eta askok han biltzeko aukera izan genuen, elkarri zor genion eskertza lekutuz eta momentuaz gozatuz.

Horiek horrela, eskerrak emanez hasi nuen aurkezpena. Eskerrak, lehenbizi, Elkar argitaletxeari eta Xabier Mendiguren nire editoreari, liburu honen ideia aurkeztu nionean proiektuan sinesteagatik eta eskainitako babesagatik.

Eskerrak liburuan parte hartu duten **16 elkarrizketatuei**, 8 sortzaileei eta 8 komunikatzaile gisa bataitatu ditudan adituei.

Eskerrak, esker-eskubi jarrita izan nituen **Iñigo Ucin** Mondragon korporazioko lehendakariari eta **Irati Jimenez** idazleari, aurkezpen ekitaldian ere laguntzeko baietz esateagatik.



Eta eskerrak, halaber, ekitaldira hurbildu ziren liburuko **gainontzeko partaide, kazetari eta lagunei.**

Aurkezpen ekitaldiak bi zati izan zituen: lehenbizikoa, nire aurkezpen orokorra, zeinetan, liburuaren gaineko zertzeladak eman nituen, ideia nola sortu zen, zein helbururekin, lana nola atondu dudan eta emaitza nagusi batzuk eta, ondoren, mahaian jarri ginen hiruon artean solasalditxo eskainiko genuen, bakoitzak liburuari egin dion ekarpenaren inguruan.

Zeintzuk dira euskal balioak?

Galdera horrekin hasi zen dena eta halaxe eman nion hasiera liburuaren aurkezpen ekitaldiari:

Zerk egiten gaitu berezi? Zerk egiten gaituela berezi esaten / kontatzen dugu? Zerk egiten gaituela berezi esaten dute?

Hiru galdera hauek funtsezkoak dira herri baten /edozein herriren markaz galdetzerakoan. Marka bat badugu? Marka indartsua da? Zer dio marka horrek? Zer dioela diote? Finean, zer ezagutzen dute gutaz?

Dakigun bezala, herri baten marka, herri horri buruz daukagun irudia da. Kontzeptu ukiezina da baina kudeatu daitekeena. Eta ezer kudeatu ezean ere, komunikatzen duena.

Irudi hori, beraz, elementu askoren bidez jasotzen du hartzaileak: herri honetako produktu, kultura, turismo, kirol, enpresa eta erakundeen bidez... denak komunikatzen baitu. Eta elementu horiek guztiek herri horren BALIOAK erakusten dituzte, hau da, **egiteko, ikusteko eta izateko modu bat**.

Esentzia, sustraia, zorua, oinarria, benetakoa dena, betierekoa... hitz horiekin mintzo dira elkarrizketatuak.

Herri baten marka, marka horren eraikuntza ikuspegitik hartuta, hiru elementu nagusik osatzen dute: IZENAK (nola deitzen den), ADIERAZPEN GRAFIKOAK (nola adierazten den) eta BALIOEK (nolakoa den).

Elementu bakoitzaren inguruan azterketa eta proposamen askotarikoak egin dira. Baina balioen inguruko hurbilketetan ez da propioki KULTURAN oinarritutakorik egin.

Eta horixe izan da defendatu nahi izan dudana tesia edo liburuaren abiapuntua: **KULTURA dela “euskal” egiten gaituena**. “Egiteko, ikusteko eta izateko modua” kontatzeko erabiltzen ditugun lengoaia ezberdinen bidez. Lengoaia horien bidez transmititzen da herri honen berezitasuna, zeinetan, artistek

transmisiorako erabiltzen duten lengoaia **LOKALA eta UNIBERTSALA** den, aldi berean.

Nondik abiatu nintzen?

Euskal balioak zeintzuk diren identifikatzeko, euskal balioen azterketa KULTURAREN talaiaetik egitea erabaki nuen, hau da, 8 artista edo sortzaile elkarrizketatuz. Horretarako, arte edertzat ezagutzen ditugun 7 diziplinak hartu nituen kontuan, gurean, bertsolaritza gehituz.

Eta aukeratu nituen sortzaileak hauek izan dira:

LITERATURA: Irati Jimenez

PINTURA: Carmelo Ortiz de Elgea

DANTZA: Jon Maya

ARKITEKTURA: Xabier Barrutieta

ESKULTURA: Dora Salazar

ZINEMA: Jon Garaño

MUSIKA: Juan Carlos Perez

BERTSOLARITZA: Xabier Paya

Berauekin 4 gai nagusi jorratu ditut:

- Sortzaile bakoitzak jorratu duen lengoaia modalitatean inguruan (arteaz)
- Nitik GURako iraganbidea eta eragina (Niak GURan eragiten duen, GUak Nian, noiz eta zertarako eratzen den GU, zer dakarkion Niak GURi eta alderantziz...)
- (Euskal) obraren euskal/nazioarteko/unibertsal izaeraz
- Sortzaileak, berak aukeratutako lengoaiaren bidez transmititzen dituen balioak

Eta, ondoren, beren lanaren bidez, lan-sektore eta diziplina ezberdinetatik ere euskal izaera transmititzen duten aditu edo “komunikatzaileekin” kontrastatu ditut sortzaileek esandakoak.

Liburuaren bigarren zatian elkarriketatukoak dira:

- JOSU BERGARA: Burutu komunikazio agentziaren zuzendaria
- EDUARDO APODAKA: EHuko irakasle eta filosofoa
- ELIXABETE GARMENDIA: kazetaria
- OLATZ LEGARDA: Basque Team-eko zuzendaria
- XIMUN FUCHS: antzerkilaria
- IRAIA OIARTZABAL: moda diseinatzailea, jostuna
- ELENA ARZAK: sukaldaria
- IÑIGO UCIN: Mondragon Korporazioko lehendakaria

Oreka eta emaitza

Elkarriketatuen artean oreka zaintzen saiatu naiz: bai generoari dagokionean, bai adinari dagokionean (30 urtetik 80 artekoak dira elkarriketatuak) eta bai lurraldetasunari dagokionean ere: lurralde guztietako elkarriketatuak hartu dira kontuan.

Liburuan jasotako emaitzari dagokionean, zer esan? Inor ez dela etorri balio zerrenda bat beso azpian duela. Baina guztiek hausnartu dute gaiaren inguruan. Ez elkarriketarako. Aurretik baizik. Nork bere lanean. Galdera bat baino gehiagori erantzutea egokitu zaielako. Beraz, egindako ekarpena, benetan bizia eta sakona izan da.

Balioen balizko zerrenda

Liburuak ez du balioen zerrendarik eskaintzen baina bada-go hari bat, liburuaren bigarren zatian azaleratzen dena, zei-

netan, bozkara eraman beharrik gabeko 8 ideiek indarra hartzen duten:

1. Borondatea (herri izateko eta irauteko borondatea)
2. Euskara eta euskal kultura
3. Auzolana, kooperazioa, elkarlana, elkartasuna, kooperatibismoa
4. Ekintzailtza, berrikuntza, erronkazaletasuna
5. Lana: Kalitatea, bikaintasuna, zintzotasuna, koherentzia, konpromisoa
6. Berdintasuna: generoa, politikoa eta soziala
7. Gastronomia
8. Ahozkotasuna, batbatekotasuna

Eta herri izaeraren gainean egindako iruzkinen artean, gehien aipatzen direnak hauek dira:

1. Lanarekiko harrotasuna
2. Eraldatzeko gaitasuna
3. Erresilienteak
4. Lotsatiak, diskrezioa lehenik, apaltasun/modestia handiegia
5. Komunikatzaile txarrak, antisentimentalak

Liburua ez dator, bada, erantzun zehatz bat ematera. Ez dago erantzun itxirik. Hausnarketarako gonbita irekia izan nahi du.

Bidea irekita dago

Liburuan argi azaleratzen den errealitatea zera da: **trantsizioan gaudela**. Oinarritzat eta egonkortzat genituen balioak eta euskal izaera balizko hura, "euskal eremua" zedarritzen laguntzen ziguna, aldatzen ari da (etengabe eta bizkor,

bizi dugun testuinguru globalaren eta gizartearen beraren eraldaketa medio, belaunaldi berrien begirada berria medio) eta oinarri horiek mugitzen somatzeak **ziurgabezia** eragiten digu.

Eta hor sortzen da tira-bira: batzuk, halabeharrez, tradizioan ainguratuta, iraganean goxo baina ziur. Besteak, etorkizunera jauzi egin ezinik, ainguraren pisua gehiegizkoa izaki.

Gaur egungo Euskal Herriaren balioak, tradizioetik modernizatutako (gaurko eta etorkizuneko) eskenatoki berri baterako iraganbidean daudela ondorioztatu dut eta lanketa hori sortzaileekin egitea dagokigula. Gure eguneroko bizitza, gure begiekin, gure lekuetatik eta gure ametsen bidez deskribatzen eta biderkatzen dutenekin.

Bidea irekita dago, beraz. *Garen hori* zertan datzan jakiteko pausoak eman ditugu. Orain, urrats horiek indartu, bateratu eta zabaltzea dagokigu. Gure berri guk emateko. Guk ikusten eta sentitzen dugun moduan.

Ana Urkiza

GRABITATEA, MATERIAREN BEREZITASUN EXISTENTZIALA DA

1.- Materialista izan gabe baina perspektiba materiala edukiz erraten ahal da kosmos materiala etengabeko igarotzea dela, kosmos horren barruan dagoen guztiarena. Eta, hain zuzen ere, teoriak (kontenplazioak grekeraz) ezin unibertsal bihurtu daitezke gustura, mugimenduan dagoen materia diferenteen arteko erlazioak dira, beti imaginatu daitezke teoria hobeak (horregatik ezin daiteke inondik inora igarotzeari adjetiborik erantsi, aldaketa ez da beti honela edo horrela, ez dakigu hainbeste). Hori berori ondorioztatzen da gaur egun afirmatzen denean ezinezkoa dela indukzio perfekturik, oso zehaztasun handiak lortzen badira ere. Definizio hobeak ikas-teko ikerbidea ere infinituan amaitzen da, eta hori beti aurrera bagoaz, atzerakadak posibleak badirelako. Beraz, kosmos materialean intelektodunen teoriak ere igaro egiten dira, dena. Ahaztu ere ahazten ahal dira, edo galdu ere. Eta hori demostratu daiteke baita ere erranez unibertsaltasuna fijo dela, hau da, ez dela kosmos honetakoa, Platonen formak bezala. Beraz, ezagutza unibertsala ez da topatzen kosmos material honetan. Eta horretaz teorizatzea misterio batez teorizatzea da, eta konkluitzen badugu esistentea dela asko egin dugu. Jainkoaren jakinduriaren barruan legoke, diot nik. Guk ezin dugu igarotzea den kosmos materiala ezer unibertsal bihurtu gustura geratuz.

Baina gu kosmos formalean soilik bizi gaitezke. Ezagutzen duguna formalizatua ezagutzen dugu. Eta Aristotelesi jarraituz formalizatzearen ostean baditugu unibertsal bihurtzen gure

teoria batzuk (umeendako izaten ahal diren ariketetan), eta badaude unibertsalak, formak, eta badugu zientzia, oso aurreratu zenbaitetan gaur egun (Goethek zioen moduan, zeruraino ere). Hala ere unibertsaltasuna (ezagutza unibertsala) eskapatzen zaigu, eta, ondorioz, ez dugu, adibidez, a priori asmatzen gure teorietatik. Ez gara gauza juizio sintetikoak a priori egiteko, guztiz ezinezkoa zaigu eta ez gara iristen arrazoi garbira, unibertsaltasunera. Hori Kanten teoria izan zen. Baina mugak ditugun arren bada kontsideratzeko modukoa aurrerapena, iragan egiten den arren. Eta banoa da gure admirazioa progreso materialaren aurrean, batez ere materialista huts bagera, ateoak. Fededunak izanik, oster, admiratzen ahal gara Jainkoaren jakinduriaz eta ezagutzaz, guri dohainen bidez ematen dizkigunak, halakoak egiteko.

A priori asmatzen zuena Jesus da, eta Harek unibertsaltasunetik hitz egiten du, eta ahala ere badu. Hori deduzitu daiteke Haren signoak analizatuz. Eta horregatik (intelektualismo moralak erakusten digu) Jesus da etikaren buru innegablea, eta gu ere, zientziaren bideetatik, filosofiaren bidetik, egiaren bide estutik, Haren baitara goaz gure kausa finala balitz bezala, eta egiazki bada. Eta Jesus (eta bidea markatzen digun Haren doktrina) da, denen buru, lehenetsi behar den Jaun bakarra, norberaren burua baino lehen dena. Kreatzailea baita. Jainkoa. Eta Berak eskua ez badigu ematen gu hondora goazelako. Oroit dadila nitaz, gutaz irakurle, juizioaren egunean.

2.- Ezagutza unibertsala irits ezina bada kosmos material honetan orduan unibertsal bihurtutako oro, igarotzean dena kosmos material honetan, hala nola grabitatearen teoria, ez da unibertsala. Beraz, bada posible hori ikertzea eta gobernatzea. Oso gaitza izan arren.

3.- Egiari hur eman nahi badiot haxe ere esan behar dut, ezen oso inportantea iruditzen baitzait nire psikopatologia ere aztertzea, ez dadila izan traba nire inbestigazioaren egiari bu-

ruzkoan, ez dezala trabatu nire ikerketa. Larri gaixotuz gero inkapazidadea eman diezazuke seguridade sozialak, eta ondoren pentsio txiki bat eman. Baina hori heriotza ez bada, aktibidadeak edukitzen ahal dira, bizi oziosoa egiten ez bada, jakina. Nire kasua da. Ez zaie batere ardura zer egiten dudana, aurretik epaitua nago. Nik pentsatu dut hau: nire gaixoa igarri egingo da (hori ere ikertzen baitut konprenitzearren eta osatzearren, beti egiaren bila, argiago erratearren egia), nire gaixoa igarri egingo da, bai, baina nire ekarpena, baldin badut, ni saiatzen naiz dudana denbora aprobetxatzen, ere bai, nire gaixoa ikertzen egindako aurrerapenak ere. Zerbait positiboa ateratzen ahal dut gaixoa izan arren (zerbait positiboagoa gaixotasuna ulertzera iristen banaiz ere, eta psikoanalista izan nahi zuen medikua naiz). Beraz, aurrera publikatzen didaten karmelitekin. Hemen Jesusek errana aplikatzen ahal dut: medikua osa ezak heuk hire burua. Ataka ederrean jartzen nau nire Maisuak, pentsatzen dut etsita, irribarrea ateratzen zaidala. Aurrerapenak egin baititut.

Eta sartu naiz aspaldiko bokazio batetik: nire euskara maitean filosofia lantzea karrera diziplinatuan, amaitu ez badut ere. Purismoak ito eta hiltzen duelakoan hizkuntza, euskara batuaren alde egiten dut, purismoaren aztarnak borratuz, baina ortografia akademiak teorizatzen duen moduan hemendik aurrera, eta hola bidaltzen ditut nire lanak Karmel aldizkarira (telefonoz halaxe geratu ginen). Eta filosofiako karrera erdi amaiturik nire filosofia kristaua lantzen dut ahalik eta argien. Aurrera, esaten diot neure buruari. Egia maiuskulaz da nire helburua, nire kausa finala.

Epai nazatela, epai nazala Jesusek (eta epaituko nau azken egunean, eta beldurra diot betirako baita haren kondenazioa, baina beldur gozoa da). Etsaien epaia ezaguna zait. Ni ez naiz diagnostiko bat, gutxiago oraindik Olegario Ortiz nire medikuna internako katedrátiko admiratuaren bitartez dakidala medi-

kuok oso txarrak garela diagnostikoak egiten, maiz insultoak eta humiliazioak direnean gainera mediku ez direnengandik.

Adanen konplejua duen honek bazterretik idazten duela ez du ahazten, hierarkietan baju. Eta sufrimendua badakar ere, oso perspektiba onak ematen ditu bazterrak, fedea dagoe-nean, ongiaren eta gaizkiaren zientzian aurrera egiteko. Baina edozein dela ere bakoitzaren lekua, hortik ere ikasten ahal da probetxuarekin zientzia printzipal horretaz. Ni ez naiz esklusibista. Nik zabaldu nahi dut neure “teoria”, nire filosofía, zeina baita eskolastikoa. Filosofia kristaua, katolikoa zehazkiago.

Nik neure psikoanalisia, ikerketa psikologikoa dena, detektibezkoa ere, bukatua dut ia, eta ondorioztatua dut jaio nintze-la epoka batean noiz eskolan ez zegoen onartua ezkertia iza-tea, eta hor dago nire sufrikarioaren hastea, orduan sufritutako estuasunetan, hori ondorioztatua dut eta psikiatra psikoanalistari errana ere dut. Ama ere joan zen profesoreen-gana esatera mesedez umea bakean lagatzeko. Eta hori, nire gaixoaren kausaz teorizatua, seguritate handiaz jakinik, ez ab-solutuaz, nigan desolazio handia eragiten du, bizi osoa alfe-rrik galdua!. Momentu erabakiorretan estuasun galantak.

Baina gauza onak ere badaude, eta gehienak gainera, eta dena ez da iluna, (hori psikologo bati zor diot). Nire burua hobeto, duda barik, ezagutzen dut. Nire sufrikizunak ez ziren gertatzen unibertsalki, baizik eta puntualak ziren, nik, hain txikia izanik, unibertsal bihurtzen nituen arren, hori arazo mingarri handia. Orain une gaixoak partikularizatzen ditut. Nonbait han estuasuna inguratu eta isolatu egiten dut, infla-mazioa balitz bezala.

4.- Orain kristauon otoitzik inportanteena komentatu nahi dut, inspiratua sentitzen naiz.

Gure Aita esaten hasten da. Zeren kristauontzat gure Jain-koa gure Aita baita, eta Jesusek Berak erakutsi zuen nola egin behar genuen otoitz galdetu ziotenean. Taldean Aitari.

Zeruetan zerana. Izan aditza erabiltzen da euskaraz, Izaera, el ser, eta horretaz dauden teorizazio ezagunenak, Parmenides, Aristoteles, Duns Scoto. Zerua beste kosmos batean dago, hurrian dagoena gainera, inbisible guztiz zaigun arren, zientifikoki demostratu ezina (zientziazkoa ezin daiteke unibertsal bihurtu), baina filosofikoki bai (Jesusek signoekin demostratu egiten du baduela ezagutza unibertsala, ahala ere badu, eta hori ez da kosmos honetan non galduak gauden erremedio barik. Jesusek fundatutako erlijio katolikoa soilik salbatzaile).

Santu izan bedi Zure izena. Konfiantzarik handiena eduki dezaguntzat, jakin arren biguna ez dela beti derrigor Haren santutasuna. Sendoa ere bada gradu maximoan, perfektuan. Eta hori bertutea da, bertute kardinala. Eta gradu gorenean bertute guzietan, izanik Bera ahalguztiduna.

Etor bedi Zure erreinua. Eta hor gure beste otoitz guztiak laburbiltzen dira. Paradisua, Jainkoaren Erresuma.

Egin bedi Zure nahia, zeruan bezala lurrean ere. Jesusek ere hori eskatu zion Bere Aitari gurutzera zihoala. Eta Moisesen pelikulan harek faraoiari honela esaten dio eszena batean: zure borondatea nire desioa da. Eta zein da Jainkoaren borondatea?, denok salbatzea. Hori badio san Tomas Aquinokoak ere, ez da abade moderno batzuen obsesioa beraz, gertatzen da gure esku dagoela borondate hori trabatzea edo erraztea, eta Jesusek esaten digu hobe dugula erraztea, eta Biblian irakurria dut hor nonbait ezen bakoitzari emango zaiola eskatzen duena. Eta el Cid Campeador famatuaren poeman honela dio pasarte batean: que buen vasallo si hubiera buen señor. Mundu honetan bai morroia eta baita jauna ere gaiztoak dira, eta denetarako alternatibak sortzen dira politikan, jakinaenez (eta kultura orientalean badira deskribatzen iraultzak ere, hori baita gaiztoena kulturetan, horregatik erraz ulertzen da hori). Baina baita ere bada egia nola kultura orientalean filo-

sofia, zientziak eta arteak, formazio profesionala eta unibertsidadeak, garatu direla eta jarraitzen dutela garatzen parekorik gabe (nolabait gaizkiaren problemari irtenbideak bilatzearren, jakitearren). Eta Jesusek dio gaixoei behar dutela osatzea, hortik, diot nik, kultura orientalean izatea errebelazioa. Baina gure Aita santua da denen buru, eta Jaun ona da, (“di papa dimelo donde esta el buen Dios”, Jose Guardiolaen txikitako kantua) beraz, ez dago inolako problemarik, logika garbian, gu, nahi badugu, libreki haren zerbitzariak izan gaitzen. Joe-
rari aristokratikoena, harrokeria ez dena eta bai ezagutzea, edukita ere (zerbitzari izatea orbana balitz bezala, umiliazio handia). Argia da, kasu honetan, gure erabakia. Zerbitzariak izatea, umiliatuak. Gure egia azeptatzea. Obreroak gara.

Emaiguzu gaur egun hontako ogia. Hor ekonomia jartzen du Jesusek lehen planoan. Marxek baino azkoz lehenago. Eta nik ere lehen planoan ipintzen dut. Sexua baino lehen (aitatu ere ez da egiten otoitz printzipal honetan, agian Hasiera liburuan badu Jainkoak esaten ez dela ona gizona bakarrik egoitea; eta guk ere beti Jesusi jarraituz gure Aita esaten dugu eta ez nire Aita).

Barkatu gure ofentsak, guk ere ofenditzen gaituztenei barkatzen diegunez gero. Eta hemen barkamena kristauon fedearen esentzian ere jartzen da, eta guk barkatzen dugun neurrian barkatuak izango gara. Begira zein inportantea den gure salbaziorako barkatzen ikastea eta praktikatzea.

Eta ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen. Mundua, deabrua eta haragia, arimaren etsaiak omen dira. Eta arima da geratzen zaigun azken gotorlekua salbatuak izan gaitzen, eta beldurra arima ere kondenatzen ahal duenari eduki behar diogu.

Baina atera gaitzazu gaitzetik. Eta gaitzetik atereak gairenean ongiari buruz zuzenduak gara. Ongiaren eta gaizkiaren zientzia fundamentala mundu honetan, kosmos honetan, ikas-

ten ari garena. Sokratesen intelektualismo morala aurrerapen handia izan da zientzia basiko horretan.

Amen. Hala izan bedi, hori diogu amaitzeko gure otoitzik inportanteena.

Hori da errezatzean esan behar duguna. Jesusek erakutsitako otoitza, hau da, printzipalena.

6.- Bueltatu nadila izenburuaren gaira. Astrofisika. Newtoni esker ohituta gaude unibertsoa teorizatzeraz grabitatearen legeen arabera. Baina ohartzen bagara ezinezkoa da dena grabitatearen arabera izan. Badaude indar grabitazioaletatik aparte halako indar estensiboak, eta gure egunetako unibertsoa ekilibrio estable eta dinamikoa da bi indar horien artekoa.

Unibertsoan, kosmos honetan, badira deskubritu zulo beltzak, sua eta argia ere erakartzen dutenak, eta omen dira materia kontzentrazio ikaragarriak, baina indar estensiboek eragiten dute horien eztanda, galaxia berriak eta sistema planetario berriak sortzen direla. Eta hortara omen da unibertso honen, kosmos honen, historia gertatzen.

Gero nanofisikara itzultzen bagara, elektroiak ikasiko ditugu giratzen nukleo baten orbitan, eta hori, hori da nire teoria, ez da gertatzen soilik grabitazioagatik, halako indar estensiboak ere badaude oreka estable bat ematen dietena halako atomoei.

Eta halako kosmos estable batean, eta bisiblean, formalean, soilik bizi gaitezke. Eta hutsune ikaragarriak daude gure konposizio materialean. Gehiena hutsa da.

Ezin daiteke dena grabitazioa izan, hori da nire teoria. Eta hauxe diot, grabitatea materiaren berezitasun esistentziala dela, kuantifikatzaile partikularra oso maiztua, baina ez inondik inora fenomeno unibertsala. Eta guzti hori ikertu eta estudiatu beharko litzateke.

7.- Gobernatzen ikasten dugunean grabitatea, nire imaginazioa hegan hasten da eta zientzia fikziorako bidean jartzen da. Abentura espaziala, ez dena izango bide erraza, eta lan intelektual asko eskatuko duena, eta lan praktikoa ere, jakina. Ez dakit ahalko dugun, gustatuko litzaidakeela aitortu arren. Nire Jauna Jesus da, eta laneko kultura bat oso indartsua eta tinkoa, belaunaldiz belaunaldi transmititua, osasuna galdu gabe horretan, jakina, ezinbestez beharko da. Ume jaioberriak ez daki ezer, tabula rasa da. Diot nik. Lana ez zaigu faltako, denoi, fundamentua badugu behintzat lanaren kultura bat antolatzen. Nonbait lehenik zigorra zena orain da behar ukaezina abentura espazialean jarduteko suerte minimo batekin.

Roman Garmendia

KONTU-KONTARI

LEON ÜTHÜRBÜRÜ ETA FLOREANA UHARTEA

Pertsonaia guztien giblean beti bada istorio zirraragarri bat, eta Leon Üthürbürü barkoxtarraren giblean dagoena oraindik zirraragarria.

Galapagoetako irla bat utzi zuen bere testamentuan baina herentziaren aferak oraindino epaitegietan darrai. Noiz arte?

1. Leon Üthürbürü barkoxtarraren nondik norakoak

Leon Üthürbürü 1803an sortu zen Zuberoan, Barkoxe herrian, laborari familia batean, eta frantsesak, Espainiara igortzeko, mutilak soldadu gisa hartzen ari zirela ikusirik, Euskal Herriko beste mutil ainitzek bezala, Ameriketara alde egin zuen bizimodu hobe baten bila. Garai hartan hogei urte zituen. Ekuadorreko Guayaquil eskualdean negozio emankorretan luzaz sarturik ibili zen eta ondoren, Quiton banku bat zabalduz, diru ainitz egin zuen eta biziki pertsona ospetsua izatera iritsi zen. Politikan ere sartua ibili zenez, Napoleon III.aren garaian, Guayaquil-eko kontsul izendatu zuten.

1853an, berrogeita hamar urte zituela, eri eta diruz beterik, Andeak mendien azpiko lurrak utzi eta Euskal Herrira itzuli zen. Barkoxen, eliza ondoan, etxe bat eraikiarazi zuen eta bertan finkatu zen bizitzen. Egun, etxe hori Barkoxeko presbiterioa da.

Barkoxen bizi zela, Jose Villamil Galapago uharteetako jeneral gobernadoreak gutun bat idatzi zion. Zor handia omen zuen barkoxetarrarekin, azken honek mailegu handiak eman baitzizkion Ekuadorreko soldaduen soldatak ordain zitzan. Zorra kitatzeko Galapagoetako Floreana uhartean zituen lurrak proposatu zizkion. Osora irlaren hiru bosten. Uharte honek 173 km² ditu eta oso biztanle gutxi. Üthürbürük Villamil jeneralaren proposamena onartu zuen eta paperak egiten hasi ziren ordainketa lehenbailehen burutu zedin. Horretan ari zirela, arazo politikoak zituela eta, Villamilek Perura abiatu zen. 1860ko azaroaren 8an Leon Üthürbürü zendu zen, eta Barkoxeko herriko etxean dagoen testamentuan ongi ikus daitekeen bezala, Floreana irlan zituen lurrak bere herriari utzi zizkion, bertako jende umila laguntzeko asmoz.

Ordur geroztik, Barkoxeko herriko etxeak, behin eta berri, Üthürbürük herentzian utzitakoa eskatu du epaitegietara joz, baina alferrik, oraino ez baitu deus lortu. XX. mendeko laurogeiko hamarkadan, Ronald Reagan estatubatuar presidentearen aholkulari eta Nevadako gobernadore izan zen euskal jatorriko Paul Laxalt politikariak bitartekari moduan ibili zen auzian, baina ez zuen deus lortu. Gaur egun aferak zabalik jarraitzen du.



Barkoxe ederra

2. Floreana uharteari buruzko zehazkizunak

Leon Üthürbürük ordain gisa atzeman zituen lurak Floreana uhartean zeuden. Irla hau Galapago uharteetako seigarren handiena da. Arroka bolkanikoz osatua da eta 173 km² ditu osora, 18 km luze eta 16 km zabal hartuz. *Cerro Pajas* da irlako lekuri goren 640 metroekin. Espainiar kolonizatzaileek *Santa Maria* izenaz bataiatu zuten eta ingelesek *Charles* izenaz zuten ezagutzen. Luzaz baleazaleen aterpe eta piraten habia izan zen, oso biztanle gutxiarekin beti. 1832ko otsailaren 12an Ekuadorrek Galapago uharteak bereak zirela aldarrikatu zuen. Garai hartan Juan Jose Flores zen errepublikako lehen-dakaria eta haren omenez eman zioten uharteari gaur duen izena, Floreana alegia.

Floreana uhartean oso animalia bereziak bizi dira: flamenko arrosak, dortoka erraldoiak, pinguinoak... gaur babesturik daudenak. 1835ean Charles Darwinek, Galapago uharteetara egin zuen bigarren bidaian, Floreana bisitatu eta aztertu zuen.

Gaur uhartean 200 biztanle inguru bizi dira, laborariak gehien bat, eta gehien-gehienak *Puerto Velasco Ibarra* izeneko herrixkan bizi dira. Euskal jatorrizko Jose Maria Velasco Ibarra bost aldiz izan zen Ekuadorreko presidente 1934 eta 1972 urteen artean eta Floreanako portuak bere izena darama.


Uharte honen hiru bosten jaso zuen Leon Üthürbürük ordain gisa, eta testamentuan Barkoxe herriari utzi. Hauxe da barkoxtarrek epaitegietan betiro eskatzen dutena.




Galapago uharteak. Bebeko aldean Floreana uhartea



Floreana ubartea



Charles Darwinek Floreana aztertu zuen



Leon Üthürbürü Henri Lexardoiren arabera

3. *Herriko Semeak* pastoralara

1998ko uztailearen 26an eta agorrilaren 9an Barkoxe herriak *Herriko Semeak* izeneko pastoralara jokatu zuen. Pastoral egilea Patrik Keheille herriko semea izan zen eta pastoral errejenta Jean Fabien Lexardoi ospetsua. Pastoral honetan Keheillek hiru barkoxtar hartu zituen süjeta gisa: Beñat Mardo koblakaria, Pierra Topet Etxahun eta Leon Üthürbürü. Pierre Etxeberri izan zen Üthürbürü gaztea jokatu zuena eta Jean Pierre Luro Üthürbürü heldua antzeztu zuena. Horietaz gain Francis Xixer süjetaren Battitta anaia izan zen eta Adrian Etxebarne haren aita.

Keheillek izugarri ongi kontatu zuen barkoxtarren artean horren ezaguna den istorioa. Ikus dezagun. Lehen perezdiküan, bederatzigarren bertsetan honako azalpena eman zuen Leonek gazte-gaztetik Ameriketara joateko zuen asmoa azalduz: Üthürbürük üken züan / hegaltatzeko indarra, / gazterik abiatu beitzen / Hego Ameriketara. Bederatzigarren jelkaldian, 93. bertsetan gauza bera aipatu zuen süjetaren ahotik: *Nik ihes egiteko / ez düüt aldiz lotsarik, / gaüza hori pentsatzen / beinüan aspalditik.*

Hemeretzigarren jelkaldian Leon Üthürbürü Barkoxera itzuli zen garaia eta egin zioten ongi etorri beroa azaldu zituen. 169. bertsetan honela zioen süjetaren ahotik: *Agurtzen zütüet barkoxtararak / saldoan oro bildürik / Agur Battitta ene anaia / aspaldi hontan ützirik.* Eta 171. bertsetan honela jarraitu zuen: *Ez nüan batzarria / hain handi merexitzen / Ni-garrak ez ditiat / haboro ahal gordatzen.*

Aipatu jelkaldiaren ondoren arizaleek *Ene bizi ürratsak* izeneko kantu ederra abestu zuten barkoxtarren ibilerak kontatuz. Hitzak Patrik Keheillerenak dira eta musika Mixel Etxeko-parrena. Kantu honek biziki ongi laburbiltzen du Üthürbürüren bizitza. Sei kobla ditu eta tarteka errepikatzen den leloa. Horratx:

- 1.- *Kantatüko deizüet, xebetarzünetan
zer zen ene bizia Ekuadorrean.
Armada ez egiteko, ibes joan nintzan,
Ameriketara heltü, bi sos sakoletan.*
- 2.- *Guayaquil herrian lanean hasi nintzan,
saltegi bat zabaltü portü famatüan.
Afera aberatsak egiten nüntüan
eta jaun handiekin agitzen üsüan.*
- 3.- *Villamil jenerala, ordüan elerran,
barremanetan sartü irailtza denboran.
Sos lagüntza eskentü neion segretüan
nabiz irailzaleak lagüntü borrokan.*
- 4.- *Villamilek irailtza irabaz ondoan
bere zorren ordaintzeko uharte bat eman.
Nik aberastarzüna hola bildü nüan
Floreana ükeitez Galapagosetan.*
- 5.- *Orotan famatürik, bontarzüin beinüan,
Üthürbürü izena sartü zen Frantzian.
Erregeak ondotik haiütatü nündüan
Frantziako kontzüla Ekuadorrean.*
- 6.- *Hamar urtez egon niz Kitoko herrian,
Goizetik arratseala, etenik lanean.
Urteak bibikatzten, adina bor nüan,
bihotzak arra deitü maite sor leküan.*

Errepika:

*Hebentik joaiteko gogoa
gaztetarzüinaren ametsa.
Partitzeko barro bihotza,
espantxa beitü bontarzüina
bena goibeltzen da gizona
bürrün beitzao Xiberoa.*

1855ean kolerak jende anitz hil zuen Zuberoan eta Europa osoan. Ûthürbürü kexu zen eta bere ondasunak testamentuan lotzeko beharraz mintzatu zen Battitta anaiarekin. Horrela kontatu zigun Patrik Keheillek hogeita batgarren jelkaldian. 184. bertseta: *Barkoxtarrak lagüntü / nabi dütiüt mementoan / hamarnaka baitira / biltzen gure herrian.* // 185. bertseta: *Ibes joan nintzanean / üken nüan lagüntza / geroztik zor deiet / ordünko ixiltarzüna.* // 186. bertseta: *Eliza bat nabi düit / bürgüan eraikarazi / sokorri ekarteko / kolera eritarzünetik.*



Patrik Keheille



Henri Lexardoiren afixa

Hogeita bigarren jelkaldian, testamentua egin zueneko momentua aipatu zuen. 187. bertseta: *Ene adiskideak / egün zütüet bildü / denbora zale beitoa / adina hor beitiüt.* Aipatu jelkaldian irudikatu zuten süjetaren heriotza, eta ondoren Ûthürbürüren hiltzea kantu hunkigarria abestu zuten. Bi kobla eta errepika ditu. Hitzak eta musika Mixel Etxekoparrenak dira. Horra hor:

1.- Itsaso bandian banditarzünean

bena nork orit düke

baren sor leküa.

Zure zabalean ene ohatzea

bur dohatsü baietan

arozbakoz hurtzea.

Har ene bidea, düdan flakezia,

uharte itsaso itzal

den ene bizia.

2.- Aberastarzünak, lür axalekoak

zilarrezko ametsak,

orai hurtzekoak

bihotzeko argi den mendren leinürüa

baratzen bazait har azü

arrapizgarria.

Sorterri maitea, oi Eüskal Herria

bel dakian otoia

ene azken oihua


Errepika:

Ütürri begiala, ene ütürbürüala

Jauna lagünt nezazü

bara itzültzera.

Hauxe izan zen Patrik Keheillek Barkoxek 1998an jokatu zuen pastoral bikainari eman zion amaiera ederra. Hala bedi! Leon Üthürbürü iturburura itzul dadin eta Floreana uharte barkoxtarren eskuetara. Egiari egia zor.



Leon Ütbürbürü Henri Lexardoiren arabera

Joseba Aurkenerena Barandiaran

XERAR URRUTIA JORAJURIAREN OLERKIAK

AMA EUSKARA

**Euskara gure arima da,
gure arma hoberena!**

Gure hizkuntza,
lur barne sakonetik heldu da,
izaeraz janzten gaituena,
gure zainetan isurtzen dena,
betidanik gure baitan izan dena.

Gure lurrari lotua da,
ama eta bere umea
lotzen dituen zilko-hestea,
lurra eta zerua, zubi gisa,
uztartzen dituen ortzadarra da.

Gure hizkuntza,
behar-beharrezkoa da,
arnasten dugun airea,
odola zainetan mugitzen duena,
bihotzak zuzentzen duen bidea.

Gure biziaren lotura da,
eguneroko harremana,
transmisioaren haria,
gizartearen erlazioa,
funtsezko izatea.

**Euskara gure arima da,
gure arma hoberena!
Zaude bizirik!
Bizirik zaude...**

LARRUN

Leihoak idekitzen ditudanean,
zu zaitut aitzinean.
handientsu ospetsua,
xutik altxatuz zure gorputza.

Urtaro parte honetan,
aldapak xuriz estalia,
elurrez beztitua,
neguko erreginarene itxura.

Oi! Mendi sakratua,
gu zaintzen ari zira,
zure babeskidun osoz,
eskerdun gira.

Sinesmen zaharrekoa,
arbasoen mundukoa,
betierekoa zira,
Euskal Herrikoa.

Argiak ikusten dira,
patarra behitik jausten direnean,
lerro luze batean,
jentilak dira ihauterietan.

Udako sasoienean,
lozez gaineztatua,
larre-on agertzen zira,
argizatuz mendi-mazelak.

Pottokak, betizuak,
zangopilatzen dituzte bazterrak,
saltoka, jostetan,
biziarazten mendia.

Larrun sakratua,
mendi maitea,
eternitaterako zira,
gure babes zaintzailea.

SUTEA

Beratik igo da Ibardin aldera,
suge narrasti zikin bat bezala,
bere pozoia hedatuz, dena erre da,
Urruña, Azkaine hunkituak dira.

Oihanak, iratzeak sutan dira,
kea urrundik sumatzen da,
mendia gogorki sufritzen ari da,
Larrun maitea kolpatua da.

Mendia larrutua, suntsitua da,
basoak hautsez tapatu dira,
errautsa zeruraino airatu da,
loreak, fauna desagertuko dira.

Baso-goroldioa funditua da,
pottokak, betizuak jautsi dira,
iheska joan dira malda behera
zerua beltzez beztitu da.

Egun ilun triste hauek ahantziko dira,
izadia berpiztu eta indartuko da,
mendia berriro berdeztatuko da,
biziak heriotzari hartuko lekua.

Azkartuko, zutituko zira,
berriro elkartuko gira,
atzo ezagutu ginuen hondamena,
bihar ez dadila berritz gerta.

Oroit gaitezen bat egiten dugula
Amalurrekin, gu guztien ama!
Handitzen, loratzen gaituena!
Bizia, gizadia sortu duena!

Xerar Urrutia Jorajuria

BERTSOAK

JOAN ZAIZKIGUNAK GOGOAN

**Felix Duralderi
zerura arte agurra**

Errekan urak beren bidean
kantuz doaz helburura;
zure joana ere horrela
bere mugara heldu da;
joan gozoa eta barea,
txit isila gertatu da,
agurrerako dena prestatzen
dagoenaren modura;
joan zara, bai, Felix maitea,
zeure herritik zerura.

*Luis Baraiazarra
Markina-Xemein, 2021-05-18*

**Iñaki Barandiaran
Martinez Alegria**

Bizi-bizia zinen izatez,
txinparta zaizu itzali;
une batzutan profeta gisa
barruak bizi diraki;
musikarien etxeko zinen,
zu zeu gortua izaki;
zure osaba Emilianokin
bizi zaitezela beti,
zeruko kankak entzuten pasa
dezazuela, Iñaki!

*Luis Baraiazarra
Markina-Xemein, 2021-06-10*

egin zazu lagun bat KARMEL aldizkariaren harpidedun...!

(urteko harpidetza: bakarrik 18 €).

Izena-deiturak -----
Kalea ----- Zbkia.----- Solairua -----
Herria -----Tfnoa.----- Postakoadea -----
Herrialdea -----

Ordainketa

Banku edo Aurrezki Kutxa -----

Kontu korrontea/libreta -----

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu-zenbakia

* * * * *

Aldizkariaren helbidea:

KARMEL - Zuzendaritza

Karmengo kalea, 5

48270 Markina (Bizkaia)

(Tel. 946 166 019)

www.karmelaldizkaria.com/karmel